

**LITERATURAREN  
INGURUAN**

**saiaera**

JUAN SAN MARTIN

LITERATURAREN  
INGURUAN

saiaera



HORDAGO PUBLIKAPENAK  
PUBLICACIONES

Plaza Guipúzcoa 11-1.º - Donostia  
Tel. 429127 - 429128

© HORDAGO, S. A.

Edita: EDITORIAL LUR (Plaza de Guipúzcoa 11 - 1.º, Donostia).

ISBN 84-7099-154-X

Dep. Legal S. S. 87/80

Impreso en Itzaropena, S. A. - Errikobarra kalea, 2 - Zarauz

## ATARIKOA

*Euskal literaturaz, 1960an L. Mitxelena gandik aburu orokorrak jaso genituen. Urte bete geroago, 1961ean, L. Villasantek Historia de la Literatura Vasca argitaratzeaz, ikuspegi zabal bat jarri zigun begien aurrean eta aurrerantzeko bilaketetarako behar beharrezkotzat joko genuen. Lanok oinarrizko bihurtu ziren edonorrentzat, gehigarririk erantsi edo zatiren bati bestelako ikerketak egin ahal izateko. Geroago, Ibon Sarasolaren Euskal Literaturaren Historia deritzan saiaera zetorren gizarte-ekonomi aldetik izan ziren eraginak erakutsiko zituena. Liburu interesgarri honi kri-*



*tika egin nionean — gaur, berriz, liburu hontan jasotzen dena -; euskaltzale ezagun batek esan zidan: “Iboni eman diok jipoia”. Baina, nere asmoan, eta gutiago gogoan, ez nuen izan jipoia emateko desiorik eta ezta gutiagorik ere. Nere iduriz, zituen alde onak baino askozaz gehiago begiratu nituen hutsuneak zirela iduritu zitzaizkidan parteak, liburua ren osagarri. Beti gelditzen direnez guztiz hertsiki gabeko zirrikituak eta ikerketak iharraitzeko bere bideak.*

*Besteak beste, J. Erzibengoa eta P. Ezkiagak irakurgintzarako gertatu zuten Euskal Literatura (Bilbo, 1972-75) deritzanak, bere lau liburuen bidez, XVI.etik XIX. mendea osatua arte hartzen du. Obra hau ordea, Europako mendebaldeko kultur mugimenduak kontuan izanik egingo da; baina azterketazko zenbait hutsune nabarmen ageri dira. Hala ere, bide berri bat ideki zigun, eta bide horiatik abiatzen da liburu honen lehen parte ere.*

*Mendebaldeko kultur mugimenduak, nazioarteko korrentean, era guzietako*

eraginak izan ditu gure artean, zientziak, teknikak, pentsaerak, arteak eta literaturak berak. Hauek gurean izan zuten eragin hori hobeto finkatzea beharrezkoa zen, eta asmo horrek eroan ninduen nere euskaltzain sarrerako hitzaldiaz Pizkundegaraiaren eragina aztertzerara. Portesantean mugimendutik Axularren garaiako aszetika lanetara arte. Gure literatura landuaren sorrerako giroa begiratuz, eta lehen liburu inprimatuak ere guzi hortan zer ikusirik zutenez, hori doa bestelako eraskin bat ere.

Argien aldia etorri zenean, ordura arte Ifar Euskal Herrian ezagutu zen erako literaturagintza ekarri zuen Ilustrazioak Hegoaldera eta, behar bada, honen lehen kimua izanen da "Gavon-Sariac".

Erromantikoena ordea, karlisten gerrateakin nahasian sortu zen Jose Mantrolaren lanen inguruan, itxura batean, lehenakin etendurarik gabe, eta geroztik gizaldirik gizaldi gure mendekoen ganaino heldu zaiguna. Baina erroman-

*tikoak bazuten beren aitapontekoa: Iztueta. Eta, honegandik oinarritutako ikuspegiak ere merezi zuen haintzat hartzea.*

*Gai hauek nolabait ikertzen saiatu naizenez, ondorioz, han-hemenka argitara eman nituen zenbait saiaera dira liburu honetara bildurik, mendez mendeko emaitzaren hildoa hornitzearen lagungarri direnak. Gure literatura hobeto ezagutzen laguntzeko beharrezkoa bait da lan guziok batean ematea.*

*Baina ez espero izan ikerketazko ihardunaldi hoietan azken hitza aurkitzerik, ez. Saio hauek, esan bezala, Europaren mendebaldeko kultur mugimendu horien eragina zehatzago ezagutzera hurbiltzeko bidea idekirik usten dute.*

*Paper zaharreri tiraka hastean, bestea ondoren dakar. Hau da, era berean, ikerketa horien ondorioz aztertu behar izan nituen zenbait pertsonaje, betegarri bederen, orrialde hauetara ekartzea iduritu zait, zeren erromanti-*

*zismoaren eraginez, iragan mendetik gu-  
rera arte zubigintzan aritu zirenez.  
Arrazoi honegatik, hauekin osatzen dut  
liburuaren bigarren saila.*

*Ez dira agertzen pertsonaje guziak,  
jakina. Hemengo bederatzi pertsonaje  
hauek garaiko gehiagoren lekukotasu-  
nez har beza irakurleak. Hoiien bizitza  
eta lanen bidez jabetu gindezke gainera-  
koez. Hemen sartzan direnetatik: Urki-  
xoren euskara, Azkue eta herri literatu-  
ra, Lopez-Mendizabal eta euskaltzaleta-  
suna, Salvatore Mitxelena eta gerraon-  
doko larri-mina, A. Pascual Iturriaga eta  
Hezkuntza, I. Iriondo eta herrikanta  
elizkoiak, J. P. Ulibarri eta lehen gutun-  
liburua, Hualde hilberria den euskalki  
berezi baten lekuko eta B. Etxenikeren  
bidez L. L. Bonaparte printzearen  
lagunguntzaileengana hurbiltzea.*

*Arestian aipatutako literatur histo-  
riak baino oraintsuago S. Onaindiaren  
Euskal Literatura liburuak, historia soi-  
la ez ezik egileen testu zatiak ere argita-  
ratzen ditu. Honegatik liburu zaharren*

*barnera leiho bat idekitzen digu. Hala ere, gaur gaurkoz egileen obretara hel-tzea zaigu lanik nekegarrienetakoa, ze-ren gure liburu zaharrak urri izatez gai-nera Biblioteketan sakabanaturik aurki-tzen dira. Hordago argitaletxearen lana, euskal klasikoak plazaratzeaz, aurrera eramaten den neurrian hobetuko zaiz-kigu errezago ezagutzeko bideak. Eta, batez ere, Euskaltzaindiak lekukoen la-nak argitaratzea eramaten duen neu-rrian. Testuak aztertuz ematen diren neurrian gure literatura ezagunagoa egingo bai zaigu.*

*J. M. Torrealdayren Euskal Idazleak, gaur deritzana dugu beste liburu eza-gungarri bat, oraingo idazleen ondoan lehengo literaturaren laburpena eskain-tzen digunez.*

*Gure literatura bere barnetik era as-kotara ikertuz, orainagoko idazleen lanetan oinarriturik, bada lan ederrik. Egileen arteko ditugu: J. Apalategi, P. Iztueta, K. Otegi, I. Sarasola, J. Azur-mendi, M. Zarate, A. Lertxundi, X. Le-*

*te, A. Zelaieta, J. A. Mujika eta beste. Baina hauen aipamena neregatik irtezea litzake. Beraz, uz dezadan.*

*Hala ere, esan dezadan: Bide hontatik aurpegi berri bat erakutsiko digu gure literaturak; orain arte askok uste baino aberatsagoa, noski.*

*Baina, bereziki, Lehengo literatura era orokorrez begiratzeko doa nere hau. Bereziki, Europako kultur mugimenduen eragina ezagutzeko iritziak eta agiriak eskainiz; bidea idekirik uzten duela.*

*Egileak*

*Eibar, 1979ko abenduaren 12an.*

I

**EUSKAL  
LITERATURAREN  
EKINTZAZ**

LITERATURA LANDUAREN  
SORRERAKO GIROA,  
AXULARREN GARAIRA ARTE

1970ean, Ibon Sarasolak eman zigun Euskal Literaturaren Historia lehen aldiz sozio-ekonomiko aldetik begiraturik, eta saiakera honen 16garren orrialdean agertzen zuen, XVI. mendearen lehen partean Lapurdin sortu zen mugimenduari buruz, “Garaiko euskal literatura osoa leku hedaturaz eta biztanlez hain tipi batetan egin zela, eta handik at literaturarik egiten ez dela ikustea, gauza harrigarri eta oraino esplikatuta ez dena da” (1). Hutsune hau kontuan harturik,



saiaera gisa, zenbait argitasun eman nahi nituzke nere hitzaldi hontan, arrazoiak finkatzeko hurbiltze asmoz.

Sorrerako giroaren gertakizunak une bera baino aintzinagotik begiratu beharra dugu ondoriak garbiago ikus ditzagun eta azkenik garai bereko politika, erlijio eta ekonomia alderdiak agertzeko.

Euskal Herria historian bi estadutan zatitzeaz hasiko gara.

Guziok dakigu Peñalen-go haserrearen ondotik (1076), Nafarroako eta Gaztelako erregeen artean elkar ikusi ezinak sortu zirela, eta ondorean ez zutela izan bakerik batak bestea suntsitu arte. Alde batetik Agramontesek, erregearen aldekoek, eta bestetik Beaumontesek, Lerin-go kondepeko eta Gaztelako erregearen adiskide, gudaketa asko sortu zituzten. Kontu izan ahaideen arteko auziak zirela, erregeek ere beren artean ahaideko zirenez gero. Eta gudu horietan itsuskeria anitz ba zela. Berete-

rretxen kantoria dugu lekuko, Beamont kondeak heriotza eman zionekoa, Halzrak eztu bihotzik hasten den kantua.

Nor gehiagoka hartan, Nafarroako erregeak zenbait foru eman zuen Euskal Herrietan, Durangoko laborariei, Gasteizi, Donostiari eta abar, behar bada bere zerbitsura aisago egon zitezen, geroago Gaztelako erregeak bere aldetik egingo zuen bezala.

Baina, nonbait, Gaztelako erregearenak hobeak izan ziren. Nafarroako Santxo Indartsua moroek preso zutelarik, Gaztelakoak Araba hartu zuen eta Gipuzkoakin ongi konpondu zen, Gaztelakoari sartzen uzteaz. Kondizio jakirik ezta ezagutzen, foruak izan ezik. Argi dago Gaztelako erregeak bizkor jokatatu zuela, kontu honetan, eta denbora gutian zenbait hiri sortu zuen bere foru bereziekin eta guzien arteko anaitasunezko erakundea antolatu, Junta Generala jarriaz eta hau bere Foruz horniturik.

Garai honetan Nafarroako erregetzaren egiturak krisi batean eroriak zeuden, eta bere politika oso txarra izan zen.

Bestalde, egia esan, Gaztelako erregetza Fernando lehenengoagandik zetorrenez eta hau Nafarroako Santxo IIIgarrarenaren semea izatez, gipuzkoarrentzat Gaztelakoa ere ez zen errege arrotza, eta argi dago, Arabako zapalketa ikusirik, beragana makurtzeko bidea hartu zuela. Baina foruekin jabeturik.

Foru hauek eskubide zabalak ematen zizkieten gipuzkoarrei, guziak aitonen seme aitortzera arte. Noblezaren aurrean berdintzen ziren gipuzkoar guziak, lehenagotik bizkaitarrek beren eskubidez zutenaren antzera. Aitonenseme izate honek, gizona libre uzte zuen bere gisara ihardutzeko, merkatalgoan, oletan, eta bizimoduko beste edozein ekintzetan libre izateko edo libre jokatzeko. Bere bete behar soila, hamarrenak (diezmos) ziren, elizaren bidez ematen zirenak edo elizbarrutiaren bidez kontrolatzen zirenak. Beraz, aukera hau aprobe-

txatzen jakin zuten. Foru idatzia, Bizkaiko zaharra, 1452koa da (2); Gipuzkoakoa 1397koa eta Arabakoa 1332koa (3). Beraz, oraindik urruti zegoen Inglese "Habeas Corpus" (1679), gizonari eskubide zabalak ematez hain famatua dena.

Otoi, foru horiek lehenago ahoz erabiltzen zituztenen arabera oinharrituak ziren.

Garai hartako politikagintza zen, gizonak eta lurak bere alde jartzeko emanak, Gaztelako erregearen partetik, eta gure probintzientzat hain txarra ez zena, feudalismoak Europako herririk gehienak menperatzen zituen garaian. Bestela nola ulertu Gaztelako erregeak hain berea zuen Gaztelako herriari ematen ez zion eskubidea Euskal Herriari ematea?

Guzi hau ezagutu beharrezkoa dugu Gaztela zaletasuna nola sartu zen jakiteko. Ondorioz, zaletasun honek zer ikusia izango zuen gure herrietako kul-

turadunak euskarazko literaturagintzari ez oratzeko, eta inoiz literaturagintzan ihardutzen badira ere gazteleraz egiteko.

Foruak ziren Gaztelako erregearengana lotzen gintuzten baldintzak. Gutia axola zaigu Gipuzkoa eta Araba erregeak indarrez hartu zituen ala probintzia hauek beren borondatez erregearengana bildu ziren. Foru instituzioa dugu historiako agiririk bereziena, tratu bat bide zela adierazten diguna. Eta, batez ere, errege Gaztelakoak Euskal Herriari opa ziola Gaztelako bere herriari opa ez zion neurriko eskubidea. Garai hartako gizonak gehien estimatzen zuten eskubidea zen aitonenseme izatea. Aitonensemeak izaten bai zuten erregearen erresumetan gizonaren libertate zabala. Esan bezala, eskubide honen ahalmenez, euskaldunak libre ziren, ekonomiaren aldetiko gauzak aurrera eramanez, lanak eta lanbideak sortzeko eta landua berentzat izateko, e.a. Ekonomiaren aurrerapenerako gauza beharrezkoa. Beste erresumeta-koak ordea, jaunen zerbitsuko menpe-

tasuna zuten, “vasallo”, “villano” eta honelako mailaz bereizturik. Eta, euskal berdintasun hau, foruetan lege zen. Bizkai-Gipuzkoetan ez zen jaunik (Bizkaian bertako jaun orokorra izan ezik; baina honen aurrean ere bizkaitarrek beren eskubidezko lege zehatzak zituzten). Inor hortara ahalegintzen bazen — beste ororen gaineratik jaun izate nahiez —, legez kanpora zen, eta gainera burlazko izenez “jauntxoak” deitzen zieten.

Hau horrela zelarik, ez zen batere harritzekoa orduko euskaldunen Gaztela-zaletasuna. Eta ondore honegatik zion herriak:

Milla urte igaro eta  
ura bere bidean,  
Gipuzkoarrok sartu dira  
Gazteluko etxean;  
Nafarrokin bildu dira  
Beotibarren pelean.

Errege katolikoek inperioa handitzea ekarri zuten, borondatez edo indarrez

erresumak menderatuz. Honegatik gipuzkoarrek gaztelarrei lagundu zieten Nafarroako erregeen kontra gerlan. 1512an galdu zuen Nafarroak gaur Espainiarena den partea.

Une berean, Pizkunde garaia da Europako mendebaldeko kulturaren. Zientzien aurrerapenekin batean, literatura, musika eta plastika arteak berri- tzea dator ideologia burrukak tarteko zirelarik. Europako parterik gehienak feudal gizartetik burges gizartera jotzen du. Beraz, era guzietako aldakuntzak zetozen. Eta hemen, nere txosten honetan, gure inguruko historian literatura eta edergintza edo plastika arteak aztertuko ditut. Garai hartako dokumenturik urri dugunez gero arte lanek markatzen bai digute ekonomiaren egoera.

Pizkunde garai honetan (Europako "Renacimiento"an) hasten dira Euro- pako hizkuntza askotan literatura lan- tzeak. Esku-izkribuzko liburuak urri eta garezti zirenez, aberats eta intelektua-

len eskuetara bakarrik heltzen ziren, eta hauek gehienik latina erabiltzen zuten. Baina garai honetan, inprenta sortzea- rekin, liburuak ugaltzeaz merkeagotu ziren eta inprimategiek herri hizkuntze- tara jo beharra zuten beren merkatari zabalkundez. Hemen hasten dira latin erromantzeak eta sajon hizkuntzak lite- ratura lantzen.

Inprimategiek ekarri zuten liburu merkatzea eta ugaritzea. Eta esan beha- rrik ez dugu liburuak gizonarentzat zer aurrerapen ekarri duen. Gaur egun, gi- zonaren jakintza guzia liburueri loturik aurkitzen bai dugu.

Gutenberg, Fust eta Schoffer hasi zi- ren, XV. mendearen erdialdera, Mainz (Alemania) hirian lehen aldiz letra mol- dez baliatuaz inprimatzen. Gutenberg-en lantegian argitaratu zen lehen liburua Biblia izan zen, 1456an.

Abantaila honi nola erantzun zion gure herriak? Nafarroa oraindik bere erregetzaren jabe zen garaian ezagutu zen Iruñan Brocar-en inprimategia,



1489an, latinez, Iruñeko eliz-nagusiaren esku-liburu bat argitaratu zuena. Ez dakigu Brocar zelako hau frantsesa ala alemana zen, baina berak erabili zituen letra formatik alemanian bere ikasketak egina zela dirudi. Baina inprimatzaile honek Nafarroan guti iraun zuen, 1503rako Logroño-ra pasatua zen eta handik, Cisneros kardenalaren deira, Alcalá de Henares-era joan zen Biblia Políglota inprimatzeko (4). XVI. mendean Lizarran inprimatu zen anitz liburu, Migel Egia (5) eta Anvers flamendar argitaratzaileek emana. Anvers zelako hau, Lizarratik Iruñara pasatu zen eta 1561ean Sancius Elso-ren *Doctrina* erromanzez eta euskaraz argitaratu zuen. Guk dakigunez Euskal Herrian bertan argitaratu ziren liburuetatik euskarazko lehena. Aurretikoek herbestean ikusi zuten argia. Hemen inprimategirik ez bai zen.

Euskarazko lehen liburu inprimatua ordea, Bordelen argitaratu zen, Etxepareren poesi liburua dugu. Eta, egile hau, beste hizkuntzetan inprima-

tzen zenaren jakitun zen, bere Kontra-  
pasean agertu zuenez:

Bertzeak orok izan dira  
Bere gohien gradora

Leizarraga kalbindarraren Testamen-  
tu Berria, Kalendrera eta ABC Roche-  
len argitaratu ziren, hiru liburuak 1571  
urte berean. Gauza jakina da nafar mer-  
katariek aspalditik zutela La Rochellen  
etxe bat, eta har-eman hontarako zer  
ikusirik izango zuena.

Bilbon argitaratu zen lehen liburua,  
Julio Urkixoren iritziz, Matias Mares  
inprimatzaileak eman zuena da, G. Oso-  
rio portugesak latinez idatzi zuen  
De Gloria et Nobilitate, 1578. urtean.  
Baina Bilbon euskaraz argitaratu zen  
lehen liburua Ostolazaren Doctrina izan  
zen, Cole de Ibarra-ren inprimategian  
1596an. Eta Baionan argitaratu zen  
lehenengo euskarazkoa Bovrdot inpri-  
matzaileak 1642an argitaratu zuen  
Tresora. XVII. mendearen erdialdetik  
hasten dira euskarazko liburuak ugari-

tzen, ordura artekoak, asko ez direlarik ere, herbestean argitaratuak dira gehienak.

Ikus dezakegunez, euskal literaturak ere Pizkunde garaian agertzen ditu bere lehen kimuak, literatura landua bezala, zeren herri literatura, ahozkoa, aintzinagokoa dugu. 1512an hegoaldeko Nafarroa Gaztelak menderatu zuen, eta ifarraldean oraindik gelditzen zitzaion erresuma xipi hartan ematen zuen literatura landuak bere hasera. Hau da, Nafarroa librean sortzen da literatura lan-tze hau. Ordukoa da Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545ean Bordelen argitaratua.

Baina, Etxepareren obra soilik gelditzen zaigu haren garaian. Beste hizkuntza ororen mailan euskara jartzeko go-goak bultzatu zuen egile hau, baina inguruko giroa faltatu zitzaion. Honegatik, egiazko literaturagintza erlijiozko borroketatik sortuko zitzaigun, borroka horiek lehen batean politikazkoak bazi-ren ere, XVIgarrenaren bigarren partean

Calvin-en dotrinak ereitzean eta dotrina hauen kontrako ekintzatik.

Pizkundearen barnean, garai hartarako, bazen bestelako berririk ere Europako kulturaren ideologia mugimenduan. Luterok Testamentu Berria alemanera itzulia argitaratzen du 1522an, eta Biblia osoa 1534an, aleman hizkuntzari batasun bidea eta literatura lantzeko gaitasuna emango ziona. Erlijioa auzitan jarri zuen. Eta 1545etik 1563ra bitartean izan zen Trento-ko Kontsilioa. Etxepareren liburua argitaratu zen urte berean hasia. Gainera, gaietatik agertzen denez, apenas harraipatu zuen Elizak 1543an sortu zuen zentzurak ere.

Kontsilioak eraberritzea ekarri zuen, batez ere dogma kontuan. Norma berriak eman ziren dotrina berriekin, herria kontuan harturik, eta bai literaturan eta bai artean bere ekintza berezira-ko probetxuzko izatera zeramaten. Esate baterako, Joanes Antxietaren aurretiko artistak, J. de Ayala, A. Araoz eta

abar, mitologia gaietaz, gai paganoz, anitz baliatzen ziren, baina Andres Araoz azkenaldera Testamentu Berriko gaiez aritu zen (Genevilla-ko erretaula egin zuenetik Eibarkoa egitera bitartean aldatu zen, 1567an), eta J. Antxieta-koak, XVI. mendearen bigarren parte hortan, Kontsilio ondorengo baldintza berrietan egin zituen bere lanetako gai guziak. Honegatik, Kontsilio ondorean ere Ebanjelio Apokrifoetan oinarritu-tako irudiak iraunarazten dira herri imajinagintzan hamaseigarren mendea-ren erdialdera arte (6).

Pierre Robert, Olivetan izengoitidu-nak, Calvin-en ahaide eta adiskideak gertatu zuen Biblia-n oinarriturik itzuli omen zuen Leizarragak bere Testamen-tu Berria, 1571.ean argitaratua (7). Bai-na Calvinistek, Ginebra-koa 1588an argitaratu zuten. Calvin-ek, Luteroren aurrez-aurre, Eliza eta Estadia banatzea eskatzen du, geroago bere jarraitzaileek bakezko obeditzea ontzat hartu bazu-ten ere. Calvin-en mugimendua pode-rearen aurkako minorien artean zabaldu

zen, hala Eskozian eta Frantzian, adibidez.

Gure iduriz, holako zerbait gertatzen zen Euskal Herrian ere. Gaztelako Fernando Katolikoaren aurkako joera bat, eta errege honen eta Lerin-go kondearen aurka gerla egin zutenek bildu ziren Calvindarren inguru. 1559an Juana Albret-ekoa, Nafarroako erregina, Calvinder biurtu zen, eta Biarnotik anitz bidali zituen Geneve-ra (Ginebra-ra) erreformako katisiman eskolatzera. Gainera, Orthez-en Unibertsitate antzerako bat sortu zuen. Zuberotarrek bereganatu zituzten erlijione berriak, batez ere zuberotar jauntxoek, Lerin-go kondearen aurka gerla egin zutenek. Piarres Lafitte jaunak dioenez: “ipar Euskalherriko jauregietan, apeztegietan eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handi-mandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xehek aiseago jarraikiren zaiotelakoan. Horrela biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna, Xuberoko Sponde, Belapeyre, Zalgiz, Bela fami-

liak, baieta zombait apez, gehienak Xubero-aldekoak. Jaun horien guzien buru, Agarramont ahaltsua eta amorratua, Jeanne d'Albret erreginaren laguntzale kartsua". (8).

Gure lurraldeetan Eskozian gertatua nonbait, alderantziz badator ere, jauntxoek erreformaren alde eta herria tradiziozko katolikotasunaren alde, historiak berak gauzak honetara ekarri zituelako da. Argi dago, igaroak igaro ondorean, Estadutik aparteko erlijionearen alde jokatu zutela lehen Nafarroako erregetzaren alde gerla egin zutenek. Albret-eko erreginaren jokaera, neurri handi batetan politikoa zen, garai hartan ohi zen bezala. Erlijioea, Estaduarekin elkartzeaz, errege poderetsuen alde aisago joaten bai zen Eliza, errege xipiagoaren edo herrien kaltetan. Beren erresuma eskubideen alde jokatu nahi zuten nafar haiek onartu zuten Calvin-en iritzia. Gero herria berenganatzeko, noski. Lortuko zuten agian herria, herri xehe hori, hain katolikoa izan ez balitz; baina katolikotasuna hain errotua ze-

goen herrian joko irristakorregia zen, eta hala gertatu zen; feudal kutsu guztiak beheraka ari zirenez, herria gaineratu zen jauntxo horien kontra.

Lafitte jaunak berak eman zigun Paueko Sinodo kalbindarrak 1563an Leizarragari Lapurdira egin deia, Hitzez hitz: “Lapurdin bizi den Leizarraga jaunari mezutuko zaio hunat etor dadin, Testamentu berriaren, otoitzen eta Katiximaren eskuararat itzultzeko; eta, nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman, bere eskualdean edo Baxenabarren minixtro izaitera prestatzeko. Eliza-kontseilukoen gain izanen da haren mantenatzea, Erreginak nahi duen berhura hunat etortzea”.

Erreginaren nahizko jokabide hauek ikusirik ezta gauza gaitza asmoa igartztea. Lerin-go kondeak sortu zuen anaiarteko gerlara, Gaztelako Fernando errege katolikoak Duque de Alba igorri zuen bere ejerzitoarekin eta Nafarroa benderatu, Aita Santuak bulazko onezpena eman ziolarik; berak eskubidetzat hala agertu zuenez.



Nafarroako gerlatik hamabi urte geroago, Luterok jartzen du erlijioa auzitan eta Elizak Trentoko Kontsilioa antolatzen. Loiolako Eneko, Gaztelaren alde eta Nafarroaren aurka kapitan bezala parte hartu zuen berbera, Ignacius izenez apeztua, Jesusen Konpainiaren sortzaile, eta Konpainia hau kartsuki altxatu zen Erreformaren etsai borrokatu bezala. Nabarmen azaltzen zaigu Kontsilio hortan erlijio auziez gainera politikakoak ere bazirela.

Kontsilio hartako joerak ikusirik, Calvin-ek beste bide bat hautatu zuen, batez ere Eliza eta Estadia bereiztearena. Eta, egoera hau aprobetxatuz, Europako zenbait erregek bere bideak aukeratu zituen, eta zenbait elizgizonek garaiko egoeraren arabera errege batzuen zerbitsuko erlijio bidea. Bazen han bietarik. Honegatik ezta batere harritzekoa Nafarroako gerlan Juan de Albret erregearen aldeko jokatu zutenek erlijione berria besarkatzea, berrogeitahamar urteren buruan.

Dena dela, argi ta garbi ikusten da politika borrokak erlijiozkoekin nahasturik zebiltzatela garai hartan.

Bitartean, gaur Espainiako alderdia den Euskal Herria geroago eta Gaztela zaleago zihoala. Nafarroan, bertako erromantzea baztertuz gaztelerazkoa gainditu zen; baina batez ere Gipuzkoako intelektualak azaltzen zaizkigu erdal literatura lantzen, herriak, herri xeheak, euskara hutsa besterik ez zekien garaian. Foru babesaren esker ona agian.

Baina beste eskertzekorik ere bazuten. Bizkaiak eta Gipuzkoak aurrerapen eta aberastasun handiak ezagutu zituzten XVI. mendearen hasieratik. Ordura arte laborantza nagusi zen herrietan, beren lurreri esker, aberastasun handiagoak ezagutzen ziren, eta Pizkunde garaian oletara eta merkatalgora ere zabaldu zen. Arte lanak ditugu lekuko, Nafarroa, Zuberoa eta Arabak erromanikoan eta gotikoaren lehen partean aberastasun handiak dituzte, monumentuen

ederrez eta ugaritasunez hain nabarmen agertzen zaizkigunez. Gotikoaren azkenaldetik Bizkai-Gipuzkoetan goraka ikusten da edergintza eta XVI.ean, Pizkundearekin, aberastasun handiak lortzen dira. 1492an Amerika aurkitzetik eta 1503an Sevilla-n Casa de Contratación sortzetik, gure ola-zaharretara lan asko etorri zen. Ameriketara ez bai zuten burdinarik ezagutzen eta burdinazko arma eta lanabesak anitz presiatzen ziren hangoen eta hara joaten zirenen artean. Orduan, lanaren aberastasunez, eliza berri anitz jaso zen eta erretaula bikainik egin ere bai.

Ekonomiaren goraka honek, plastika artea ugaritzen du (Borgoina eta Flandes aldetik maisu artistarik anitz ekarri zen), baina literatura ezta lantzen neurri berean, eta egiten den gutia gaztelera. Intelektualik gehienak merkatalgora, kolonizatzailetara, misiolari, itsas-gizon, militar eta beste ekintza askotara jotzen dute. Zerrenda ederrik agertzen digu J. I. Telletxeak bere *Papeles viejos* liburuan eta jakintza gizonen

aitormen hau egiten digu J. Caro Barojak Garibayren lanak aztertzean (9). Eta inoiz literaturagintzara sartzen direlarik, esan dugun bezala, gazteleraz idatziz egiten dute. Hala egin zuten Martinez de Zaldibia batxillerrak, Garibai berak, Etxabe, Poza, Ibarгүйen-Cachopin, Isasti eta gainerakoek, guziak gazteleraz. Ez dute izkribatzen herriaren mintzairan eta herriak ezin jarraitu konprenitu ezin zuen hizkuntzan izkribatua.

Idazle horiek, guztiz euskalduna zen herrian ez zuten zer eginik, beren ondarsuna antzu bihurtu zen. Eta izkribatze lanetara behartu ziren haien ondokoak, letra dotoredunak baina irudimenik ga-beak, literatura sorketan aritu ahal izateko beren hizkuntzaren arimarik ez zeramatelako. Hala ziren Joan de Itziar eta Pedro de Madariaga kaligrafoak adibidez, literaturatik baiño artegintzatik hurbilago arkitzen ziren letraginak.

Gaztelako erregearengana benderatu ziren erresumetan, literatura gogoia iratzartu zen (intelektual batzuen baitan),

baina ez beren herriaren hizkuntzaz, arestian aipatu dudan bezala. Huarte de San Juan garaztarra bera ere, Alcalá de Henares-en estudiatu zuenez gero, bere herriagandik zatiturik gelditu zen.

Aipatutako batzuk eskaini ziguten irudimenezko (irudimen hutsezko) lan soila euskararen bitxikeriak goraipatuz apologetika hutsa, hala M. Zaldibia, Garibai, Etxabe, e.a., guziak gaztelako hizkuntzaz zaleturik ari ziren, eta euskararen apologia bera ere herbestera begira egin eta ez bertako herriari begira. Honegatik garai berean salatu zituen Klaberia apezak, 1636an, Ziburuko Etxeberri goraipatzez egin bertso haie-tan:

Burlatzen naiz Garibaiez  
Bai halaber Etxabez,  
Zenak mintzatu baitira  
Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik  
Eskaldunak hek biak,  
Eskaraz behar zituzten  
Egin bere historiak.

Eskaraz egin ditutzu  
Etxeberri, zure obrak,  
Ohoratu nahiz zeure  
Ahalaz herritarrak.

Zer errefrau eder baita  
Hizkuntza arrotzetan  
Hura aditzera ematen  
Daroezu beretan.

Esker bada eta aithor  
Duzula berezia  
Zeren xoratu duzun  
Herritarren mihia.

Hala ere, aitortu beharra dugu, Joanes Etxeberri eta honen adiskide Klabe-ria baino lehen agertu zela Etxepare euskaltzale, honen “Kontrapas” eta “Sautrela” izeneko poemak lekuko. Bigarren poema hontako bi bertsutan hara zer zioen Etxeparek:

Heuskaldunak mundu orotan  
preziatu ziraden  
Bana haien lengoagiaz  
berze oro burlatzen

Zeren ezein skripturan  
erideiten ezpaitzen  
Orai dute ikasiren  
nola gauza hona zen.

Heuskaldun den gizon orok  
altxa beza buruya  
Ezi huyen lengoagia  
izanen da floria.  
Prince eta iaun handiek  
orok haren galdia  
Skribatuz hal balute  
ikasteko desira.

Garai hartan, idazle batzuk euskaltzaletasuna agertzen dute, eta beste batzuk herriarengana hurbiltzeko praktikotasuna, Leizarragak ABC liburuan dioenez, "Berze nazione guziek, zeinek bere lengoajean besan" berak ere idazten duela adiaraziaz.

Ifar Euskal Herrian ideologia borrokek bizkortu zuten euskarazko literatura. Politika eta erlijioa nahastu ziren eta elkarren arteko norgehiagoka sortu zen lehenbizi; kalbindarrak beren dotrina

berriak hedatu nahirik eta katolikoak kontra-kanpaina bat ondorean. Dena izan zen euskal literaturaren bizkortzerako eta pizteko. Horrela, XVI. mendearen azkenaldea eta XVII.aren lehenak sustraitu zuen gure literaturaren hastapena.

Azken batez ikusten duguna, literatura landuaren sorrerako mugimendua, ideologian oinharritua zela, ekonomia alderditik baino gehiago. Erdi-arroan, arte lanak adiarazten digunez, Nafarroa, Araba, Zuberoa ziren aberatsak, nekazaritza bizibide nagusia zen garaian, erromaniko eta gotikoaren lehen parte-ko monumentuak lekuko. XIVgarren mendearen erdialdetik ordea, Bizkaia eta Gipuzkoako artegintzak aberastuaz nabari dira. Lapurdikorik berri guti dugu, zeren aitortu behar bai dugu Baiona bere katedral handiarekin ere ez zela hain euskaldun eta hain Euskal Herriko, arrotz merkatariek ziren nagusi eta gaskoinak zeramaten burugoa. XVI. mendean, Pizkunde garaian, Bizkai-Gipuzkoetan Nafarroa eta Araban hainbateko aberastasuna nabari da. Monumentoak



ez ezik arte eskola eta lantegiak ere anitz ziren, batez ere XVIgarrenaren azkenaldera Euskal Herriko arte lantegiek herbesterako lanak ere egiten zituzten, batez ere Gaztelania eta Aragoi-rako. Eskola berezi bat ere sortu zen Joanes Antxieta azpeitiarraren inguru, anitz jarraitzailekin. Laboraritzarekin batean merkatalgoa gailentzen zen, eta ola-zaharren abantaila nabarmen agertzen zaigu Amerikak aurkitu zirenetik (10).

Hamaseigarren mende hartan Lapurdi pobreenetakoa izanik ere, bertan loratu zen literaturaren mugimendua. Bizilagunez ere xipienetakoa zen agian, baina literaturagintzan Europa erdialdea bezala piztu zen. XVI eta XVII.ean Euskal Herri guziaren gainetik jarri zela Ibar-ek eman zigun *Genio y Lengua* liburuan estadistika zehatza (11). XVIIgarrenean ordea, bere aberastasunak agertzen ditu Ifar Euskal Herriak, batez ere Lapurdin (12), eta garai hartakoak ditugu eliza berritze asko eta batez ere elizetan egin ziren zurezko koru

barrokoak elizaren gibelaldean buelta guzian apalak bezala behetik goraino hain ederki atonduak eta Lapurdiko artegintza hain bereizgarri egiten dutenek.

Beraz, XVIgarreneko ekintzatik etorri zen geroko zuzpertzera, eta XVIIgarrenaren erdirako Axularrek bere Gero liburuarekin loretu ez ezik goren mailara jasoko zuena. Bere obra, garai-ko Europako aszetika gorenengoen artekoa da. Adibiderik ederrena dugu Juan Flors argitaratzaileak "Espirituales Españoles" sailean onhartzea (13).

Baina, Leizarragaren literatura lantze esperientzia baztertua izan zen, protestantismoa bera bezala. Trentoko kontsilioaren ondorioz lurralde katolikoe-tako literaturan aszetikak eta miztikak hartu zuten garrantzia, herriari begira eta idazkera herrikoiez, Axular eta haren ingurukoek burutu zuten bezala (14). Gaur egun, euskara, goragoko kultura baterako premia larrian ikusten dugu, Leizarragak zeraman bideetako agian. Dena dela, moldez eta gogoz,

Trentoko kontsilioak zeharo markatu zuen Euskal Herriaren bizitzan, eta kalbindarren ideiekin batean Etxepareren erako poemagintzak ere baztertze-ko (15). Katiximaz ugaritu zen Euskal Herria, Sales-ko Frantziskoren lanen itzulpenak eta barroko egitura sartu zen. Mugimendu honetan, Axularrek bere inguruko zituen Materre, Haranburu, Etxeberri Ziburukoa, Harizmendi, Argainarast eta abar, Sarako eskolatzat ezagutzen duguna.

Denen buru zena, Pedro Dagerre Azpilkueta, "Axular" handia, herri honetan sortu zen 1556an, Gero liburu eder aspergaitza 1643an argitaraturik utzi ziguna eta handik urte batetara hil zena. Hark bere liburuan esan zigunez: "Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hizkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen Euskara ere; eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez Euskarak".

Hala ere, Etxeparek bere liburuaren bukaeran zioen “*Debile principium melior fortuna sequatur*”, gure ustez, aski kunpliturik utzi zuen Axularrek bere Gero-rekin.

Agur eta ohore idealen borroka euskararekin erabiliaz gure literatura landuaren sorrera lortu zuten guziei!

Urdazubin, 1974ko irailaren 14an

Euskaltzain sarrerako hitzaldia.  
Euskera, XX (1975),  
195-208 orr. Zenbaki berean  
ikus Jean Haritschelhar jaunaren  
ihardespena,  
209-219 orrialdeetan.

## OHARRAK:

- (1) Ibon Sarasola, Euskal Literaturaren Historia (Donostia, 1970), 16/17 orrialdeak.
- (2) Gaztelako errege Enrique IV.ak 1457an onhartuak.
- (3) Berrituak izan ziren: Bizkaikoa 1526an, Gipuzkoakoa 1696an, eta Arabakoa 1463an. Eta hauetan noblezak zer errepresentatzen zuen jakin nahi duenak ikus beza C. de Echegaray-ren Investigaciones referentes a Guipúzcoa (Donostia, 1893) liburuaren lehen bost orrialdeak, edo bertan ematen dituen goragoko iturriak, bereziki Marichalar eta Manrique-ren Historia de la Legislación del Derecho civil de España (Madrid, 1868) bigarren argitalpena, zuzenketaz eta gehigarritz.
- (4) 1514-1517 urteetan inprimatua.
- (5) Migel Egia hau Brocar inprimatzaileraren suhina zen, J. Goñi Gaztambedek aztertu duenez, gipuzkoarra zen, Legorretako semea.
- (6) Ikus, J. A. Lizarralde-ren Andra Mari (Bilbao, 1926), batez ere "Guipúzcoa" tomoaren 143/178 orrialdeak.
- (7) René Lafon-en hitzaldia Leizarragaren omenez, EUSKERA aldizkarian, XVII, 1972, 151 orr.
- (8) P. Lafitte-ren hitzaldia Leizarragaren omenez, aipatutako EUSKERA-n, 144 orr.  
Gainera, erlijio borroka haien hasera ikusteko, Julio II.aren Bula, errege nafarrak exkomulgatuz eta beren erresuma lehenen menderatzen zuenarentzat izango zela agertuz eta ondorean, 1512an Gaztelako Fernando V.ak benderatu, eta hortatik mindurik onhartu zuela Nafarroako Joanak Calvin-en erlijioa, anitz idazlek aitortu duten gauza da; begiratu, adibidez: Villasante-ren Historia de la Literatura Vasca (Bilbao 1961) liburuaren 50. orr.; era berean agertzen digu S. Onaindiak Euskal Literatura (Bilbao, 1972) lehen tomoko 76. orr.; baita ere Euskal protestantismoa zer zen (Donostia, 1970). J. Leizarraga Beraskoizkoak 1571 urtean argitaratutako eskribuen gainean G. Arestik tajututako liburuan X. Kintanaren hitzaurrea 3/4 orr.; era berean, ikus, R. Bozas-Urrutia, "Un Materre de 1704", Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País, XXIV, 1968, 193 orr. eta J. A. Irigarayren Euskera eta Nafarroa (Iruña, 1973), 47 eta 54 orrialdeak.
- (9) J. Ignacio Tellechea Idigoras, Papeles viejos (Donostia, 1968). Eta J. Caro Baroja, Los vascos y la historia a través de Garibay (Donostia, 1972), 62. orr.
- (10) Ikus Lur eta gizon, Euskal Herria (Oñati, 1974) liburuaren "Euskal artea" izeneko kapituluaren 155/162 orr.
- (11) Genio y Lengua por Ibar (Tolosa, 1936), 99/103 orr.
- (12) Alde batetik garaioko errege absolutuen indarrez, bereganatu zituen koloniegatik, Colbert-ek (1619-1683) ekonomiaren zuzendaritza Estadutik jartzea, merkatalgoa indartzeaz eta abar, XVII. mendea oso aberatsa izan zuen Frantzia guziak eta hau igartzen da Ifar Euskal Herrian ere.
- (13) Pedro de Axular, Gero (Después). "Espirituales Españoles", Juan Flors, Editor (Barcelona, 1964). Aita Luis Villasantek prestatua, bere hitzaurrez eta gaztelerazko itzulpenez.
- (14) Ikus, L. Villasante, Historia de la Literatura Vasca, 59 orr.; L. Villasante, Axular, mendea, gizona, liburua (Oñati, 1972), 90/96 orr.; eta I. Sarasola, Euskal Literaturaren Historia, 14/15 orr.
- (15) L. Michelena, Historia de la Literatura Vasca (Madrid, 1960), 59 orr.; eta I. Sarasola, Euskal Literaturaren Historia, 15 orr.

## LEHEN LIBURU INPRIMATUA

BERNAT DECHEPARE.

Olerkiak (1545)

Agertu da aspaldi zain geuden liburu hau. Igazko urtetik entzunak bai genituen bere hotsak, eta ikusiko duzutenez asmoetako Txertoa argitaldariaren ize-nik gabe dator, edo obeto esan, bere orde-z Edili-renakin (1). Dena dela, betor ordu onean.

Detxepare-ren *Linguae Vasconum primitiae*, lehendabiziko euskerazko liburuaren bederatzigarren artitalpena da. Esateko gutxi dugu, esan diranez

gainera, liburu eta egileari buruzkorik (liburuari bere poesiaren aldetik), argitalpenaz bai ordea. EGAN-en, 1967-ko 1-6 zenbakiaren 134/136 orrialdeetan emanak nituen zortzigarren argitalpenaren berri eta bereizkuntzak. Zortzigarren hori gaztelerazko lehen itzulpenarekin argitaratu zen, baina orain, bederatzigarren hau, gaztelerazkoaz gainera frantsezerako itzulpenarekin. Bata Lino Akesolok gertatua eta bestea René Lafón-ek. Eta badu gainerako bereizitasunik ere: lehendabiziko argitaratzen dela gaur egungo ortografiaz emana. Beraz, orain lasaiago irakurri diteke euskerazko poesiaren muina. Lan hau ere Akesolori zor diogu. Baina hori ezta guztia, zeren horrez gainera Mitxelenaren hitzaurre bat du sarrera gisa, eta bere erderazko itzulpenak Patxi Altuna eta Miren Intxaustik eginak, espainolera eta frantsezera. Liburuak, azala ere oso apaina du Jose Luis Zumetak zortzi kolorez edertua. Bada berezigarririk aski.

199 orrialde ditu. Donostiako Industrias Gráficas Valverde, S.A.-ak inprimatua da.

Mitxelena, beti bezin jakitun nabari da hitzaurre horretan. Gure maixu ona beti exenplu bikainak emanek. Lehengo zaharrok ahazturik izan ditugula dio, beretan gure ispilua arkitu beharrean: "...ez dezagun lehengo arrietan beretan, bein eta berriro, oztopo egin. Etxepare bat, Etxeberri Sara'ko bat eta orien gisako beste ainbeste eta ainbeste gure artean agertzen baldin badira, oraingo jantziz eta itxuraz noski, ezagutu eta maita ditzagun eta, besterik baiño arago, gure laguntza, ahal dugun neurriko laguntza, izan dezaten; ez gorrotoa baiño okerragoa izan oi den axolakabereria".

Lehengoetan ere badela gauza onik? Bai orixe. Askok egi hori ikusi nahi ez badute ere, euskeraren aldetik, hizkuntza bere aberastasunean, batez ere jazeretan (ez bakarrik joskera, askoren idurizko joskera estua) bada zer ikasirik.

Mitxelena, era horretara, gaurko egoera eta jokerari buruz ari da gehienbat. Etxepare eta bere lana bide, egungoa bi-



harkoari begira jarri nahirik edo. Izan ere, euskaltzalerik gehienok arduratzen gaituan gauza da hau. Hala ere, inguruan izango ditugu hizkuntzak gizartearentzat berdina dela era batekoa izan besterakoa izan. Baina guri amor eman nahirik dabilzatenak beren aldetik amor eman ahal ote dute beste hizkuntza baten aurreran? Zeren, horrela mintzo direnak, gehienak, euskerarik ez dakitenak dira, edo antzar horien ahotik ari diren txoriburuak. Baina ez daude gertu beren usteetarik burua makurtzeko. Eta hizkuntzak ezer balio ez duelarik, bestek utzi eta berek ez ahantzi. Baina, guk: “Aurren aurrenik, abiatu egin bear dugula andik edo emendik, iñorako baldin bagera, lehenbizi edo lehenbizi-koaren urrengo zer datorren erabaki arte egonean egon gabe. Onena, beraz, lanean astea genduke zirt edo zart, nork bere deiari erantzunaz, geiegizko buru-austeetan ibilli gabe nola izan bear lukean ezarria balioen zerrenda zezatzat”, hitzaurreak ongi dion bezala. Bestela, azken trenak ihes egin ondorean, kitto. Ez euskerarik, ez euskaldun

herririk. Hau da, ez Euskal Herririk.

Maiz eraman gaituzte, euskaldunok, ondasun gurariaz, euskeraren ondamen-dira. “Aide Nagusiekin batean alde-egin zuen Erdi-aroko epika, lirikaz ahaztu gabe. Eta gure egunotakoa da izan, du-darik gabe, iñoiz ezagutu dugun alda-kuntzarik izugarriena. Orrexegatik joka-tu bear genduke, nik uste, iñoiz baiño bortitzago, tradizio-aria ez dedin gure artean eten; ur-aizeen joera lagun ez dugun ezkerok, ez dezagun orain sekula baiño galera galgarriagorik izan”.

Erdi-aro garaian eta errenazimendua-ren mugatik mintza zaigun poeta: “Be-rea ez da, gaiñera, poesia uts-soilla, edertasun billuziaren ispillu izan nai lu-keana, baizik eta arrea, loia, giza-gor-putz-arimen ondar zikiñak, urre izpiz nahasiak, igeri daramazkien erreka”. Hau da Etxepareren poesia. Gaur ez hain lehengoa, eta bai tarteko olerkari asko baino gaurkoagoa.

Liburuak, azkenean, bibliografia bat,

dakar. Baina bibliografia horrek hutsune handiak ditu, berak Mitxelenak hitzaurrean aipatzen dituan zenbait lanetik aparte, zortzigarren argitalpenaren sarreran datozenak. Eta, maiz gertatzen zaigun bezala, barkatu ezinezko hutsak, zeren horrelako bibliografia bat irakurtean badirudi arrotz hizkuntzetan bakarrik idatzi dala Etxeparez eta bere lanari buruz. Egia izango da, euskalariak, eta ez euskaltzaleak, argitu digutela gehienbat gure literaturaren lehena, baina euskeraz ere izan dire bere emaitzak. Zenbait euskal literaturaren historia sartu direlarik, merezi zuen Orixe-ren Euskal-Literaturaren atze edo edesti laburra ("Euskal Esnalea", 17, 1927) hor sartzea. Naizta Detxepareren poesiari, kasik, neurri teknikaren aburu hutsa egin. Bestalde, Etxaideren Amasei seme Euskalerriko (Zarautz, 1958) eta aldizkarietan argitara diran zenbait lanek hor beren tokia. Zeren, nornaik galde lezaigu, nun dira euskeraz eman diren berriak? Eta, euskeraz, hor aipatzen diran lan asko baino hobeagoak argitaraturik direla. Lehen urri bagabiltza ere,

geran baino pobreago jartzen gaituzte euskeraz gutxi edo batere irakurtzen ez dutenek. Beintzat, beti informazio laburrak datorzkigu euskeraren aldetik.

Oso pozik ikusten dugula argitaraldi hau, batez ere argitaratu dan eran, ez dago esan beharrik. Izan ere, gure argitaratzaileek arduratu behar lirake euskerazko libururik berezienak, egilerik aipagarrienak, lehengoak eta orainagoak, beti salgai edukitzen. Oraingoak eta datoztenak lehengo iturrietarik edango badute, oraina geroari begira jarriaz tradizio zaharrari lotu behar badiote, nahi eta nahiezkoa dugun gauza da. Bestela, gure literaturak nekez izango du jatorriakin lotura.

Zortzigarren argitalpenari EGAN-en egin nion aipamen hartan esaten nuen, Lafittek Gure Herria-an idatziari jarraituaz, Adrian Morront-en etxean izan zuen bigarren argitalpena (Detxepareren bigarren agerraldi honetatik ale bat bera ere ez zaigu heldu) XVI-garren mende berean zela uste zala, bainan Lafittek berak geroztik egin dituen azter-

ketetatik dakigu Morront-en inprime-  
ria hori 1604-tik 1630-era iraun zuela.  
Beraz, honela delarik, XVII-garren men-  
dearen lehen partekoa dugu guregana  
heldu ez dan bigarren argitalpen hori.  
Berri hauek ere emanak ditu Anai Be-  
rriotxoak Boletin de la R.S.V.A.P. dela-  
ko aldizkarian, aurtengo lehen zenba-  
kiaren 95-gn. orrialdean.

Egan, XXVII. 1968

## OHARRA

- (1) Garai hartako Información y Turis-  
mo ministeritza-ren aldetik eragoz-  
penak izan zituen.

## “GAVON-SARIAC” GURE ILUSTRAZIOAREN SARRERA

Nere mintzabide labur honetara ez dut ezer berririk ekarriko, garaiko giroz gure literatura Europako kultur mugimenduari erantsi baizik.

Ilustrazionismoa, literaturan, XVII, mendearen bukaeretan indartu zen, inprimerietan brontzezko plantxak zurezkoen ordeztu jartzean. Baina batez ere XVIII.ean hedatu zen, liburuak apaingarritz hornituaz. Era beran, idazkerak ere aldatu ziren, edergarri hoiengatik arabiaraz, mugimendu honetan Frantzia buru zelarik.

Ekintza horren ondotik etorri ziren ideien aldakuntzak, eta XVIII. mendeak ekarri zuen Ilustrazioa (argien mendea), arrazoizko jakintzaren filosofietan oinharritzen dena, jitez-gaineko edo grazizko maila jerarkikoez arrazoizkoen azpitik jarriaz. Hontatik zientzien aurrerapenak, erlijio era berritzeak, etika eta politika bizkortzeak, eta abar. Ordutik, gizartea natura legeetan oinarrituz, gauzak arrazoibidez konprenitu nahia sartu zen, naturaz goragoko zerbaiti begiratu gabe.

Aurtengo irailean sortu da “Elhuyar” izeneko aldizkaria, zientzia gaiak euskaraz emateko asmoz, Amigos del País Elkartearen ikertzaile ospetsua izan zenaren ohoretan. Nonbait, orain dela berrehun urte baino gehiago, gure Ilustrazio garaian, atzean utzi genituen ekintzak berriz piztu nahirik. Orduko ekintzari buruz, aldizkariaren laugarren orrialdean, hara zer esaten duen: “Mugimendu honek (Ilustrazioak) berebiziko indarra hartu zuen eta Euskal Herriraino ere heldu zen. 1746.ean Xabier Maria de Munibe, Peñafloredako Konte jaunak

Frantziatik itzultzean, bere etxean, Azkoitian, lagunarteko batzarrak antolatzeko zituen Matematika, Fisika eta garai hartako berriei buruz elkarrizketak izateko asmoz”.

Xabier Maria Munibe, Peñaflordako kondeak, Frantziatik haize berriak ekarri bazituen ere, garai hartarako hemen zen Joannes Etxeberri Sarakoa (1725tik 1749ra bitartean Azkoitiko mediku zena), Axular eta ondorengoak hain maite zituen euskaltzale borrokak. Bestalde, baita ere bazen Larramendi eta bere inguruko eraginaren itzala. Beraz, ez zuen giro txarra bere nahien hastapenentarako, literaturagintzari dagokion partetik.

Insaustiko etxe hau izan zuten akademia gisa eta hemen loratu zen euskal Ilustrazioa. Esan beharra dugu, hasiera bateko giroa oso euskaltzalea izan zela, baina gero, zoritxarrez, erdaraz landu zituztela beren gaiak, bai artegintza-koak eta batez ere zientziazkoak. Baina, gaur bereziki aipatu nahi nukeana, zera da, “Gavon-sariac” izeneko agerral-



dia, gure literaturan Ilustrazioko lehen izpia. Otsaldi haiek Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País deitu elkarte hura baino lau urte lehenagoak dira: 1762koak.

“Gavon-sariac” lanaren egileaz oraintsura arte zalantzak izan dira. Joan zen mendean Jose Manterolak Peñafioridako kondearena zala esanarren, J. I. Arana jesuita azkoitiarrak Luisa Miserikordiakoa bazala eta honen izenean argitaratu zenez gero erlijiosa honena izango zala esan zuenez, zalantza handiagoak sortu ziren, eta Manuel Larramendirenak ote ziren susmoa ere zabaldu zen (1).

Hala ere, Julio Urkixoren liburutegian aurkitzen den ale batean, Aizkibel-en esku-izkribuz hau irakurtzen da: “Aunque en el prólogo dice que son de la Luisa, sabemos por Sr. Marqués de Narros, D. Francisco X. de Aguirre, que el autor fue el Sr. Conde de Peñafiorida.” (2). Luis Mitxelenaren begi eta adimen erne eta zoliarentzat, Munibe zen “Gavon-sariac” obraren egilea, bere

Historia de la Literatura Vasca-n agertzen duenez (3). Eta, azkenik, zalantza guziak uxatuko zituen agiri argia etorri zen Telletxea Idigorasi esker, berak aurkitutako Larramendiren gutun batek egi zihurra ematen digulako (4). Geroztik, duda gabe, "Gavon-sariac" izeneko obra X. M. Munibe, Peñafloidako kondearena da. Hala jarri dute beren literatura historietan Bernardo Estornés Lasak eta Aita Santi Onaindiak (5).

Hau ezaguturik, lan horretan beste inork parterik izatekotan, liburuxkaren hitzaurrean aitortzen duenari jaramon egingo badiogu: Martin Beltz izeneko agure bertsolari bat izan zitekean laguntzaile Segidillak, Aria eta Kopra handietan.

Teatro antzera egindako obra honek, ikasi batek egindako kanta herrikoiak ditu. Estilo jolaskorra, baina batez ere erudiziozkoa, jakintzaz hornitua, eta hau du hain zuzen Ilustrazio garaiko agergarririk bereziena.

Bertan, lehen aldiz kontseptu berriak agertzen dira gure literaturan. Ez du Barutiaren bezalako herri teatroaren antzik. Behar bada jenero bereko beste era bat da. Gai eta erudizio aldetik hurbilago dago Joannes Etxeberri Ziburukoaren Noela-tik (1630), biak iturburu Biblia dutenez gero.

Auspoa Liburutegiak 1965ean egin zuen argitalpen berria dugu errezen eskuratu dezakeguna (6), eta lanak orrialdeen azpikaldean daramazkian dei-oharretatik konturatuko gara Biblia oharrez aberats datorrela.

Guk hemen, egizko egilearen alde argitasunak tinkoago jartzeaz batera, Ilustrazioaren kutsua daraman zatitxo bat bakarrik aipatuko dugu, muestratxo baten gisa — hirugarren hotsaldiko azken

partetik hartua —; Jesukristoren jaiotza ondorean, bakezko denboren adierazpenez kantatzeko eginak. Kontu izan gizarte krisis handien inguruan idatzia zela (7). Honegatik, Peñafloidako kon-

deak, giroaren eta bere asmo handien aurrez-aurre, zortziko txikiaren hitz-neurtuetan bakearen alde kantatzen du, hirugarren hotsaldiko "Artzai kanta"n. Parte hau, Mitxelenaren ustez, Virgilio-ren Eglogak-ren IV. partearen hizkera gozoan ez-ezik, etorrizko parafrasisik honena dirudi (8). Baina bertso hoietako zati batean, nere iduriz, egileak Isaiasen profeziako ideiak (9) erabili zituen bi bertso hauek osatzeko:

Ezpatak, lantzak eta  
Beste arma guziak  
Erositzen dituzte  
Errementariak;  
Ta alperrikan ez dediñ  
Galdu burni ura,  
Enpleatzera diaz  
Gure probetxura.

Atxur, burdiñara ta  
Golde biurturik,  
Nekazari langiñak  
Ongi giaturik,  
Emango digu lurrak  
Garia ta artoa,  
Gaztaña, sagardoa  
Ta ardo naikoa.

Zientzia berriak sartuko zituen Peñaflo-  
ridako kondeak, “Gavon-sariac”  
obrarekin kanta epiko bat eskaintzen  
digu Jesus Salbatzailearen ohoretan;  
baina baita ere, neurri handi batean, be-  
re gogoko gizartegintza ere, lanaren eta  
jakintzaren bidez esperantza kantatuaz.  
Bergarako Mintegia sortzeaz ez ote zi-  
tuen asmo hoiek? Bai horixe. Eta bere  
idealen poema bihurtzen zaigu hotsal-  
dien azken parte hau. Era berean, gure  
literatura mugetan zedarria hausten  
du, bide berri bat idekitzeko, eta bide  
berri honetatik XVIII. mendean Bizkai-  
Gipuzkoetako idazle berriak ditugu go-  
goan, iturburu haietatik edanaz ekintza  
bizkortu zutenak. Geroko urte latzak  
oztoporik aski jarri bazuten ere.

Obra beraren azken parte hortan aur-  
kituko ditugu bi urte geroago Bergaran  
errepresentatuko zen “El borracho  
burlado” irri-operaren lehen izpiak ere:

Abogadu eskribau  
Eta merioak,  
Mediku, barbero ta

Botikarioak,  
Ez dira bear; ta argatik  
Izango da sarri  
Hipokrates gaxoa  
Saguen janari.

.....

Ez da onezkero esango  
Gezurrik batere,  
Egia esango dute  
Dendariak ere:  
Juan da emendik tranpa  
Ta pede gaistoa,  
Ia ur bage saltzen da  
Tabernan ardoa.

Paradisu hoberik nork espero? Har-  
tuko genduke!

Gure herriaren alde asmo handiz eta ekintza sendoz ihardun ziren gizon haiek Insaustiko etxe hau izan zuten beren hasiera; teilape honetan egosi zen Ilustrazioko euskal literatura markatzen duen lehen obra ere: "Gavon-sariac". Gaur biltzen garanok arnasberritu deza-

gun haiek zuten jakin mina hizkuntza  
zaharrari bide berriak idekiz.

(Azkoitiko Insausti etxean irakurria.  
1974-XII-27)

Euskera, XX (1975)

## OHARRAK:

- (1) José Manterolak "Euskal-Erria" aldizkarian (1883 urtea), "Gavon-sariac" Pañafjordako kondearenak bezala jarri zuen. Aldizkari berean, liburuxkaren bigarren argitalpena ematean ("Euskal-Erria", 1889)  
J. I. Aranak jarri zion hitzaurrean, Luisa Miserikordiakoa jartzen zuen egiletzat. José Ignacio Arana-ren eskua ikusten dugu Henao-ren Complementary a la obra Averiguaciones Cantábricas-en argitalpen berrian ere (Tolosa, 1895), seigarren tomoaren 92. orrialdean dioenez: "la poetisa y cantora Azcoitiana de las Otsaldiac Doña Luisa, directora de la casa Misericordia en 1762". Joakin Azpiazu jesuitak ere uste berean jarraitzen zuen, ikus "Euskera zarraren apurtxoak", Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak (Bermeo, 1926) 128 orr. Hala ere, J. de Aralar-ek, El Conde de Peñafjordia y los Caballeritos de Azcoitia (Buenos Aires, 1942) liburuaren 119 orrialdean agertzen duenez, J. Manterolari jarraituaz noski, Peñafjordako kondea jartzen du egiletzat. Baina, geroago, M. Lekuonak uste du Manuel Larramendi zela egilea edo lanean parte hartu zuenetako bat, ikus "Egan", 5-6 zenb., 1956, 31/32 orr.
- (2) L. de A., "Testimonio de Aizquibel sobre el autor de "Gavon-sariac". ¿Otra obra teatral más del Conde de Peñafjordia?". Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, XVIII, 1962, 430/432 orr.
- (3) L. Michelena, Historia de la Literatura Vasca (Madrid, 1960), 105 orr.
- (4) J. I. Tellechea Idigoras, "Gabon-Kantak" de Guernica. Bol. R. S.V. Amigos del País, XXII, 1966, 162 orr.; eta Papeles viejos (San Sebastián, 1968), 193/196 orr.
- (5) B. Estornés Lasa, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Vol. I, Literatura (San Sebastián, 1969), 265 orr. Eta S. Onaindia, Euskal Literatura - I, (Bilbao, 1972), 225/226 orr.
- (6) Teatro zaarra. Auspoa Liburutegia, 48 (Tolosa, 1965), 47/77 orr.
- (7) European zazpi urteko gerrateen garaia (1756-1763), Luis XV.aren denboran, Kolonietako gerrateak ziren, ideen iraultza eta ondorioz laster piztuko bigarren Matxinada (1766), ekonomia krisiak eraginik; eta, geroago, Ifar Ameriketako independentzia (1775-1783), eta Frantziako iraultza (1789-1792).
- (8) L. Michelena, aipatutako obra, 105 orr.
- (9) Testamentu zaharra. Isaias, II, 4.



ROMANTIZISMOAREN  
LEKUKOTASUNA  
EUSKAL-LITERATURAN

IZTUETA ERROMANTIKOA (I)

Gure herri hontan, gauzak zehatz aztertutako baina lehen eritziak agertzen oso zaleak gara. Honegatik, hor nonbait eta noizbait, era berritzeetan beti berandu ibili garela esan dutelako, uste osoa jarri dugu hortan. Berandu kristautu, berandu kulturaz jabetu, berandu hartu estilo berriztatzeak, berandu zibilizatu, berandu iratzartu... dena berandu. Baina puntu bakoitza aztertzen badugu, ustea erdi ustela bihurtuko zaigu, eta Enziklo-

pediak harpidedun geienak Penintsula aldean non zituen galdetzen baldin badugu: “Hiño! hori bai”. Baina horrek berorren inguruan zekarren Argien edo Argitasunaren mende hura. Beraz, hor behintzat ez hain atzeratuak. Erromanizismoa aztertzean ordea, berriz ere zalantzaz jarriko gara. Izatez, hau ezta Argien garaia, baina oraintsu nere eskuetara erori den liburu batek emango dit argia, Iztuetaren poesiak eskaintzen dizkigunez. Lehen lehenik ere adierazianuen Iztueta folklore lanez erromantikoan artean aintzindarietan jartzekoa zela, Penintsulan behinik-pehin beste inor baino lehen hortan aritu zenez. Aritu ere, metodologia baten bidez aritu zen eta ezaugarri hori ezta lortzen beste gabe, heldutasunetik baizik.

Parte bakoitzari bere egia zor diogunez, berriz ere txalotu beharrean aurkitzen naiz Kardaberaz taldea liburugintzan ematen ari dena. Azken boladako liburuetan Jose Garmendia Arruabarrena-ren “Iztueta’ren olerkiak” deritzana da. Eta olerki hoiek ditugu giputz

jatorraren erromantikotasunaren lekuko.

Duela hamar urte argitara eman zizgun Jose Garmendia berak "Obras inéditas de Iztueta" zeritzan liburu polita Euskal-Herriko erromantizismoaren haserak ezagutzeko lagungarri dena. Txaho, Lapitze, Iparragirre eta Bilintx erromantikoen gailurrean jartzekoak baldin badira ere, ez ahaztu Etxahun zaharra, Barkoxekoa, eta Paulo Astarloa bera ere erromantikoak zirela, Europan zertorren giroak eraginik eta ez askok uste bezain berandu. "Gogoz"-en 244. orrialdean erabiltzen dut gai hau, baina oraindik gehiago sakondu beharra dugu. Dena dela, ohar hauek gogoan hartu beharko ditu gure literaturaren mugimenduak estudiatu nahi dituenak, eta ez arin arin gauzak esan, betiko topiko usteletan eroiaz.

Herri batek, edozertariko mugimendu bat bideratu eta indartzeko behar beharrezkoak ditu bere instituzio jatorrak edukitzea, zeren hauek elkarretara-

tzen bai dute gizarte ororen loturazko elkartzea eta eskolaren bidez informatze zabalkundea. Guri, behar bada, hau falta izan zaigu eta bakoitzak bere aldetik ahal izan duen erara bete izan ditu gizarte harremanok. Euskal kultur munduan, garai bakoitzean, bakoitza bere aldetik ahal bezala ibili dela esan dezakegu. Baina Jose Paulo Ulibarriren “Gutunliburua” irakurtzen baldin badugu, eta beste erromantiko bat dugu hau, laster ohartuko gara orduko euskaltzaleen artean, politika eta kultur gizonen artean, inork uste baino harreman handiagoa zutela.

Erromantikoak seinalagarri dute herri poesia baliatzea (hitz-neurtuak esango zuen Iztuetak), aberria eta natura maitatzea, eta maitagarri zituzten gauza hauek kementsu gorestea. Etxahun alde batetik eta Iztueta bestetik, bakoitzak berari zegokion aldetik baliatu zuen bertsolaritza eta ordutikakoak ditugu arlo hontako lehen albisteak. Orduan agertzen zaigu lehen aldiz bertsolaritza aintzakotzat hartzea. Gainera, Iztuetak

herri poesi horretatik hartuko zituen bere hitz-neurtuetarako arauak. Hara hemen arau eta idea beraren bidez erromantikotasunaren seinagarri den bertso bat, adibidez:

Zure hizkuntz gozo ta  
ohitura eztiak,  
gordetzen dizkitzute  
seme jakintziak:  
galtzera utzi bage  
zearo guztiak,  
hoen beharra badu  
gure probintziak.

Gipuzkoako foruen atsegin leloak deitu bertsoetatik hartua da.

J. Garmendiak lan ederra bete du Iztueta-ren hitz-neurtu guztiak liburu batean biltzeaz. Lehen, hain sakabanaturik ziren olerkiotatik ez bai zen hain erraza behar bezalako aburuk ematea.

“Gipuzkoako probintziaren kondaira edo historia”, 1847an argitaratu zen, egile zen Iztueta hil eta handik bi urte-

ra. Hau berau liburu aberkoia dugu; aberkoitasunaren eraginez egin baizituen lehenago argitaratutako dantza eta doinuen liburuak ere. Neurri handi batean probintzian mugatzen du bere abertzaletasun hori, ikuspegi zabalago baten faltaz, eta hau ezta batere harritzekoa gure egun hoietan oraindik askorentzat hola delarik. Euskararen batasunean ez ezik beste gauza askotan ere nabari zaigu. Honegatik, ez harritu Iztuetak hortan galga estuak baldin bazituen.

Iztuetagan erromantiko jarrera nabarmen agertzen zaigu, oraindik orain ere gure herrian bertan nabari den erromantikotasuna, ase nahi ta ase ezinezko sentipenen egarriz. Behin baino gehiagotan esana dudan bezala, honegatik dute Iparragirren kankak oraindik ere gaurkotasuna. Iztuetarenak holako entzuterik izan ez badute, behar bada karlisten gerrate haietan erabili zirenak itzalperatu zituztelako da, baina ez guztiz. Bere gogoaren izpiritua, bere herriaganako ideiak, neurri handi batean bizirik daude. Esate baterako, har dezagun

“Gipuzkoako dantzak” (1824) liburua-  
ren bukaeraz eta euskararen gorazarrez  
egin zituen bertso haiek, “Euskerarekin  
euskaldunen atsegin-leloak” deitua,  
J. Garmendiak 141. orrialdean jasotzen  
duena eta irakur dezagun Z. Andonegi  
mutrikuarraren “Aitorren hizkuntz za-  
harra”, gure inguru hauetan hain senti-  
penez kantatzen dena, eta laster kontu-  
ratuko gara Andonegik gure garai hone-  
tan prestatuak Iztuetaren bertso haie-  
tan dituela bere sustraiak. Elkarren pa-  
rean aztertzen baditugu, ideia ez ezik,  
esaldi osoak, neurria bera eta poesiaren  
lotura orokorra Iztuetarenak dira. Hor  
ikus dezakegu, urteak igaro eta ura bere  
bidetik. Z. Andonegik, hitzak gaurko-  
tzetik aparte aldakuntza guti egin zi-  
tuen. Baina, honegatik ez uste Andone-  
girena plajiotzat har dezakegunik. Lehe-  
na gaurkotze hori maiz erabili da edo-  
nongo literaturan.

Erromantikoak dira, bestalde, Iztue-  
taren amodiozko hitz-neurtuak ere, eta  
hauetan eredugarri: Kontzeziri eta  
Amodioa zer dan. Amodioaren sublima-

tzea, goitiar jartzea, erromantikotasunaren seinaleak dira.

Jose Garmendiaren liburu honen ederra hor dago, lehen historiaz eta folkloreak hobeto ezagutzen genuen Iztueta, orain poesiagintzan izan zuen dohaina ezagutaraztean.

Argitara berri den liburu honek Manuel Lekuonaren hitz-aurrea daroa. Hitzaurre baliagarria, arretaz irakurtzea merezi duena, zeren hemen ere Iztueta-  
ren erromantikotasunaren adibideak agertzen bai dira. Poesiaren guna, bere eragatik, euskal kantategi zaharrea eta bertsoaritzan ohi zen usuario jatorretan oinarritzen baita. Hala erakusten digu Lekuonak.

Holako liburu batek laudoriorik onenak merezi ditu.

Gaurko artikulua hontan, liburu honetan oinarriturik, poesia erromantikoa-  
ren lekukotasunak soil soilik agertu nahi izan ditut. Honetarako, liburu hau,



agiri bikaina denez. Urrengoan Hitzlaxo edo prosazko lekukotasunak agertuko ditugu, literaturan ez ezik dantzen bidezko ekintzan eta bilketan agertu zuenagatik. Eta hortik ikusiko dugu erromantikoen mugimendu hura ez zela hain berandu heldu gure Euskal Herrira.

## IZTUETA ERROMANTIKOA (II)

Iragan asteko artikuluan Juan Inazio Iztueta zaldibiarraren erromantikotasuna adierazi nuen, Jose Garmendiak argitaratu duen “Iztueta’ren olerkiak” liburuan oinarriturik. Argi dago erromantiko garai giroak piztu zuela Iztuetagan idealismo suharra. Europako kultur korrontak hemen bertako ekintzeri loturik ikertzean kontuan hartu beharrezkoa duguna da hau.

Jose Garmendiaren bildumak honako aukera hau begien aurrean jarri badigu ere, herri xeharen kulturazko lanak hor zituen gure Iztuetak bere dantza, soinu

zahar eta hitz-neurtu direlako bildume-  
tan.

Erromantikotasunaren erakusgarri di-  
tugu Iztuetak folklore arloan egin zi-  
tuen bilketak. Honen berri eman nuen  
duela hamar urte, Iztuetaren sortur-  
tearen berrehungarrena betetzeaz.  
J. Garmendiak bere liburu horren biblio-  
grafian aipatzen dituen lanak (ikus,  
182-183 orr.), eta ordukoari ildoaz ja-  
rraituko natzaio.

Erromantizismoak berakin zekarren  
herriaren kultura baliatzea eta sistema-  
tikoki biltzea, eta Iztueta beste inor  
baino lehen ohartu zen hortaz eta bere  
lanari ekin zion. Garibai eta Oihenartek  
lehenago bildu zituen zenbait herri kan-  
ta, Larramendiren "Corografía" eta  
Mogelen "Peru Abarka"-k ohitura eta  
bizibideak, baina hoietan oraindik ez  
zen nabari erromantikoen kultur berri-  
tze mugimendua, bai ordea biltzaile eta  
sortzaile agertuko zen zaldibiar kemen-  
tsuagan.

Thomas Percy-k piztu zuen Britainia Handian herri kantak ez ezik ipui, ohi-tura, dantza eta abar jasotzeko gogoia, "Reliques of Ancient English Poetry" (1765) bilduma argitaratzeaz, eta laster zabaldu zen Europa erdialdera. William John Thoms-ek "Folklore" hitza sortu orduko (1846an izan zen), Iztuetak eginak zituen bere lanak. Izan ere, 1767an Zaldibian jaio zen euskal idazle hau 1845 urtean hil bai zen.

Zalantzarik gabe, Iztuetak, erroman-tiko mugimendu harek bultzaturik egin zuen bere lana, bestela ulerkaitza iduri-tzen zaigu historiako une berean ekin-tza hortara jotea. Lanerako erabili zuen metodologia eta bere izatezko poeta mindua ditugu lekuko.

Gainera, erromantikoa izateaz beste, folklore bilketan beste inor baino lehen aritu zen Penintsula partean. Bere lana euskaraz eman zuenez, historiagintzan jardun diren erdaldunak oraindik ez dira ohartu, eta oraindik orain ere R. Serra i Pagés eta J. T. Fenandes Braga, ba-ta katalana eta bestea portugesa, jartzen

dituzte lehen folklore biltzailatzat.

Iztuetaren bildumazko lehen liburua “Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira” izan zen, 1824an Donostian bertan argitaratua. Handik bi urtera eman zuen argitara “Gipuzkoako soiñu zahar eta hitz-neurtu”-ena. Agintari eta elizaren aldetik kritika gogorrak jaso zituen, baina horraitiok, A. Pascual Iturriaga apez ernaniarra izan zuen bere alde.

Baina berak hasi zuen lan harek jarraitzaileak izan zituen, bertako seme eta herbestetik etorriekin. Xaho, Borrow, Fr. Michel eta Sallaberry. Eta erromantiko mugimenduaren gailurrean Jose Manterola bere “Cancionero Vasco” (1877-1878) sortarekin.

Musika eta dantzak hainako aberatsa edo aberatsagoa dugu ahozko literatura, kanta zaharrak bereziki. Biltzailerik ere izan dugu ondoko urteetan eta estudio sakonik ere egina da.

Folklore bilketaz eta poesiaz aparte Gipuzkoako historia bat ere idatzi zuen, 1847. urtean Donostian argitaratua. Hastapenetan zenbait kondaira faltsu agertzen ditu, erromantiko giroak berakin zituenak noski. Baina ez zen joan Xaho bezain urruti. Honek sortu bai zuen Aitorren kondaira, Aitor euskaldunon sorrerako aitatzat jarriaz. Iztue-taren historiaren bigarren parte guzia eta hirugarrenaren zati bat, 25. orrialde-tik 255.era bitartean, probintziako bizi-tza eta ohiturak jasotzen ditu, etnografiarako berri baliagarriak, eta hau berau ere garaiko erromantikotasunaren leku-ko dugu: artzantza, nekazaritza, ola za-har, kofradi erakundeak, estadistikak eta abar, lehen aldiz bertsolarien be-riak ematera arte.

Liburuak idaztearekin bakarrik ez zen konformatu eta ber berak antolatu-tako dantza taldea ere bazuen. Herio-tzako orduan ere bere mutilak (dantza-riak) ondo portatu ote ziren kezkatu-rik omen zen.

Sorterriaren alderako idealak tinko eramán zituen, Iztuetak, hilarteraino.

Erromantikoen mugimendua ez zen berandu heldu, baina bai ordea berandura arte iraun. Gure herriak garaiz ase-tu ez zituen gogoaren eragina ote? ala dirudi...

Iztuetaren idazkera ezta eredutzat hartzekoa, idazkera bizkorra izanagatik ere. Jose Garmendiaren bildumari esker, poesian lehen baino maila altua-goan jartzea merezi du, erromantikoen atarian ipiñiaz. Bestalde, hitz-lauz idatzi zuenak gauzak adierazteko erabilkeraren balioa du. Hizkuntza praktikobaten bilaketazkoa da.

Iztueta autodidakta zen, ez ordea ikasi gabea; bai bere kabuz ikasia. Izan ere, berak erabili zituen gaiak ez bai ziren inon irakasten, eta hezkuntza nagusietan ari zirenek ez zuten herri xehearen kulturarik haintzat hartzen. Larramendi bezalakoren batek berekikoetan zerbait egitetik aparte, herri jakintza ez

zen gai orduko ikastetxeetan.

Ohitura zaharrez arduratu zen Estébanez Calderón-ekin eta Tolosako (Toulouse) Unibertsitatean irakasle zen Lécluse-kin izan zituen harremanak ditugu Iztuetak eskuartean zeramazkien lan eta kezken adierazgarriak. Berekiko hezikera, formazioa, neke askoren ondorioz zuela ikus dezakegu. Bere ondotik etorri zirenak, arestian aipatu ditudanak, biderik erdi egina aurkitu zuten. Baina, hala ere, Iztuetaren obra guzia oraindik ez dela zehatz aztertu, eta J. Garmendiak eta bestek, azken urteotan egin dituzten ikerketak argi urratse handiagoa dakarkigutela esan genezake.

Donostiako  
"Hoja del Lunes"  
1978-X-9 eta 16

I. Sarasola,  
EUSKAL LITERATURAREN  
HISTORIA

Bazen ordua euskal literaturaren xede nagusiak kritikatzekoa, bere kondairan zehar dituen alde on eta txarrak eta eraman dituen bideak aztertzeko; literario alde soiletik begiraturik, linguistika alde batera utziaz. Hau du bere asmoa Ibon Sarasolaren Euskal Literaturaren Historia izenez argitaratu berri den liburuak.

Bere biziko hautsak jasoko ditu liburu honek. Izan ere, bat-batean ez da erraza tratatzen dituen puntu guziak



argi eta garbi adieraztea, ez eta ere ikusi ahal izatea. Beraz, ez gaitu harritzen liburu honek izan ditezkean hutsak. Harritzekoa, hutsik gabea izatean datza.

Bere funtsezko ezentzian, bat gatoz. Euskal literaturak egun hartu duen bidea, gaiak ugalzea eta ideologia era guzietatik lantzea, hizkuntza eta hizkuntzaren jabe den herriaren kultura iraupenerako eta politikazko etorkizunerako behar beharrezkoak dira. Herri baten kulturarentzat proiezio bakar hutsa bait da, luzera begiraturik, bere izate guziaren gal bidea.

Argi dago kritiko premia handian gaudela, ni ere kritikotzat jartzen nuelarik. Horrela izendatze honek, beste gabe, kritika egitera behartzen nau; baina alperrik nahi izan behar bezalako aburua egitea, ez naiz sentitzen behar lukean mailatik hartzeko ahalmenez. Parterik gehienez ados nator, batez ere argudioetan. Eta argiegi ikusten ez dudan zenbait puntu, egile beraren eta irakurlearen argibiderako adieraziko di-

tut. Inoiz egileari laguntzeko eta urren-  
go kontra egiteko. Hau bait da Ibonek  
berean markatu didan bidea. Beraz, be-  
re baimena dut.

Liburuaren lehen partean, aburu onez  
aztertzen daki autore zaharrak, Etxepa-  
retik Axular eta Sarako eskolara eta  
Oihenart bere bakardadean. Parte hau  
da noski liburuaren interesanteenetako  
bat, eta urratsik seguruenetan finkatua.

“Compañía Guipuzcoana de Cara-  
cas”ek, ez dugu durarik jartzen, bere  
garrantzia izango zuela XVIII. mendean  
euskal literatura Gipuzkoan hasi eta ge-  
hitzean, baina hobeto aztertu beharko  
litzake gorakunde hori Sarasolak dion  
neurrietaraino den; zeren mende erditik  
aurrerat ilustrazioa ezagutzen zuen eus-  
kal teatro zaharrak, Sor Luisa eta Muni-  
be edo Muniberen lanak lekuko, eta  
beste herrietan ere ezagutu zen gora-  
tzeak, normalena zen gurean ere bere  
influentzia agertzea. Bestalde, XIX.enak  
berak erakusten digu, “Compañía Gui-  
puzcoana de Caracas” ez zenez gero.

XIX.enean, 39. orrialdean, erromantiku garaia ikutzen duelarik, garairen hasieretako Iparragirre ez du aipatzen. Beren poesiak ongi moldatzen dira erromantiku giroan, ez behar bada poesia idazteko moldeetan baina bai berak duen dinamika eta ideologiazko sentimenduetan. Giro hau herriari sentierazion poeta dugu. Europako herri antzekek beren jabetasun libre hartu zuten garaia, barnetik ziren inperialismo txiki asko hautsiaz. Hau hola delarik, Iparragirrek altzatu zuen hotsak bere lekua behar zuen. Are gehiago, gaur ere oraindik, bere egarria ase etzuen herriaren ahoetan bere kankak itsatsirik izatean. Baina, erromantiko garaiarena, behar bada, Iztueteri zor diogu (1).

44 eta 46. orrialdeak barna adierazten duen klerikalismoa, behar bada, neurritz harat doa. Badakigu, klerikalismoak, historian zehar, ahal izan duen neurrirainok estutu izan duela bere poderearen hesia. Baina, kleroa klero izan da alde guzietan, konsigna antzerakoe-kin jokatuaz. Eta herri tipietan neurri

horretarainoko azpijanez ari bazen, zergatik jokatu zuen eta jokutzen ari Galizian zeharo bestaldera? Galizian etzan hori gertatu. Eleiza herri hizkuntza arrunt eta tipiaren kontra agertu zen, eta hemen ditu bere sustraiak galiziako literatura antiklerikalak. Ikusi J. Alonso Montero-ren *Realismo y conciencia crítica en la Literatura gallega*. Beraz, adierazi nahi dudana, zera da, ez duela koinziditzen herri bietako eleizaren jokatibideak, goiko agindaritza toki beretik etorriarren.

Bestalde, Serafin Baroja (Pio Baroja-ren aita) baten antiklerikal eta antikatista kanta eta ateraldiak ere badira, adibidez (noiz ikusiko ote ditugu libururik batean bilduak? Mereziko du). XIX.aren lehen partean Etxahunek ere bazituen kanta antiklerikalak, baina denok dakigu gizajoak zer burubide eramane zuten bere bizitza garratzaren zehar, eta bere kasua literatura mugimendutik zerbait apartatzen da, adierazi nahi dugun puntu horietan, baina erromantikotasuna ukatu gabe.

Pundu honetan aipamen berezia me-rezi zuen A. Irigaray-ren Esbozo bio-bibliográfico de la literatura éuskara profana (del s. XV al XX) saiaerak, bertako iritzi eta gai askorekin baliaturik. Lan honek "Principe de Viana" (1965) aldizkariaren 98-99 zenbakian ikusi zuen argia.

Liburuaren bigarren partean sartzean, S. Aranaren eskolatik sortu zen purismoa salatzen du. Eta, garbizaletasunakin batean, arraza diskriminazioa eta klerikalismoaren neurrigabekeria. Izan ere, XX. mendearen zarreran ez zen politika jokurik bidezkoena. Aranek aukeratu zuen jokabide honen oinharri, Larramendiren influentzia hartzen du, bere parterik handienez. Baina arrazakeriaren sustriak askozaz haruntzago aurkitu behar dira, euskara hizkuntzaren bitxikeria ere bai. Garibay, Poza eta B. Etxaben ere aurkituko ditugu kontzeptu horiek. Paradisuko hizkuntza bitxia eta arrazatiko noblezia horiek erabili zituzten, eta Klaberiak Ziburuko Joanes Etxeberriri egin bertsoetan ederki burlatzen ditu.

Baina, partiturik adieraziko ditugu:

Hizkuntzaren bitxitasuna, ordutik hasi zena, Larramendiren bidez, goraka etorri zen Paulo Astarloara arte, eta S. Aranak P. Astarloa hartu zuen modelo, eredu, hizkuntzaren purismoan behintzat.

Arraza kontua, arestian aipatu ditudan E. Garibay, A. Poza eta B. Etxabek, Tubalengandik zuzen gentozela euskaldunok, beren ustez erabili bazuten ere, kontzeptu oso espainiar erresumakoa du bere oinharrietan. Eta, ez fiesta de la raza zelebratu izan duen nazio bakarra delako noski; baizik, argi dago, lehen noblezia kasta, gure probintzietara, Gaztelako erregeen aitoren- seme (aita onen- seme) eta gainerako noblezia tituluetatik hasi zela. Behar bada, eta hala zen seguru asko, aurretik ziren ahaide-nagusien bukaera ondorean sortu ziren haiek utzitako handi nahiaren tokiaren betegarri, konde, markez, hidalgo eta gainerako handiki tituluok, lehen aldian, Gaztelako erregeak ematen bai

zituzten, eta ez gure probintzietarako batzarrak. Eta ez da historia asko jakin beharrik, villano eta basallo eta antzerakoak zer giza-maila zuten jakiteko. Orduan, euskaldunak, beren foruen bidez, ez zituzten onhar beren artean holako berizkuntzarik. Euskal Herritik irtetzean, beren buruak villano edo basallo bezala agertzean, Biltzar nagusien eskaria izan zen, hemengo guziak maila unibersal batean berdintzea, aitoren- seme, hidalgo, titulua hartuaz, gizon bezala errespetatuak izateko. Ikus, huntaz, beste zenbait estudioren artean, K. Etxegaray-koaren Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa-ren lehen kapitulua (2).

Egoera honetan, lehen aldiaz, berrioso bat hornitzen da gizon errekonozidu mailan (edo seme errekonozidu, “hijo de algo” — hijodalgo edo hidalgo, eta ez bastardo). Larramendik defenditzen zuen nekazari noblea, zapatari noblea eta abar, alper eta alproja nobleen aurrean, euskaldungoa defenditu nahirik, gure noblezia apalaren kontra irte-



tzen zirenen aurrean (ikus, Corografía-ren “De la nobleza...” kapitulua). Gertakizun hauetatik, Gaztelanian liberalismoaren garaian nobleziak lehen zuen prestijioa galtzea, gutxi batzuk zirelako tituludunak eta anitz gabeak. Gabeak irabazi zuten beren eritzia poliki poliki. Baina, Euskal Herrian ez zen hori gertatu, noble izatea denak ahal zutenez, harrokerian erori ziren, eta askok eutsi nahi zion, gauza bereizi bezala, bere funtsezko kontzeptuetan oso espainiar hutsa bazen ere, eta hau politikaz bestaldera jokatuaz. Jakina, Sabinok bere politikarako hartu zuen; baina puntu honetan badakigu nork influentziatu zuen. Bere politika programa egitean, Lizarrar Aita Iberogana anitz osterara egin zuen eta batez ere harek kutsatu zuen arraza-zale bezala, eta, seguru asko, baita klerikalismoan ere, neurri handi batean behintzat.

Beraz, Aranaren joerak, Larramendi, P. Astarloa eta A. Ibero ditu iturburu. Horietatik, lehenengoaren jokera hain zuzena ez bazen ere, ondorengo biena



okerrago noski. Baina, oraindik ere euskaldunok arraza-zaletzat juzgatzen gaituzten espainiarrak, jakin bezate beren herentzia izan dugula pundu honetan.

Dena dela, aitortzen dut, azterkizunok ez direla hain ximpleak, eta literaturatik aparteko historia ere hobeto eza-gutu beharra dugula. Behinik-pehin gure literatura gizarte hauziekin konparatzean.

Literaturan, garbikeriatik jarraitu dutenek beti izan dira kulturaz guti hornituak edo kopeta laburrekoak. Heurek nahi zuten euskara, anti-erdara zen. Baina, anti ziren aldetik, beren konparazioak, erdaraz hola zena euskaraz hala behar zuela, eta horrelako jokabidez erdara bera hartzen zuten oinharri; zeren erdaratik ikusten bai zituzten gauzak, euskeraren muinetik ikusi beharrean. Adibidez, gazteleratik askozaz hurbilago dago “Loraila”, “mes de las flores” ideakoa, jatorragoa den “Maia-tza”, “Mayo” pagano zaharretikakoa

baino; baina, “garbizaleen” mundu txikian bestaldera behar zuen izan. Gainera, maiz, hitz berriak asmatzen zituzten, bakoitzak berak ezagutzen zuen euskera txikitik ikusita, lehendik beste euskalki batean hedatua zegoen edo ez, begiratu gabe. Baina, kritika honetan alde hontatik abiatuko bagina, inoiz bukatu ezindako jardunetan eroriko ginake.

Herri literaturak ere, bere toki bat hartu behar zuen liburu honetan. Pastoralak ez-ezik, Lafittek Bourges-en Gonzalve edo Ostatu betea antzerkia itzulpenaren hitzaurrean jartzen dituen herriz-herrizko teatro tipien oharrak ere aipagarriak dira, behar bada Barrutia eta Muniberen lanak hobeto ezagutzeko ere bai. Arestian aipatu dugun Etxahun, herri bertsolaritzaz kutsatutako poeta, hain antiklerikalak, zenbait bertsutan lizunkeri gordinak eta inoiz eztenkada zorrotzez behartsuaren alde, “Oi! laborari gaxua”n nekazarien alde. Eleizanburu berak ere, nekazariak ongi defenditzen ditu “Lehen eta orain”en.

Baina, batez ere herri-kanta zaharrak dira garai bakoitzeko giroa, literatura egintzaz aski ongi betetzen dutenak (dakigunagarren horien klasifikazio zehatza ez dela erraz), eta hontaz lehen forma emate bat aurkituko dugu Leizaolaren La "Crónica" en la poesía popular vasca eta 1808-1814 en la poesía popular vasca bi liburuetan batez ere. Langileriaren problematikak ere bilatuko ditugu, hortara beharturik, gure literatura herrikoian, Juan Jose Sarasolaren gaztaroko bertsoak, esate baterako, Lexo bertsolaria liburuan ("Auspoa"), 1894, 1903 eta 1904.eko bertso gintzan (3). Eibarren bertan, hizlari euskaldun bezala, sozialismoaren apostolua Amuategi izan bazen ere, garaiko euskaldun langileen giroa ederki adierazten du "Forjarien kantak" (Ikus ANAITASUNA, 212 zenb. 14 orr.). Horiez gainera, ez da gauza erraza izanen orduko eskuz-eskuzko propaganda euskaldunak eta maiatzaren lehen eguneko kanta euskarazko bera arkitzea. Beraz, guzti hau ere bazen euskeraz gure mende honen hasieran.

Eskubi aldekoak, konserbadoreak, euskara monopolizatzea ez zen PNV-ren programaren ondorioa, ez. Orduko ezkertiarrek, I. Sarasolak ez badaki ere, ezin bestean joten zuten euskarara. Alderantziz, Mendiburuk bere Jesusen Bihotzaren Devocioa-ren hitzaurrean duen errazoi beragatik, euskaldun hutsak zirenentzat, Ibonen liburu honen 45. or. jartzen den bezala. Zeren hain internazionalista sentitzen zirenez, orduko ezkertiarrek, munduan hizkuntza bakar bat predikatzen zuten, esperanto eskolak jartzen zituzten (Esperanto-ren galera, sozialistak nagusitu ziren nazioetan hizkuntza berri hau ofizial ez jartzetik dator; ez ofizial jarri eta ezta bigarren hizkuntza bezala irakatsi, lehenago heurak hainbeste predikatu ondorean). Eta, jakituri az jantzigabeko langilearentzat esperanto ikastea nekeza zanez, errazera jo zuten, urrutiagoko homogeneismo edo monolingüismo utopiko baterako bidea hartuaz, edo, garbiago esanda, bide errazagoa zen gazteleratik ikusten zuten eta abstraktoki predikatzen zuten. Inoiz ez zuten erreflexionatu, ez zuten barne gogoetarik egin,

internazionalismoa herri ororen artean hornitzen zela; mundua bere naturale-zaz zela era orokorrez bere natura izatean, ideiak bat egin zezazkeela bakoitzak bere izateari utzi gabe eta abar..., orduan ez zituzten ez ikusten ez ulertzen, hain ideia ximpleak izanik ere. Orduango ezkertiarrek, beren asmo onekin ere, Estadu-nazio kontzeptu atzera-koia defenditu zuten eta zentralismoari indarra eman, heurak igarri gabe, heuren herriko kultura marginatzen laguntzeko. Eta, herri baten kultura marginatzea anti-internazionalista da.

Kataluñan ez zen hola gertatu, lehendik beren hizkuntza, jatorrizko kulturarekin eta egungoarekin finkatuago zutelako. Arrazoizko, haien bidea hartzea izango zen, hemengo ezkerrentzat ere, baina kultura faltaz eta kanpotiko zuzendaritzapean beren alderdiak zituztelarik, abertzale eskubitarrei euskararen monopolio kulpak jaurtzea da errazena, beren eskuak garbitzeko, garaiz behar zen lekuan eta behar zen bezala kompetentzia sortu beharrean.

Lehengo ezkertiarren jokera hori hola zela argi adierazten du egungo egoerak berak ere. Ezkertiar berria sortu behar izan da gure herriaren egoera tamalgarri hura zuzentzeko. Bitartean, zenbat denbora eta zenbat terreno galdu duen gure kulturak eta gure hizkuntzak. Jokabide harek, historian zehar luze irauntzen lagundu dio euskal kulturaren marginalismoari.

Liburu honetan, 60. orrialdean, egileak, eredutzat jarri nahi duen girotik aparte daude Lauaxetaren “Mendigoizalearena” eta Lizardiren “Xabiertxoren eriotza”. Ez dakit, baina behar bada ez ditu irakurri edo bestela ez ditu ulertu. Lehenengoa, ekintza mugimendu bati eskainia da, eta bigarrena hildako seme bati poeta intimista batek egina. Bietan, sinbolu bereziak jokutzen dute. Lizardiren seme hura Gabon egunez hil omen zen. Bi poemok aparte, gaineron-tzean, ez dut ukatzen egileak zalatzen duen giro hura.

69. orrialdean esan beharra dago eus-

karaz idazteak zelako eragozpenak zitu-  
tuen, garai hartan. Harritzekoa bada  
ere, euskaraz idazteak bere peligroak  
zituena garaiak ere izan bait dira gure  
historia tristean, delito ikaragarri bat  
balitz bezala.

Larogitaseigarren orrialde inguruan,  
euskara idazkerak hartu dituen bideak  
aztertzean, Arestiren herri-euskaraz ere  
mintzo da. Baina, Arestiren euskarak  
herririk ez duela esango nuke nik. Bere  
alde eta hobeto esateko, gure herri oro-  
tarik eta literatura zaharretik atera  
duen koine antzeko batera hurbiltzen  
dela esango nuke.

Oraingo gazteen ezkeralderako joe-  
rak berak ere badu bestelako arrazoirik.  
Euskal kultura eta euskal literaturaren  
mugimenduan ari diren gazte ezkertia-  
rrek eskumatarren semeak dira gehie-  
nak; seminarioetatik irtenak edo ez di-  
renean. Eliza jerarkia eta estatu podere-  
tsua elkaturiko urte askotako egoera  
itsuaren ondorioz sortutako erreakzioa,  
egon ezina da; bestetik berriz, II. Kon-

tzilio (1962.netik ondoren) ondorenak berakin ekarri duen erlijio krisisaren seme. Erlijioak bere barne izan dituen aldakuntzekin, bi era nagusitara ebaki zituen joerak, mentalidadez prekontziliar direnak; bestetik, bere zentzura irekiago jarri zuen, honekin mila tabu erori ziren eta anitzek ordurarte entzun edo irakurri ez zituen gauzak entzutera eta irakurtzera heldu zen. Egiatzat zituen kontzeptu asko jarri zituen zalantzan, eta dudetatik sortutako kezka urduriak sakabanatzen hasi. Hemendik, askok ezkeraldera ihes egitea. Eta ez dago dudarik, honek ere lagundu zuela mentalitate idekiagoaz girotzen eta bultzatzen 64 gizaldia deitzera etorri garena.

Iritzi hauetatik aparte, garrantzi gutti-ko hutsen batzuk ere izango ditu, noski. Holako obra bat burutzeak berak dakarren gauza da. Idazle eta beren lanen artean badira hutsunetxo batzuk ere; ez handiak. Tomas Agirre "Barren-soro", ez da apeza, 123. orrialdean dioen bezala. Eta, Uztaro, bere nobela, ezin da jarri ohitura eleberrizat. Hortatik ere zerbait baldin badu, joko-etxeen



kritikazkoa da. Oroi, Kursaal eta Gran Casino ba zirela Donostian. Eta, obren artean, M. Zarateren Bizkaiko euskal-idazleak (1580-1968) ere bere tokia behar zuen behinipehin. Historia alde-tik begiratua dagoenez, eskualki baten kondaira urratsetan mugaturik. Bizpa-hiru urte lehenago argitaratu bazen, garrantzi handia izango zuen liburu horrek, eta orain zergatik ez? Bat-batean batasunaz neurritz kanpora egarritu garelako? Baina, historiak beti jarraituko du historia izaten, eta batasuna indartu artearainokoak bere tokia izango du.

Egileak, ideiak eta imaginak azkar eta garbi erabiltzen daki; atsegin handiz irakurtzeko eran, eskuetan hartu ondorean irakurri arte utzi ezinezko liburua da. Ez du unetxo bat ere aspergarririk.

Obra guztian zehar, gure literatura ongi ezagutzen duenaren ageriak ematen ditu egile bizkor honek. Hemen salatu ditugun hutsak eta agertu ditugun ikus-molde desberdinak oso txikiak dira liburua dakartzan berri eta iritzi

jakingarri ugarien artean. Ibonek, begi-  
golpe onez epaitu ditu gure literatura-  
ren kondairak dituen korapilorik han-  
dienak, labur eta ongi juzgatzen jakin  
du. Gaur, gure artean, gutxi dira hola-  
ko lan bat hain ongi burutzeko ahal  
direnak. Eta, euskal literaturarekin  
zerbait arduratzen diren guztiak iraku-  
rri behar duten liburua dugu hau.

Anaitasuna, 216 eta 217 zenb.  
1971-VIII-15 eta 30

## OHARRAK

- (1) Ikus liburu honetan "Iztueta erro-  
mantikoa".
- (2) Ikus Gogoz deritzan (Donostia,  
1978) nere liburuaren 104-107  
orrialdeetan "Eskal berdintasuna"z  
zer jasotzen dudana.
- (3) Ikus Gogoz liburuan 267 orrial-  
dean "Langilearen kezka euskal  
literaturan".

II  
ZENBAIT  
GIZONEN  
LANGINTZAZ

## URKIXO-KO JULIO-REN 100. URTEBURUAN

Urkixo-ko Julio, Deustun jaio zen 1871an. Ospe handiko gizona, RIEV-en sortzaile eta zuzendari izan zen (1907-1936). Urkixok, gezurra badirudi ere, euskaraz idatzi zuten askok baino goragoko maila merezi du euskal literaturaren kondairan. Bere lana, literaturaz eta linguistikaz hain zientifikuki egin zuenez eta egitera bultzatu zigunez gero.

Askok pentsatu izan dute honegatik bakarrik sartu nuela Escritores euskéricos katalogoan. Izan ere, hala dirudi be-

re fitxa irakurrita; baina hori ez zen aski arrazoi, ez; ez nion tokirik emango, euskal idazleen artean, inoiz euskaraz idatzi ez balu.

“Zer diozu; Urkixo euskaraz?”, esaten zidan adiskide batek oraintsu.

Hemen, gutxienez, bere gogoa zer zen adierazten digun lantxo bat jasoko dut. Bere gogoa, ez euskararen alde bakarrik, baizik zer euskara motarena ere bai. Urkixok bere iritzia ondo landua zuen huntaz, literaturaren tradiziozko iturrietatik hartua. Hau da gutxik dakitena.

Bera, izatez, euskaldun-berria zen. Askok uste baino euskara gehiago zekiena, noski. Eta, gure literatura zaharrakin liluraturik egoana. Huntaz adibiderik hanitz emanen nuke, baina luzeegi joango nintzake. Hor daude, esate baterako, *Obras Vascongadas del doctor labortano J. d'Etcheberri* (París, 1907), *Introducción al Lingvae Vasconvm Primitiae* de B. Dechepare (Donos-

tia, 1933), errefrau zaharrak, Garibayrenak eta 1596-koak eta beste lan asko, hain ohar jakingarriekin berak berriz argitara emanak. Bere iritzi baliosak ezin zitezkeen egosi euskeraren ezagutza gabe. Eta, bere ezagutza ez zen nolana hikoia, ez eta ere bere literatura jakintza.

Ez genuke gehiegizkorik esango, euskal idazle handi bat izango zela bere garaian giro egoki batek inguratu izan balu, esateaz. Hau da, orduan garbikeriak hainbeste indar izan ez balu. Berak hori ezin bai zuen irentsi.

Ikusi Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco (Literatura, II), 280/290 orr., liburuan, Luis Eleizaldekin gertatu zitzaiona, garbikeriak bere alturarik handienez ibili ziren garai hartan, "eleiza"ren ordean ere "txadona" (etxedone) erabili behar omen zen, eleiza hitza latinetikakoa zelako. Hunelako iritzi kaxkarrekin Urkixo garbizaletasunera eramango zuelakoan. Eta, Urkixok, esan omen zion: zure deitura, Eleizalde

izan beharrean Txadonalde jartzen baduzu bai. Hortan bukatu omen ziren elkarren artekoak. Hau zen bere garaiko burubidea.

Orduko giroak ez zion ez lagundu. Gaur, ordea, bere gogora hain ongi eraturko zen giroak inguratzen gaitu. Urkixo ez zen profeta, eta berak ere ez zuen horrelako nahirik. Baina bai, bazekien gure literaturak zer jokabide behar zuen, jatorritik zetorkigun tradizioari loturik behinik-behin. Eta, gaurko joera hortara etorri zaigu. Zeren Urkixo ere "h" zalea zen, gure literatura zaharreko frutuen balioa gure arteko beste askok baino lehen ikusi zuelako, literatura jatorrak lehenarekin lokarriak behar zituela ongi zekielako. Baina euskaldun-berria eta bere garaikoak berak hain gogoko ez zuen joerazko korrante indartsua ikusirik, ez zen harritzekoa euskaraz ez idaztea. Hala ere, badugu bere pertsonalitatea eta bere barne gogoa zintzoki agerian jartzen digun lanik, euskara jatorrez idatzirik. Egungo aburuetara ahalgerik gabe ager ditzakegu, eta ezin

dugu gauza bera esan orduko idazle oparotsu askogatik.

Hara hemen, lekuko, Urkixoren euskarazko lantxo bat. 1910ean “Euskal Esnalea-ren esku-egunkarian” argitaratua. Guk, bere ortografiaz dagoen dagoenean utziko dugu, x eta tx, ch eta tch-ren ordezeko aldakuntza soila eginenez. Besterik ez. Halakoa bait da bere euskera. Eta, artikulu honetan, zein ederki goratzen duen, bere gogora eginenez, Claveria-k XVII. mendean Ziburuko Etxeberri-ren ohoretan esana; artikulu honek, “Zaharren erranak” du titulutzat:

Ezta Euskalzaletasuna gauza berria, hainitzek uste duten bezala. Iragan diren mendetan euskalzale batzuk bizi ziren, eta hekien artean Claveria Apheza, guti ezagutua dena. Jaun hunek, Etxeberriko Joanesi eskainiritako hitz neurthitzetan, erraiten dio:



Burlatzen naiz Garibaiez  
Bai halaber Etxabez,  
Zenak mintzatu baitire  
Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik  
Eskaldunak hek biak,  
Eskaraz behar zituzten  
Egin bere historiak.

Eskaraz egin dituzu  
Etxeberri, zure obrak,  
Ohoratu nahiz zeure  
Ahalaz herritarrak.

Zer errefrau eder baita  
Hizkuntza arrotzetan  
Hura aditzera ematen  
Daroezu beretan.

Esker bada eta aithor  
Duzula berezia  
Zeren xoratu duzun  
Herritarren mihia.

Egia handia da hori. Haurdanik  
euskara ikasi ez dugunek ez detza-

kegu gure liburutxoak euskaraz eskriba, bainan Aitoren hizkuntza dakitenek zergatik eskriba lezakete erdaraz?

Urkixo-ko Julio

R. I. de los Estudios Vascos-en  
Zuzendaria”

Honeraino duzu “Zaharren erranak”, irakurle. Zein egoki aprobetxaturik Claveria-ren zirikadazko poesia. “Aitoren hizkuntza” esatean ere, ez uste mitologia faltsuz sortutako “Aitor” denik, baizik xuberotarren “Aitoren” (aita-onen) duzu. Eta haurtzarotik euskaldun izanik liburuak erdaraz izkribatzea, sinetsi ezinezkoa zen Don Julio-rentzat. Baina, bestalde, gaur bizi izan balitz, harrituko zen hainbeste euskaldun-berri euskeraz liburuak idazten ikustez. Egun, bera ere, honetariko bat izango zen, noski. Zeren, nork ez luke pentsatuko artikulutxo hau gaurko gazte bategen idatzia ez denik? Eta, bere gogoa eta bere eskaria, zer ikasbide ederra

oraindik orain ere erdal literaturari gus-  
toa harturik dabilzan euskaldun horien-  
tzat.

Hala ere, berriz diot, Urkixori, euskal literaturan gehien zor dioguna, zera da, lan ez-ezagunen bilaketa eta liburu zahar haiei buruz eman zituen iritziak. Euskarazko literatura ilunpetik ateratzen asko lagundu zuen gizona. Neurri handi batean, berari esker aurkitu ditugu gaur daramatzagun bideak. Baina oraindik ere ba dugu zer ikasirik gure lehena hainbeste sakondu zuen gizon honegandik.

Lanik aski aurkitu zuen lehenaren azterketan; eta, behar bada, honegatik ere ez zen sartu berak euskarari buruz zituen iritziak defenditzen, denborarik ez galtzeko.

100. urteburuan izan dezagun bere oroimena, irakurle.

Anaitasuna, 215 zenb.  
1971-VII-15

## AINTZINAKO IPUIAK, AZKUEK BILDUAK

Euskal Herriko ipuin zaharrak, belau-  
nik belau- datozenak, heuren zaharta-  
sun guztian, beti berri direnak. Zahar-  
tzaroan aurrera dihoazen atso-aguren-  
tzat haurtzaroko oroitzapenez beterik  
eta haurtzaroan bizi direneri misterioz-  
ko mundu bat irikiaz. Beti zahar baina  
beti berri.

Euskal Herriko umeak irakurgai fal-  
tan daude. Beti gara haurrentzat gauza  
haundiak egiteko asmotan, liburu apain-  
duak eskaintzen ditugu hitzez, baina ur-  
teak aurrera gauza gutxi argitaratzen

dugu haurrentzako eran. Eta, haurrak, alegia, beti liburu berrien egarriz bizi diran haur hoiek, liburu berdinekin aurkitzen dira. Beraz, Azkuen ipuin hauek ere ez ditugu berriak, noski, baina orain arte zeuden bezala, lau liburu haundiri erantsirik, ez zeuden edozein haurren eskuetara heltzeko eran. Eta, horregatik geunden beharturik beren bilduma bat gertatzera. Euskara herri-literaturaz hain aberatsa izanik ere, era honetako liburuz urri delako.

Ipuin bilduma hau, irakurgai bezala premiazkoa izateaz gainera, Euskaltzaindiaren urre-eztaiak diralako, bere sortzaileetariko eta lehenengo buruzagi zenaren ohorez, bere Euskalerrriaren Yakintza hautatu dugu.

Izatez, Euskalerrriaren Yakintza lau liburu haunditan dago, gure herri-literaturatik Azkue berak jasoriko ohitura, siniskera, ipuin, atsotitz, esakera, igarkizun, jolas, kanta eta abar adieraziz, erderazko itzulpenarekin batean Madrilgo Espasa-Calpe, S.A.-k argitara

emanak. Lauretatik bigarren liburua ipuin hutsez egina da. Guztira, 241 ipuin ditu, eta beretarik 62 aukeratu ditugu liburu hau osatzeko. Eta, bihoaz gure eskerrak Espasa-Calpe, S.A.-ri bilduma hau egiteko baimena eman digulako. Zeren Azkue zenak, egile eskubideak bere zituelarik, Madrilgo etxe honi emana zuen argitaratzaile bezala eskubide osoa.

Argitalpen honen izena, EUSKALERRIKO IPUIN ZARRAK, Euskalerriarren Yakintza-tik bereiztearren eman diogu, zeren bertatik ipuiak bakarrik jasoz zituelako. Lehenengo liburuaren hitzaurrean dioen bezala, bertako gehienak bere ama, eta Bilbo, Donostia eta Alkoz (Ultzama)-ko landerretxeetako atso-agurengandik bilduak direlako. Bilketa lanean, gaztetxo zelarik hasi zan Azkue, joan zan mendearen azkenaldian, eta bere denborako zaharrengandik bilduak direnez, ehun urtetik gora izango dituzte bertako asko eta askok. Ipuin kontalarien urteak ematen ez baiditu ere, kontalariak joan zan mendea-

ren lehenengoetakoak izan behar nahi eta nahi ez, baldin mendearen azkenaldera landerretxeetara jasoak baziren. Beraz, heuratariko askok haurtzaroan ikasiak zituztenez, ez dugu gehiegikeririk esaten zenbait ipuinek ehun urte-tik gora ere izango dituztela aitortzean. Horrez gainera, nork daki ahoz-ahonoztik etorriko ziren atso-agura hoi-en belarrietara? Arrazoi hauek aski dira **EUSKALERRIKO IPUIN ZARRAK** izenburuz bataiatzeko.

Hautapenak egitean ez diogu begiratu onenak izateari bakarrik, baizik ontxoenen artean gaiez desberdinak eta gainera euskalki guztietarik zertxobait harturik, Euskalerraren zabalera guztikoekin hornitzearren.

Azkue berak, ipuin bakoitzaren ondorean kontalariaren izena eta herria ematen zituen, eta egoan berean utzi dugu. Berak jartzen zituen zenbait ohar ere bere-berean utziaz, oso luzeak zirenen laburpen bat emanaz eta laburpen ondorean, beti, bere iturria emanaz,

Euskalerriaren Yakintza'ko iturria, bere zehaztasunak jakin nahi dituenarentzat. Beste zenbait ohar erantsi dizkiogu, gehienetan geroztiko iturriren batzuek emanaz, azterketak jarraitu nahi dituztenen argibiderako.

Ezertariko ikuturik egin gabe jaso ditugu Azkue'ren ipuin hauek. Euskaldunei begira argitaratzen dugunez, Euskalerriaren Yakintza'k duen erderazko itzulpen gabe ipini ditugu. Hainbeste euskalkitatik bilduak diranez, zenbait ipuin irakur nekezekoak izango dira behar bezala ulertzeko, baina gaur nor nahik arki lezake esku hiztegitxo bat bertako hitzak konprenitu ahal izateko, eta bide horretatik inori ez dio kalterik egingo besteen euskalkiak ezagutzeak. Euskalkitik euskalkira dauden aldeak ez dira askok uste bezain haundiak.

Herri-ipuin hauek ziran bezala jaso ote zituen Azkuek? Galdetuko dute, noski. Ezetz esango diegu. Lehenengo liburuaren hitzaurrean dioenez (1), joskerak batzuetan eta hitzak hurrengo,



bere erara aldatuak zituan kontalarien ahoetatik erdel kutsuz zetoztenean. Herri berak erabiltzen dituen joskera eta hitz jatorragoekin konpondu bazituen ere. Zioenez, gutxitan egiten omen zuen hori. Baina gure iritziz, bere gisara aldatze horrek, bere alde ona eta txarra ditu. Txarra, oso txarra, etnografia eta hiztegi agiri bezala, zeren etnografo batek inoiz ere ez luke horrela jokatuko. Hobe esan, ez luke inoiz ere horrela jokatu behar. Jakintzaren partetik, etnografiako bilketa, agiri bizia izan behar du, egi-egiazko dokumentua. Zeren erderazko hitz eta molde hoiek ere noiztik eta nola jakin beharrezkoak dira. Baina bere alde ona du euskal literaturaren batasunaren aldetik begiraturik. Honetan, Azkuek, bere moldeetara ipini zituen, bere Gipuzkera osotua-ri (2) hur emanaz.

Guk nahiago genuen etnografiaren legeak eskatzen duen eran oinharrituak baleude. Horretara, orain izango zen garaia irakurgai bezala agertzean literatura aburuz osatzea. Bere lana zientifikoa-

goa izango zen, ta orain, irakurgai bezala jartzean, literaturak eskatzen dituen aldakuntzak egin genitzakean. Baina, lehen horrela jokatu zuenez, orain ez goaz ikuturik egitera, beharrezkoa ez deritxogulako.

Ipuinok, Euskal Herrian sustraiturik arkituarren, jatorriz bertako iturburuetakoak ote ditugu? Batzuek bai, beste batzuek ez, eta beste asko ezin erabaki. Biltzaileak berak, tokiz, ematen dizkigu zenbait ipuiek beste herri eta beste garai batzuetakoekin duten zer ikusia, bigarren liburuaren hitzaurrean (3).

Itxura denez, Peru ta Maria izenez Bizkai eta Gipuzkoetan ezagutzen diren ipuinak ez zituen maite Azkuek, bi baizik ez dira ageri bereetan, “beste guziak aurkeritxoak baizik etziran”, esanaz (4). Baina, haurrentzat “aurkeritxoak” ere atsegingarriak dira. Haurrak bere irudimenezko mundua bizi bai du. Horrelako ipuinen agiriz, Peru ta Mar

lako ipuinen agiriz, Peru ta Maria-rene-

kin, badira bi disku "Columbia"k orain pare bat urte argitalduak, Teri Ibarrola aulestiarraren ipuinez eginak.

Beste askok bezala, Azkuek ere uste izan zuen arrotzak zirela gure folklorea biltzen hasi zirenak. Bere iritziz Wentworth Webster (1828-1907) izan zen Euskal Herriko lehen folklore biltzailea *Quelques notes archéologiques'en*, geroago *Basques legends* (London, 1877) argitaratu zuena. Iritzi hori Julien Vinson'en (1843-1926) gandik zetorkion, zeren Vinson'ek Webster'i eskaintzen zion bere *Le Folklore du Pays Basque* (Paris, 1883), lehenengo folklore biltzailea zelakotzat. Vinson'en liburu honek oraintsu ikusi du bigarren argitalpena Paris-en bertan "Maisonneuve et Larose" etxean. Gaur ostera, denok dakigu Oyhenart-ek alde horretatik zenbait lan egin zituela, hamazazpigarren mendearen lehen partean; baina euskal folkloreaken egiazko lehenengo biltzailea Iztueta (1767-1845) zela. Behar bada ez Webster eta Vinson bezain zehatza, baina ezin uka-

tu bere lana folklorelari aburuzkoa ez denik. Gauza honi buruzko argitasunak neronek eman nituen ihazko urtean Iztueta'ren jaiotzaren berrehun urte bete-tzea zela eta (5).

Iztueta-ren lanak: Gipuzkoako dan-tza gogangarrien kondaira (Donostia, 1824), izenburuak dioen bezala dantze-ri buruzko zertzeladaz egina da, eta be-re bigarren partea, Gipuzkoako soñu zar eta itzneurtu (Donostia, 1826). doi-nu eta kanta zaharren bilduma, bi urte beranduago atera zen orduko zentzura-rekin izan zituen eragozpenengatik, eta azkenik Gipuzkoako probintziaren kon-daira (Donostia, 1847). Azken honek kondairaren aldetik balio askorik ez ba-du ere, 25-garren orrialdetik 255-erako tartea etnografiako bilketa hutsez bete-rik du. Bere mami nagusia artzaintza, nekazaritza, ola-zaharrak; orduko elkar-te eta erakunde; abere, landare, lan tres-na eta jolasketa hiztegiak; ipuinak, ohi-turak eta abar direlarik.

Iztuetak merezi du bere zati hauta-tuekin liburu polit bat hornitzea, zeren

bere oroitza gaurkotzearekin batean bere bilketak gaurko etnologia gaietan dabilzanen eskuetan ipintzeko. Azkuek hizkuntzaren aldetik bere parte ona atera zion, batez ere *Diccionario Vasco-español-francés* delako hiztegi nagusiarako eta *Morfología Vasca*'rako. Oso gutxi *Cancionero popular vasco*'n (Ikusi 257/261 orrialdeak).

Baina Azkue'ren lan luze eta sakonak aintzat hartu ezker ez da harritzekoa zenbait gauzak ihes egitea. Ez da gutxiagorako.

Ez dut uste irakurleak Azkue nor zen ihardetsiko duenik, baina ala ere bere egintza haundien oroiz merezi du bera eta bere lanaren berri labur batzuek ematea: *Resurrección María Azkue* eta *Aberasturi Lekeition* (Bizkaia) jaio zen 1864-an, eta Bilbon hil zen 1951-n. Euskeraren alde lanik gehien egin duen gizona dugu, eta euskerak gehien zor diona noski. Bere aita, Eusebio Maria, itxas-eskolako matematika irakaslea zen, eta horrez gainera euskal idazlea,

Parnasorako bidea'ren egilea. Ama berri-  
z ipuin kontalari trebea (horregatik  
doaz Euskal-erriaren Yakintza eta es-  
kuetan duzun liburu hau berari eskai-  
niak). Beraz, jatorritik zetorren Resu-  
rrección euskal arazoetara grinatua.

Bilboko Institutoan euskara irakasle  
1888-garretetik. "Euskalzale" izeneko  
aldizkari bat argitaratu zuen bere kon-  
tura 1897-tik 1899-ra. Arturo Campión,  
Luis Eleizalde eta Julio Urkijo-rekin ba-  
tean, euskaltzain izendatua izan zen  
1918-an, Oñatin egin zen Euskal Ika-  
s-kuntzaren Lehenengo Biltzar nagusian,  
han bertan Euskaltzaindia sortzean. Eta  
hurrengo urtetik Euskaltzaindiaren bu-  
ru izendatu zen.

Teologian doktor mailakoa zen, Real  
Academia Española-ko numerokoa, Pe-  
tersburgo-ko Zientzia Akademiakoa eta  
Paris-ko Hizkuntzalari elkargokoa.

Bere lan nagusiak: Diccionario Vas-  
co-español-francés (2 liburu), Bilbao,  
1905, 1906. Cancionero popular vasco,

Barcelona, urte gabe (aurten berriz argitaratzen da lan eder hau). Morfología vasca, Bilbao, 1925. Euskalerrriaren Yakin-tza (4 liburu, euskaraz eta erdaraz), Madrid, 1935, 1942, 1945 eta 1947. Lan hoi- en erdia aski litzake gizon batek bere bizitza guztiko langintza ondo be- tea edukitzeko, baina Azkue haundia- rentzat ez zen nahikoa agiri denez, eta hoi- ez gainera beste zenbait liburu ida- tzi zituen jakintza, arte eta literatura mailakoak, eta euskal hizkuntzaren azterketetatik aparte, operak, antzer- kiak, nobelak, eta abar idatzi zituen.

Gehiegi luza gintezke hemen bere bizitzari eta lanei buruz zehazki ihar- dungo bagina. Horregatik, bere bizitza eta laneri buruzko zertzelada zehatzak nahi dituenak ikusi beza beste lan hoi- tan: Azkue jauna zanaren gorazarrez Euskaltzaindiak argitaratu zuen "Eus- kera" zenbaki berezi bat, II-garren to- moa (bigarren aldikoa), Bilbao, 1957. Eta Don Resurrección María de Azkue lexicógrafo, folklorista y gramático, L. Michelena, J. Caro Baroja eta A. To-

var. Publicaciones de la Junta de Cultura de Vizcaya. Bilbao, 1966.

Aurten, gure gizon haundi honen ize-na emango omen diote Bilboko kale bati. Gure iritzian oroitarri eder bat ere merezi du. Baina, oraingoz, liburu honekin, Euskal Herriko haurrek behintzat, liburutxo on bat jasotzen dute, beren arbasoen ondore emaitzaz. Euskaltzaleen aldetik ere arrera ona izango balu ez da gutxi.

(Aintzinako ipuinak deritzan  
bildumaren hitzaurrea)  
Eibar, 1968-ko epailean



## OHARRAK

- (1) Euskalerrriaren Yakintza, I, hitzaurrean, 18/20 orrialdeetan.
- (2) Gipuzkera osotua, Bermeo, 1935. Liburu honetan bildu zituen Azkue zenak euskeraren batasunari buruz zituen iritziak. Gutxi gorabehera, bere teorizko iritzi hoietara makurtuak egin zituen Azkuek ipuinetan arkitzen diren aldakuntzak.
- (3) Euskalerrriaren Yakintza, II, 9/10 orrialdeetan.  
Era berean arkituko ditugu Euskal Herriko ipuiak beste herrietakoekin duten zer ikusia Barandiaran-en “Eusko-Folklóre” (Materiales y Cuestionarios). Munibe, tomo IV, 286/294 orrialdeetan. Sociedad de Ciencias Naturales “Aranzadi”. Donostia, 1954.
- (4) Euskalerrriaren Yakintza, II, 14-gn. orrialdean.
- (5) Ikusi: Iztueta, el precursor del folklore vasco, “La Gran Enciclopedia Vasca”, tomo II, 7-8 zenbakia, 427 orrialdea. Bilbao, 1967.

## ISAAC LOPEZ-MENDIZABAL EUSKALTZAIN OHOREZKOA

Hil honen 11.ean bete dira ehun urte Ixaka Lopez-Mendizabal jauna Tolosan jaio zela. Liburuen giroan sortu ere, Mendizabal inprimatzaileen familian.

Juan Ignazio Mendizabal izan zen inprimategiari hasiera eman ziona eta argitaratu zuen lehen liburua Agustin Kardaberazen Esku liburua izan zen, 1826. urtean, gero ere han bertan zenbait aldiz birargitaratuko zena. Juan Ignazioaren alargunak bide beretik jarraitu zuen 1840tik 1877ra arte eta Ixakaren aita zen Eusebio López-ek 1878tik

1900era arte. Eusebio, Mendizabal batekin ezkondua zen eta hemendik sortu zen López-Mendizabal deitura elkartua (1).

Euskal Literaturak eta eliz liburuek harrera ona zuten etxe honetan eta joera horrek markatuko zuen haur sortu berria. Lehen ikastaroak Tolosan bertan bete zituen eta handik Deustuko Unibertsitatera joan zen ikasketa nagusiak burutzera. 1897an Salamanca-n esaminatu zen. Ikasle azkarra omen zen eta Filosofia eta Letrak bukatu ondorean Madrid-eko Unibertsitatera jo zuen Legeak ikastera, eta 1900. urtean amaitu zuen karrera hau. Madrid-eko Unibertsitatean hartu zituen doktor tituluak: 1899an Filosofia eta Letretakoa eta 1903an Deretxokoa. Bere tesiak hauek izan ziren: "Cantabria. La guerra cántabrica y el País Vasco en tiempo de Augusto" (80 orrialdeko lana, urte berean argitaratua) eta "Fueros de Guipúzcoa" (argitara gabea).

Nik ez dut izan Kantabriako gudua-

ren tesi hura irakurtzeko aukerarik, baina, Ixakak, hil arteraino eutsi zion hemen erromatarrik sartu ez zen usteari. Hobeto esan, Euskal Herria Erromako inperioaren menpeko egon ez zen usteari.

Nik ere ez dut uste menpeko bihurtu zenik, baina horren beharrik ere ez zuten izango. Hemengo artzai, arrantzale eta laborari tipiegandik ez bai zuten ezeren beharrik, mehatokiena izan ezin. Mehatokiak ordea, hemengo jendeak ez zituen aprobetxatzen, oso guti baizik.

XVI-XVII. mendeetako idazleak idatzi zuten euskaldunek erromatarrekin Ernio mendian izan zuten gudua, Batxiller Zaldibia (1560) eta Baltasar Etxaberen (1607) lanak lekuko. Baina historiagile serioek ez zieten jaramonik egin. Gure Iztuetak ordea, puztu zuen arazo hau, eta Juan Venancio Arakistainek kapitulo oso bat eskaini zion bere kondaira liburuan eta geroztik ez da izan euskaldunon buruetatik kentzerik. Azkenean Txirrita berak ere parte har-

tu zuen eta bertso borobilak bete zitu-  
tuen. Adolf Schulten-ek gai hori aski  
sakon aztertu zuen eta Santander eta  
Burgos alderago jarri zuen Kantabriako  
gudua, Los cántabros y astures y su  
guerra con Roma deritzan lanean.

Bestalde, argi dagoenez, aspalditik  
ezagutzen ziren Nafarroan eta Araban  
erromatarrek eraikitako hiriak. Nafa-  
rroako hiriburua, Iruñea eta Trespuen-  
tes-ko hiri hondarra ere Iruñea da. Za-  
lantzarik gabe, sustrai ber-bera du Iru-  
nek ere, Gipuzkoako hiri honen elizon-  
doan erromatarren bizi lekuak aurkitu  
bai dira eta bertako Santalen ermitan  
hilobiak. Orain argiago ikusten dugu  
erromatarren Oiarso-k Bidasoa eta  
Oihartzunekin duen kidetasuna, inguru  
hoien izentzat, Arditurriko meatokiak  
Irunen zen itsas-kaiari loturik.

Agirietan oinarritzen ez diren teoriak,  
maiz, horrela erortzen dira. Ixaka-ren  
garaiko uste haiek baztertu ziren eta  
Schulten-en iker lanen ondorean hor  
dugu Ignazio Barandiaranen arkeologi

lana, Guipúzcoa en la Edad Antigua. Protohistoria y romanización. (Donostian, 1973), gai honen azken frututzat.

Baina, goazen zuzenago Ixaka López-Mendizabal euskaltzale eta euskalari suharrak gure kulturaren alde eman zituen lan ugariak ikustera.

Ixakak egin zituen ikasketa mailak gogoan hartzera, zientzia ikerketarako gertaturik zegoela esango genuke eta hemen eman behar zituela bere lanerako ahaleginak. Baina, bai zera, iker lanetan oso guti ahalegindu zen gizona. Bere euskaltzaletasun garrak beste bide batetik eraman zuen. Hizkuntzaren alorra gorririk zegoela ohartu zen eta kultur biderako behar zituen oinarrizko lan xeheri heldu zion. Honek ez du esan nahi ikerketarik egin ez zuenik, baizik gehien gehiena, luberriko alorrak jorrazteari ekin ziola, itxuraz lanik arrunteak eskatzen zituzten sailetan aritu zela.

Liburu askoren egilea izatez aparte, euskal kulturako zein aldizkaritan ida-

tzi zuen baino errazagoa zaigu non ez zuen idatzi jakitea. Gure mende hontan oso aldizkari guti izanen bai dira, Ixakak, euskaraz edo erdaraz, bere zenbait lan argitara gabeak. Adibidez, ikusi besterik ez dago Jon Bilbaoren Eusko-Bibliographia-ren V. tomoko 215-216 orrialdeak. Bertatik ohartuko gara Ixakaren etengabeko langintzaz.

Euskaraz, haurren heziketarako pres-tatu zituen liburuak honako hauek dira: Aita Santu Amargarren Pio'ren do-triña laburra (1907), Zenbakiztia edo Arimetika (1913), Umearen Laguna (1920) eta irakurgai hontatik atera zuen irakurtzen ikasteko Martin Txilibitu (1931) deritzan liburutxoak, Xabierto (1925), Nekazaritza (1929), Seaska-Abestia (1932) eta Erleak, beren bizitza eta oiturak (1933). Liburu gu-ziok Tolosako bere inprimategian argi-taratu zituen eta geroztik, gehienok, zenbait aldiz argitaratuak izan dira.

Baita ere, Tolosako inprimategian atera zituen, euskara ikasteko metodo

hauek: *Manual de conversación castellano-euskera* (1908) eta *¿Quiere usted hablar en euskera?* (1932). Gainera, bigarren hau, M. Mendiskoren languntzaz frantsesera itzulia ere argitaratu zuen, *Voulez-vous parler le basque?* (Donibane-Lohitzun, 1938). Bestalde, Bilbon, *El Euskera. El idioma vasco* (1915) hitzaldia eta Tolosako beren etxean *Diccionario vasco-castellano, castellano-vasco* (1916), geroztik hainbeste aldiz argitaratuko zena eta gure egunotan, zerbait gehituta, oraindik salgai aurkituko duguna.

Mendearen lehen partetik 1936. urtera arte arduratu zen López-Mendizabal-darren inprimategiaren zuzendari eta euskarazko liburu asko argitaratu zituen; baina, gaur egun ikus daitekeenez, bere bizitzako lanik probetxugarriena, euskararentzat praktikoena, hezkuntzarako testugintzan eman zuen. Lan handiagoetarako ikasia bazen ere, euskaltzale kementsua zenez, beste inor baino lehen ohartu zen irakaskintzarako liburuen beharrez eta lan apal eta xehe hauei gogoz heldu zion. Honegatik, le-



hen aldiko ikastolak, gerra aurrekoak ez ezik, baita gerra ostekoak ere, hasierako materiala izan zuten bere emaitza horri esker. Baina, gai hontaz, nik baino argitasun zehatzagoak emango ditu gerraondoko ikastola mugimenduan hainbeste lan egin duen Karmele Esnal andereño adiskideak, ondorean agertuko digun hitzaldian.

Anaiarteko gudu madarikatu harek bere inprimategia deseginik eta bere burua erbesteturik ikusi zenean ere, kementsu jarraitu zuen euskal ikerketan eta euskararen alderako lanetan. Hainbeste aldizkaritan argitaratu zituen lanak eta Buenos Aires-en ireki zuen euskara erakusteko akademia ditugu lekuko. Baina, ez hori bakarrik, ez; liburu-gintzari ere jarraitu zion. Eta deserritua izan zen garaiko lanak ditugu honako hauek: *Otoitzak* (Buenos Aires, 1942), *La Lengua Vasca* (Buenos Aires, 1943). *Breve historia del País Vasco* (Buenos Aires, 1945), *El País Vasco. Descripción general* (Buenos Aires, 1946). Baita ere hitzaldien separatak, Argentinako

hiri nagusi hartan eman zituen hitzaldienak.

Hoietan badira *El idioma vasco contemporáneo de la época glacial* (1953) eta *El idioma vasco, testigo excepcional en la Historia* (1953) bezalako lanak, maitasunaren sentimentuz eginak baina gaur egun zientziaren aldetik onartu ezinak. Zeren hizkuntza, mintzaira zaluzat ulertu nahi baldin badugu, ezin gaitzke joan Eneolitos garaitik harat, eta, ordukoa gaur konprenitu ahal izatea ere, ezinezkoa zaigu. Agiririk aurkeztu ezin den garai hoiek hobe ditugu laga.

Aipatu ditugun lan guzti hoien ondotik, eta urte askotako langintza burutuz, 1958an argitaratu zuen Buenos Aires-en *Etimologías de apellidos vascos* lan mardula, 25.000 deituraren esan nahiak ikertzen dituen, bere larogei orrialdeetan.

Euskaltzaindia sortzean, 1919an, languntzaile izendatua izan zen. Urteak

aurrera, urgazle edo languntzaile izateko baino meritu gehiago zuen Ixakak, baina Azkue berak jartzen omen zituen oztopoak. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* (Bilbao-París, 1905-1906) deritzan hiztegi handia argitaratzean, bere hitzaurrean, geroago esku-hiztegi bat argitaratzean eskaintza egin zuen eta 1916an Ixakak argitaratu zuena plajiotzat hartu omen zuen.

Bi hiztegiok ikusten dituen laster ohartuko da zein desberdinak diren, batez ere kriterio desberdinez burutuak. Azkuek eskaintzen zuena, bere lan handiaren laburpena bai zen, eta Ixakak handik ezer hartu bazuen ere, hiztegi guzietan ohi den bezala, hizberri edo neologismoak ere pilaka sartu zituen eta hau ez zen Azkueren aburuzkoa. Egia da, garaiko giroak bultzaturik, bere hiztegia egiterakoan neologismo askorekin baliatu zela, baina hala ere, orduko gehienak baino neurri gehiagorekin ibili zen. Honegatik zioen Julio Urkixok *Manual de conversación...* aurkeztean: “La obra está admirablemente

presentada. Uno de los principales méritos del señor López-Mendizabal es el de haber sabido sustraer a las exageraciones de léxico de algunos de sus correigionarios, que tanto afean no pocas publicaciones modernas” (RIEV, t. II, 1908, p. 675). Dena dela, Azkuek seta-ti jarraitu zuen hil arteraino.

Nikolas Ormaetxea, gure “Orixe”, euskaltzain oso izendatzea pentsatu zenean, honek erantzun zuen, bera baino lehenago zela Ixaka López-Mendizabal, langintzaren aldetik meritu handiagoak zituenez, eta honentzat uzten zuela berari eskaintzen zitzaion aulkia. Eta, hara hor gerraondoko euskaltzainak kinka larrian nola aurkitu ziren. Orixe ere buru gogorra izaki eta amor ematerik ez zuen. Eta Orixeri esker, jarri zuen haziagatik, Euskaltzaindikoek erabakiren batera behartu zituen. Eta, 1957an, erabaki hau honela izan zen: Ixaka López-Mendizabal euskaltzain ohorezko izendatzea eta Orixe bera euskaltzain oso.

Baina egiaren argitara gauzak azaldu

beharrik baldin badugu, gaur egungo euskaldunok, ondo dakigu gauzak alde-  
rantziz direla eta ohorea Euskaltzaindia-  
rentzat izan zela Ixaka López-Mendiza-  
bal bezalako gizon bat bere erakundeko  
izateaz.

Gaur edonor egongo gara Norbert  
Tauer-ek 1954ean Ixakaren alde egin  
zuen aitopenarekin: “Neretzat zorion  
aundia da euskaldun argi onekin ogei  
urteen igarotzean alkar-idaztean egotea  
eta idazki ederren bidez ezagutu ditut  
bere biotz ona, adimen zorrotza eta  
Euskadi ta euskerarenganako maitasun  
sakona” (Bol. del Instituto Americano  
de Estudios Vascos, V, 1954, p. 38).

Denbora joanez, gure barneko tiki-  
miki hoiek txikikeriak iduritzen zaiz-  
kigu. Inoiz gizon handien artean ere iza-  
ten dira holako txikikeriak eta era hor-  
takoa izan zen gure Azkuerena ere.  
Gaur ordea, setakeria hoien gainetik  
ikusten dugu bi gizon hoien handitasu-  
na, bi gizon hoiek gure mende honen  
hasieratik egin zuten oinarrizko lana.

Eta hoiek jarritako oinarriei esker, gaur egun loratzen ari zaigu. Ereinaroak uztaroa lortzen bai du.

1957an euskaltzain ohorezko izendatu zenetik, Azkuek jarritako beto edo eragopideak gainditu ondorean, Ixaka zaharturik zegoen Euskaltzaindiari bere lanak eskaini ahal izateko. Handik lasterrera etorri zen sorterrira, itsuturik, bere azken egunak hemen igaro nahirik, Iparragirrek bezala, bere hezurak hemen uzteko.

Gutako askok bisitatu genuen Donostian Santxo “el Sabio” kaleko bizilekuan. Nik neuk orduan ezagutu nuen pertsonalki. Lan eder eta jakingarri bat ere eskaini zigun: “Etimología de Xabier” zeritzana eta EUSKERA aldizkarian argitaratu genuen (EUSKERA, XIII, 1968, 73-82 orr.) eta Euskaltzaindiaren urre-eztaiak ospatuz 1968ko abenduren 4an Iruñako Foru Diputazioan egin genuen batzar hartan mahai-burukide genuelarik “Erbesteetako euskaltzale eta euskalariak oroituz” ze-

ritzan hitzaldi polit bat eskaini zigun (argitara gabea).

Egia esan, jaun beneragarria zen Ixaka López-Mendizabalekin, Euskaltzaindia ez ezik, Euskal Herri guzia dugu zordun.

1977ko otsailaren 27an itzali zitzaigun Tolosan bertan, baina bere gogoaz ez zaigu itzali, bere lana hor dugu lekuko. Eta, arestian esan dudan bezala, Euskaltzaindiak bere ohorezko izendatu bazuen ere, ohorea Euskaltzaindiarentzat beretzat zen holako gizon bat bertako izatearekin.

Donostia, 1979-4-27  
Euskera, XXIV

(1) A. Villasantegandik gero jakin dudanez, La Lamatarren inprimategiaren jarraipenez sortu omen zen Mendizabaltarrena, elkarren ahaidekoak zirenez, eta hau hola delarik, XVIII. mendetik datorkigu, 1782-

tik bereziki, J. A. Mosquera eta Fr. Zubizarretaren *Guión Manual de Tipografía Vasco-Navarra* (Iruña, 1974), 56 orrialdean ikus daitekeenez.

## SALBATORE MITXELENA POETA EPIKOA

Krisis handi batetik erne nahirik eta erne ezinez sortutako poeta. Gerrate ondorenean eta euskal poesia sinbolistak bere oinarriak ondo errotu baino lehen izan zuen etenaren mugan.

Aurretik, Lizardi, gazterik joana, erromantikuen eta modernisten ondorean bide berriak, oso berriak eta oso bereak goi mailetaraino urratu zituen; eta Lauaxeta, gazteago joana, edo eramana, sinbolismo eskola hain txit ongi landu zuena eta sozial poemak lehen aldiz entsaiatu zituen. Zeren, sozial es-



kolarik ordura arte, herri poesiakoak soilki eta oso gutti arkituko ditugu, batez ere sozial kontzientzia heldu batekin, baizik gertaerak beren ondorioz emandako frutuak, frutu urriak. Baina Lauaxeta berarenak ere, behar bada, poesiaren eraberritze baten bultzadaz areago.

Giro hau arkitu zuen Salvatore Mitxelenak euskal poesiaren egoeran, Eta era berritzeeri ez zion gehiegirik begiratu. Hala ere, uste gabeen ere, bere gisara arituaz, berritzaile bat izan zen. Bere mendeko ekintza eta gertaeretan arkitu zituen gaiak, eta gaiok bere ideal bideetan abiatu. Ez dugu esan nahi bere aurretikoak haintzat hartu ez zituenik, baizik bere inguruko gertaera eta sentiereri loturik eta erantzuna eman nahirik jardun zala.

Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren beheratzea nabari zituen aurrez-aurre eta bere herri honen geroa galzorian, heriotzara bidean ikusten zuen eta egoera honek larri-mindu zuen

bere gaztaroa, eta berdin bere poemagintza.

Moldez, zer molde hobeagorik, epika kutsuz bere herriaren gainbehera nabarmena agertzeko eta salatzeke, herri beraren literaturan ehundaka urteetatik zetorkion iturburuzko emaitza baino? Beraz, bertsolaritzaren moldeetatik eratzten ditu bere poemak. Bera ere, euskaldun asko bezala, haurtzarotik bertsolari giroz inguratua zanez eta bapateko bertsoak egiteko ahalmena zuenez.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruan arkitzen zuen egoera latzak minberatzen du eta gogoa jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatzen da. Baina, hori bai, errealista, erralisku latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, Euskal Herria. Eta oinazezko kantak egin zituen.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, ba dute gordeleku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea. Hontatik sortu

ziren Arantzazu euskal-poema (1949) liburutik hasi eta Ama-Semeak Arantzazuko kondairan eta 20 Kanta Arantzazuko, bere gogoaren gordeleku, eta neurri batean, baitere geroagoko zenbait poema ere, ondorean adieraziko dugunez.

Lehen lan horiek, poetaren gogoan, dudarik gabe, barruragoko sentipenen adierazle dira, bere sufritzaren lagungarri, aterpe beharrak emandako ihesbide bat behar bada. Lan handiak; ezin ukatu. Baina hala ere, bere bizitzaren zati bat. Ez betegarrizkoa, baizik alde aurretiko adierazpen gisa, poema nagusi bati lotura osoa eman nahirik. Ez dut esango lan handiagoak, baizik jarraipena, ondorenean dator (behar bada, ez beretariko asko ondorenean idatziak, baizik ondorenean argitaratuak). Eta hauek ezagutzean konturatzen gara poetaren sentimen sakonez.

Arantzazu euskal-poema, poetaren barne-gogoan, erdizka, Arantzazuri eta Euskal Herriari egina da, orduko giroz

eta aldartez: “Euskal-Fedea, beratan, bidezti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke”. Eta kanta haiek:

Zuk zer dezu, Arantzazu!,  
ames-kabi, erti-leku?...  
Euskalerrria oso-osorik  
kantari dijoakizu.

Euskalerrri urrumatzu;  
zorionekoa bai zu!  
Negar egiten dakizulako  
miña abesti biur zaizu!!

Eta argiago oraindik poetak “Agur, Jesusen Ama...” izeneko kapituluan dioenez: “onako poema au ez dala iñorena, ez nerea. Baizik Erriarena!”. Bere ideal nahigabeen aterpea Arantzazun finkatzen du. Kontu izan, fedea emanen ziola justizi esperantza eta hamasei urte zituen zerez Arantzazun bertan igaro zuela gaztarorik gehiena. Geroago ere esan eragingo dio, Guruz bidea-n (1955): “Ona Arantzazu, euskal-Golgota!, euskal-Kalbario santu!” eta berdin Bizi nai poeman (1955, urte berean ar-

berean argitaratua) esaten duelarik:  
“Nornaik antzematen du, Arantzazuk  
eta Euskalerrriak bost mendeontan al-  
karrekin izan duten zorikidetza ta  
ar-emana”.

Etsipenak larri-mindurik, kezkatu-  
rik eta egonezinez nabari zen Arantzazu  
euskal-poema-ren une batzuetan, eta  
bere babeska eskaintzen zien, dirudienez,  
bere antzerako egoeran zeudeneri, ba-  
tez ere herbesteratuei:

Nora zoaz erromes  
orron, Euskalerrri?  
Ona Aizkorri'ko maldan  
zure Andra Mari!

Baina, ordurako, behar bada, bere  
erromes kezkak somatzen zituen. Ge-  
roago, Arraun ta Amets-en (1955-ean  
argitaratua hau ere) bere oroitzen eta  
bere sentipenen artean azaltzen zaigun  
erromes minezko kantak salatuko digu-  
ten bezala; etsipenezko minduraz bere  
herriari begira:

Gaberdi beltzean  
izarño bat eza  
bidazti galduak  
tamalgarri leza...

Eta antzerako aitorpenak agertzen dizkigu liburu honetan. Herriaren salbaiderako zerbait egin nahirik eta egin ezinik. Aldetzea erabaki zuen:

Lur ezaguna utzirik  
banoazu iraduz.  
Zurekin bat eginda  
nik atsedan, Yesus!

Idealetan goian arkitu arren ere, ondo ohartu zen herriaren sentipenez, edo hobeto esan, bera eta herria, bietarako gogozko lokarri bat bazuen; bere poema, egituraz, errealismu erakoa zen eta orduko gazteak ulertu zion. Gazteria harek ere bere gogoan bete beharra zuen eta "Zuk zer dezu, Arantzatu!"-k, deitzen oihartzuna zirudien. Sentipenezko oihartzun hari jaramon eta segi egin zion orduko gazteriak. Egarri bat ase nahirik edo. Ikusia dago, urte ilun

haietan, aterpe edo babes gogo batek indartu zituela orduko gazteen kongregazio elkarteak, maiz, fedea bera asetzeko haina, ihes bidetzat. Hala zen, zer bait behar hura. Eta, ondorioz, lasterkako beheratzea izan du. Baina hau ez da hain zuzen Salbatoreri zegokion problematika. Bere fedea sendoa zen, bere abertzaletasuna bezala. Berak, hortik, argi ikusten zuen bidea, are gehiago garai hartako gazteriaren joeraz. Eta bi gauza uztartu zituen poema gaian.

Ezin ukatuzkoa da berak ekarren gure olerkaritza era-berritzea. Moldez, errealismu bidezko herrikoitasunera bihurtu zuen. Zeren, beragandik aparte, urteak igaroaz ere Lizardi eta Lauaxetaren imitatzaile txarrak jarraituko zuten (banaka batzuek kendu ezker) liliak hegatsez apaintzen, oinak lurrean eta burua ilargian. Ezer probetxuzkorik eman gabe, gehienak behintzat. Horregatik, eskuko behatzekin kontatzeko haina apartaturik, bera izan zen gazte berrientzat gure literaturaren erlojua martxan ipini zuenetako bat.

Bertsolari grina zuen, eta grina honek ematen zion poema epikarako dohain berezia. Latza da, gizaldi hartako egoera bezala. Goxotasunik urri da fedezko estalpe hortatik aparte. Maiz, euskal-sinismenaren poema nagusia balitz bezala idurituko zaigu. Euskaldunok munduaren laguntza gabe, desanparaturik, sinismena zala estalpe bakarra.

Unamuno zale zen, eta berak honegandik aukeratu zituen hitz batzuek aurkituko ditugu bere poemaren funtsaren giltzia balira bezala, Guruz bidearen hasieran hitzok bere egiten dituelarik: "Un miserere cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía" (Del Sentimiento trágico de la vida). Hitz hauetako iritzia, esango nuke, bere barne-gogoan iltzatua zuela S. Mitxele-nak, eta gure guruz bidean kargarik astunenetakoa hartu zuen bere kontzientziaren gain eta larri-minez bizi izan zuen bere gaztaroa. Eta, herri ororen pekatu honek nahigabeturik urrunduzuen, esanaz:



Ai urruti-miña!  
gaitz senda-eziña,  
baiñan ala ere  
ondo atsegiña,  
euskal kondaira doa  
aintziña ta aintziña.  
Egonak pozik ez du!  
Boga alegiña!

Etsi ezinez, dana eman nahirik ibili zena.

Euskal poesiarentzako ez zen izan hura unerik egokiena, eta Salbatorek bazuen meriturik aski orduko egoeratik hain goi mailetara igotzeaz. Honekin ez dut esan nahi ordukoa eremu soila zenik, ez; baziren banaka bat, eta batez ere ba zen Frantzia aldetik altxa zen ipar haizea, gure alorrak freskatuaz arnasa berritzea ekarriko zuena. Bi poeta handi ziren gure literaturaren kondairan poemagintzaren berbiztzaile geldituko direnak: Mirande eta Iratzeder. Geroko gazte berriak, gudu ondoreneko gizaldikoak, horiek ereindako hazietatik eman dituzte beren frutuak.

Batez ere, Euzko-gogoa-n argitara zuen Bizi nai poema dugu gure artean egin denak epikarik gailenetako bat. Batera samar eman zituen lan haiek urte askoren frutuak ziren. Poema bizkorra eta eraginkorra. Baina lastima hemen behar bezala ezagutua ez izatea. Ez bait zen zabalkundea eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta herriak bere lozorroan iraun zuen. Gogo egarriak eleizan soilik asez eta materiak bere egarriak ahal zuenak ahal zuen erara lanarekin, korrika, makinaren zerbitsuko, ahal den diru guztia pilatzeko. Ez zen arritzekoa ondorengo gazteek beste era batean erantzutea.

Salbatorek, tunel batean sartuta bezala arkitu zuen bere burua, eta bere poesia epikoa, teknikaz eta formaz aski herrikoia izan arren, ilunpean gelditu zen; bere mensajerik ez zuen jaso ez orduko poeta gazteak eta are gutxiago herriak. Behar bada Arantzazun sortu zuen eskola, eta eskola hontako emaitzaren ondorioak aski ezagunak ditugu. Eskola ttipia baina gihartsua, oinarri

onetan finkatua. Bere lagun Alustiza, bere ikasle Gandiaga, eta honela, aldatuaz, berrituaz, mailaz maila kate fin bat, Jakin-en egileak edo eragileak eta Joxe Azurmendi poeta handiaren arte-rainokoa. Salvatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski. Jakina, poetak ere, bere giroa arkitu zuen, euskaltzale giro sendoa bere inguruan, zorionez gainera euskal historia eta euskal kultura ondo ezagutzen zuten lagunekin, eta ideologia aldetik era askotakoak izanik gainera. Eta bere barnetikako suan ere honek esan eragin zion Bizi nai poeman: “Euskalerra leenago, barruko edozein alderdi baiño”. Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Bere ingurua girotzen zutenen arteko izen asko eman gindezke, baina aspergarri ez egiteko eta batzuekin huts ez egiteko izenok isildu beharra ba dut ere, gutxi batzuek bederen eman beharra dut, horiek gabe ez delako hain errez Salvatoreren ekintza konprenitzea, eta horien arteko ditugu Omae-

txebarria, Agirretxe, Anasagasti, Villasante eta abar, Euskal Herriak gure mendean izan duen unerik larrienetan hain gartsuki lan egin zutenak. Horiek ba dute zer ikusirik Salvatoreren poemekin.

Ez dut hemen poema horien xehetasunetan sartzerik. Bakoitzak bere aldetik aurkitzea du hoberena, bere lanetan txastatuz. Arantzazu euskal-poema-n aintzinako mendeetatik gurera arte, erlijioz eta bakez batez ere, Euskal Herriari babes eskaintza bezala da; Arraun eta Amets, larri minezko egonezinak erromes girotua; eta Bizi nai, karlisten gerratetik hasi eta azkenengoraino. Poema orokor bat funtsean, gainerako zenbait poematxo atalka eman zituenen bezala. Berekin, poeta epikorik hoberenetakotzat geldituko da geroan, garaiko egoeraren kontrea gora behera, eta kontra honegatik bere dohainak posible ziren neurrira heldu ez ba ziren ere.

Unamuno ta abendats (1958), bere azken lana, aurretikoekin lotura gabe-

koa itxuran, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barne problematikaren eboluzioa arkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz bertsoz idatzi zuen, bertso librez gehien gehiena, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, Unamuno ta gu izenez, eta unki garriagoa iduritu zitzaidan. Gainera, bertso librez, gure artean lehenengoetako poema bat zen. Bere taxura Unamuno ta abendats-en azken orrietan arkitu genezake.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaigun, herbesteetara erromes. Berak nahi ez zuen bohemian, bere lur epeletik urruti, arrotz lur hotzetan hezurak utzi arte. Gure literatura ttipian bederen, izan dezala ohorezko maila, ongi merezia.

Jakin sorta, 2. zenb. 1970

AGUSTIN PASCUAL ITURRIAGA  
EUSKARAREN ERAIKITZAILEA

Jaun andreak:

Nere aurretik mintzatu diren bi hizlariok ederki agertu dituzte Iturriagaren bizitza eta bere literaturagintzari buruzkoa, nik agertu nezakean baino hobetoago. Eguneko gaiak honela banatu baditugu ere, ez gara ahaztuko pertsonaje honi buruz dakigunik gehiena J. Manterola, K. Etxegaray, G. Mujika, A. Zugasti, Y. Etxaide eta batez ere Fr. Jose Inazio Lasari zor diogula, honek Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-ko Boletínean argitaratu zituen

lanak lekuko (1).

Hala ere, bere bizitza ta lanetan badi-  
ra zenbait puntu oraindik argiro jarri  
gabeak eta lehenik hauetaz ohar batzuk  
eginen ditut, euskararen eraikitzaileaz  
aparte.

1.— Bizitza eta laneri buruzko ohar  
batzuk:

Etzi beteko dira berrehun urte eus-  
kaltzale borrokatu hau Hernaniko hiri  
hontan sortu zela, eta Lasa jaunaren la-  
netatik badakigu bere lehen bi deiturak  
Pascual eta Ugalde zituela, baina bere  
hirugarrena erabili zuela, Iturriaga, edo  
Pascual Iturriaga. Eta hoiekin ezagutu  
ditugu, bai bera eta bai bere anaia.

Bere sorterri honetan egin zituen le-  
hen ikastaroak, gero Oñatiko Unibertsia-  
tatean osatzeko, eta behar bada baita  
Iruñean ere.

26 urterako apez egin zen. Baina be-  
re bizitzaren zehar eraman zuen ekintza  
nagusia, urterik gehienak ere bai, bere

sorterri hontan gazteen heziketazkoa izan zen. Ez nolana hiko hezitzaile, ez. Irakaskintzari buruzko bere ideiak, pedagogia aldetik, garai hartarako aski aurreratuak omen ziren, eta honegatik edo, etsaiak izan zituen, enziklopedistatzat ez ezik Voltaire zaletzat ere salatua izan zen, Fausto Arozenak aurkitu zituen agiriak lekuko (2). Baina, hala ere, probintziako eliz eta politiku agintarien gutunak ez dute holakorik agertzen, eta bai laudoriorik aski, irakasle zen aldetik. Ideien aldetik aski independente agertu omen zen, baina liberal batzuekin oso adiskide zenez herbestera beharrezan aurkitu zen, lehen karlisten gerrate hartan.

Eragozpen hauek gora behera, bere herria eta herri erakundeak maite zituen eta hauen alderako ideiak garbi agertu zituen "Gipuzkoarrak" zeritzan bertsoetan.

Ohore handia irabazi zuen 1818. urte inguruan hemen bertan, Hernanin, ja-ri zuen ikastetxeaz. Gipuzkoatik ez



ezik Nafarroatik ere ikasle asko bilduz bere babespeko irakaskintza haietara.

Pascual Iturriagak asko zekien, baina batez ere maisutarako dohain bereziak zituen. Dohain hoiegatik goragoko mailetara jo ezinik ez omen zuen; baina bere jaioterria maite zuenez, hemen irakatsi nahi zuen. Eta hemen bertan, beti edo gehienez, maisu lanean aritu izan zen.

Arkangoitzeko markes jaunak Milafrangan zuen Larralde gazteluan igaro zituen herbesteratutako urteak, 1839tik 1840ra. Eta bertan berriro zituen ipuien atal batzuk eta etxe hartan idatzi zituen Jolasak.

Fausto Arozenak Brumas de nuestra historia-ko orrialde haietan zioenez, nola zitekean Voltaire eta Enziklopedia zale izatea, San Inazioren martxaren egilea izanik.

San Inazioren martxaren egilea zen uste hau maiz erabilia da, eta oraindik

ere erabiltzen dena, Ipuiak libururaren azken partean agertzen delako edo nonbait. Baina, otoi, Ipuiak (3) 1842an argitaratu zela eta Iztuetak Soñu gogoangarriak (4) zeritzan liburuan hamasei urte lehenago argitaratua zuela mar-txa honen doinua. Izatekotan ere, letra izan daiteke Pascual Iturriagarena. Ze-ren 1840ko abuztuaren 7an Iturriagak Iztuetari egin zion gutun baten hara zer zioen: “Va una espata dantza descriptiva de ella, y una marcha de San Ignacio. Siendo éste bascongado, la marcha se cantaba en castellano, lo que parecía ridículo”. Hola dakar Jose Garmendiak Obras inéditas de Iztueta deritzan li-buruan (5).

Elkarren artean izan zituzten gutun horietatik badakigu Iturriagaren zenbait ipuin Iztuetak euskaraz jarriak zirela eta beste batzuk bere zuzenketaz, liburu hortako gutunak diotenez (6), eta behar bada honegatik uste du J. Gar-mendiak letra ere Iztuetarena izan dai-tekeela (7). Baina nik ez nuke horrebes-te esango. Gutuneko esakun horrek Itu-

rriaga jartzen du letraren egile, zeren Iztuetak 1826an doinua soilik argitaratu zuen eta Iturriagak gutunean aitortzen duenez erdaraz kantatzen omen zen eta honegatik jarri zuela euskaraz. Beste agiririk agertzen ez den artean, uste hutsa izanen da.

Juan Inazio Iztuetarekiko harremana Iturriagaren aberasgarri izan zen. Iturriaga berandu arduratu zen euskararekin. Badirudi irakaskintzako esperientziak beharturik hasi zela; pedagogiazko hutsune nabarmena aurkitu bai zuen haur euskaldunen heziketan, euskaldun izanik erdaraz eskolatzea nahi zelako. Hortaz ohartu zenerako, gure mintzaira moteldua zuen nonbait, Iztuetari idatzi zizkion lehen gutunetan nabari denez. Lehen gutun haiek euskaraz egin zizkion, praktikatze aldera nonbait, baina azkenak gazteleraz daude. Euskarazkoak, Garmendiak dioenez, 1838. urtea baino lehenagokoak dira. Hola delarik, Frantzia aldera joan aurretikoak. Horietako batean hara zer zioen: “Nola

guc ez degun icasi eusquera gueren gaste demboran, icasi izan genezaquean (...)la lan andiari narraizquio, esagutsen det ceren itz bacoitcian diccionarioa escuan artubear, baña uste det irtengo naicela nolarebait sasitic, eta bear bada gure ondorenguc, gure lana dala bitarte, euscaldun ede(...) ateraco dira. Ala guertatuco dalaco esperanzarequin (.....) errastuco da, eta oraindic postuco naiz. Ona nere saria, eta ez det besteric nai”. Baita ere, beste batean: “Eraqueria da uste izatea iscuntza bat bestea baño gaitzagoa dala. Eusquerac ez du beste cer esanic autsez betea beti vici izatea besteric. Zurdapilla onac arrapatu du eta astiñ aldi ona emango dio. Guero besteren batzuec demborarequin arguitaguic igortcico dute eta polituco”. (8).

Esaldi horien geroztiko frutuak dira: *Arte de aprender a hablar la lengua castellana* (9), *Jolasak* (10) eta arestian aipatu dutan *Ipuiak*. Guziok erdarazko izenburuz emanak.

## 2.—Asmoak eta hauen sortze ingurua:

Ideiak nekez sortzen dira bat batean. Hauek, inguruak eraginik edo giroturik etortzen dira, eta horrela izan ziren Iturriaga eraikitzailearenak ere. Irakaskintza aurkitu zuen premiak eraginik alde batetik, baina bere antzerako asmoak, behar bada, lehenagotik nabarituak ziztuelako. Oroi, beste maisu bat ere bazela, Luis Astigarraga, Iztuetaren adinekoa, Iturriaga bera baino hamaika urte zaharragoa. L. Astigarraga honek *Diccio-nacio manual bascongado y castellano y elementos de gramática* (Tolosa, 1825) argitaratu bai zuen. Beraz, Iturriagaren *Arte de aprender a hablar la lengua castellana* baino hamasei urte lehenago inprimatua. Gainera, libururaren atarian agertzen denez “miembro de la Sociedad de Instrucción elemental de París” zenez, pentsatzekoa da mundu zabalean ziren aburuen berri zekiela.

Astigarraga berak ere Iztuetakin harremanak zituen gainera, eta 1840an bere liburuaren hirugarren argitaratzea

prestatzen ari zelarik — gehigarritz argitaratu zuena —, bere eskuizkribuak zaldibiarrari utzi zizkion orraztapena eman zezan (11).

Bere Diccionario manual horren hitzaurrean, euskararen gramatika eta gaztelerarena eskoletan irakasteaz mintzatzen da, haurrak eskola ikasteko beharrezkotzat. Honetarako egin zuen bere hiztegitxo eta metodoa. Baina, are gehiago, Martial-en esaldi hura, *Vox diversa sonat, populorum est vox tamen una*, eredu bezala bere erabiliaz, honela dio bere liburutxoaren hitzaurrean: “También podrán imprimirse algunas fábulas, modelos de cartas y diálogos que tengo trabajados en ambos idiomas, los cuales servirán de grande auxilio á los bascongados para ir aprendiendo bien el castellano, el latín y cualquiera lengua estrangera, pues todas ellas estan sujetas como la castellana y latina, a las reglas invariables de la gramática general”.

A. Pascual Iturriagak, *Jolasak* deri-

tzan liburuaren hitzaurrean beste honako hau esango digu: “Es muy de extrañar que siendo el romance la lengua de nuestro gobierno, y estando los Señores maestros de primeras letras encargados de enseñárselo a sus discípulos, por sernos a los bascongados necesario e indispensable a unos, útil a otros y conveniente a todos, no se hayan proporcionado medios auxiliares que faciliten su enseñanza. Sin embargo, son estos tanto más necesarios cuanto que el genio del romance es diametralmente opuesto del bascuence. Con la idea pues de ocurrir a esta necesidad, se han compuesto dos libritos titulados el uno “Arte de aprender a hablar la lengua castellana, para uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa”. Y el otro “Diálogos basco-castellanos, para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa”. El primero viene a ser una gramática fraseológica, que contiene sobre setecientas frases familiares, y el segundo una colección de diálogos basco-castellanos tan agradables como instructivos. Su lectura diaria los grabará bien pron-

to en la memoria de los chicos, y pondrá a estos en disposición de empezar a hablar en castellano sin la ridícula jerigonza a que dan origen la falta de voces y la diferencia de la sintáxis de una y otra lengua”.

Gaurko problemak ordea, beste era batekoak dira. Horiek, euskaltzale izanik, beren asmorik onenez egin zituzten euskararen bidez gaztelera ondo ikasteko metodoak. Gaur, gaztelera itota bizi gara, eta euskara salbatuko badugu, alderantziz, gaztelera bidez euskara ikasteko metodoak behar ditugu Euskal Herriko eskoletan.

Iturriagak eta Astigarragak, erarik errazenean burutu zituzten beren lanok, eta gaur egun ere, oinarrizko euskararen metodoa egin nahi dutenek, kontuan hartu behar dituzte horiek bere metodorako erabili zituzten hitz eta aditz ahalik errazena hautatuaz, mailaz maila joateko.

Irakaskintza lanak, pedagogiak berak



eskatzen zuen araura arduratuz heldu zitzaien bieri euskara gramatikaz irakasteko premia. Urterik ez daroan gutun batean, Iturriagak, honela idatzi zion Iztuetari: “Orain dala saspī urte hume-choaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nubēn cer eraqueria andia eguiten zan emengo escoletan erderaz gaztiai iracurtcen eracustearequin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea. Nere paperaren artean bear det izan abece bat eusqueras eta erderas iracurtcen eracusteco eguin nueva. Egunen batean biralduco diot uste det erraslitequean gustia errastua daducadala humetazuneco lanbide andi samintasunez bete, negarreragingarri au.

“Ala bada, iduritcen zat eusquerasco liburuetan bear litzaqueala gure escoletan eracutsi iracurtcen erderascoetan asi bañō leen. Erras litzaque liburūcho bat eguiten onetaraco gausac chit ones be-  
tea. Icasico litusteque gasteac, cergatic isquidatuco litustequean, eta argatic beragan iracurricō liteque gogoz.

“Beti naigabe andi batequin ecusten ditut gure mutilchoac iracurtcen erderasco liburuac, monjac latinescoac becela, cer iracurtcen duten ezdaquitela, eta adinic onena ecer icasi gabe iragotcen zaiotela. Astaqueria andia arantzas betericoaco bidetic sasi mendira eramatia, loresco bide zabal ederrtic fruta gozos betericoaco baratzara eraman bearrean.

“Artuco litzaque cein antzera dauden oraindic lecu gucietan eracastearen gañian. Nola errasago baitan paperac izcuntza ederres betetce escribus aurraquin jardutea baño; nola aurraquin jarduteco ifiñiak daudenac gueienac buruac utzac baititusten, emendic datos ain guchi aurreratcea lan valioso onetan”.

Lehenagoko euskaltzale zaharren usteak ez zituen gogoko, Garibai, Etxabe, Poza eta haiegandik heldu zitzaigun iritzien kontra irtengo zen. Euskarari buruzko laudorioak, hizkuntzarik jatorrena, garbiena... eta bitartean euskara galduaz, heriotzara bidean. Berak nahiago

zuen Larramendiren jakintza bideetatik baino lan errazen bidez euskara eskolertara eramatea, haurrei gramatika irakatsiz, gaztelera ere ondo ikas zezaten, erarik pragmatikoenean euskararen salbamena aurkitzeko.

Hoiek ziren hernaniar jatorraren asmoak, bere bertso batean ezarri zuen bezala:

Nere Euskal-Erriko  
gazteri ederra,  
ez det uste derala  
egin lan alferrea,  
ipuiak ifintzean  
gure zortzikoan,  
kantatzeko, nai bada,  
arturik gogoan.  
Badirade latinez,  
badira erderaz;  
ez al ditugu bear  
guk ere euskeraz?

Ipuien eskaintzazko bertso honek gidatzen zuen bere gogoan.

### 3.— Helburuak:

Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu. Iturriagaren aburu horiek ezagutu ondorean, pentsa genezake horien araberez markatuko zuela irakaskintzarako helburua.

Mugazandiko euskaldunekin, gaur egun behar bada, ez dugu egoera berdina izanen. Baina, hala ere, gure artean behininpehin, lehengo ajeak nabari. Iz-tuetari egin zion gutun batean, Lecluseren hiztegiari buruz idatziz, hau esaten zion: “Ez naiz ni arritcen ecusiaz beroi aurreratu zaiotela lan onetan, ceren mendiaz ango aldetic errasac diran gausac guretzat anis gaitzac dira. An jaquin nai asco, emen guchi, an aberatz milla emengo baten lecuan; oni deritza deza- quenac badezaque”.

Baina, irakaskintzarako Iturriagak egin zuen bultzadarik handienetako bat 1830. urteko ekainean Arrasaten izan ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak eman zuen onartzea izan zen, industria,

merkatalgoa eta euskara bultzatzeko Diputazioan batzorde languntzaile bat sortzeko, lehenagotik zetorren asmo hura egintza bidean jartzera zihoazen, baina lehen karlisten gerratea sortzeaz plangintzok bertan behera gelditu ziren (12).

Aita Lasak argitaratu zuen "Memoria" hura ezagutu beharrezkoa da Iturriagak euskara eskoletan sartzear zituena asmoak jakiteko. Gainera, hor ikusten da politikaren jokaerak, onerako edo txarrerako, zer ikustekorik duen hizkuntza baten etorkizunez. Gaur egun bizi garen bide gurutze hontatik, batek badaki zer ekarriko digun etorkizunak. Une hau ez da txarra, behar bezala aprobeztatzen bageneki. Baina politikaz beti ere hain izan gara ergelak, ez dakit berriz ere Iturriagaren alegiatako belea bezala ez ote garen geldituko, harrotasunez beterik eta gaztarik gabe. Zeren, politika mugimenduak bizkortzeaz kultur ekintzak urritu zaizkigu. Geroko esperantzan nonbait. Baina ni bildur naiz Euskadi hitza maiz erabil-

tzen dutenekin, ez ote garen euskalduntasunik gabeko Euskal Herri batean eroriko.

Mondragoeko Batzar hartan Pascual Iturriagaren plangintza bat aurkeztu zen. Bertan ederki dioenez, zer axola zaigu gure hizkuntza laudorioz betetzea, handitasunetan harroturik, euskaraz ez irakurtzen eta ez idazten eta ezta ere esakunak elkarri lotzen ondo ez bada-kigu. Azken batean, gure harrotasunak ez dute ezertarako balio, eta alegietako belearen oroitza zekarren, buru harro eta gaztarik gabe. Iturriagak, lehen mailako eskolen egoera salatzen zuen, pedagogia egoki bat eramaten ez zelarik haurrak ezer ikasi ezinez eta beti zigorpean, eta bitartean euskara gainbehera-ka. Salatzen zituen bere garai hartako metodoak, zigorrez erabiltzen ziren eraztunak eta guzi horren bidez zeto-rren hizkuntzaren galera. Bide horiek utziaz, iduritzen zitzaion, hobe zela gaztelerari atea ideki, lehen mailetan euskara beronen gramatikaz irakatsi eta, gero, era berean, gaztelera. Bi hizkun-tzak elkartasunean bizi ahal izateko.

Esan beharrik ez dago, Iturriagak, euskaldunok euskara erabiltzea predikatzen zuela, gaztelera bera ere ahalik onduen jakinarren.

Ideia horiek zituen helburutzat, eta helburuok bideratzeko gertatu zituen, hain zuzen, *Arte de aprender a hablar la lengua castellana* eta *Jolasak*. Lehen-dabizikoarekin gramatikaz jabetzeko eta bigarrenarekin gauzak ikasteko, bi hizkuntzen artean konparaketak eginaz. Gero, horien osagarri, garai hartan modan jarria zen literatura mota, alegiak, irakurgaitzat eskainduaz. Hiru liburuon helburu bakarra, irakaskintza zen. Irakaskintza, euskara eskoletan erakunde gisa antolatuaz. Hizkuntzari bere prestigioa, bere babesa eta kultur maila egozia emateko. Hortatik hasiaz iraunaraziko zioten gure hizkuntzari, hizkuntza normal eta kulturadun bezala. Helburuok ez ziren bete ahal izan, eta belau-naldi batetik bestera gutituaz eta pikortuaz heldu zaigu gure mintzaira.

Orduko egoera indartsuago zen, eta

honegatik espero zuen biak jakitea elkarren lagungarri zela. Ordurako, garai haietarako esan beharrik ez dago, ideia aurreratuak zirela. Gaur ordea, alderantzizko jokaera behar genuke.

Nekeak burutzeak ez zuen bildurtzen gure gizona, eta bere zintzotasunaren adiarazpenez, honako esaldi hau gogoraziko dugu: “Nik nere aldetik izan det nere barrengo gozotasuna ezerkin ere pagatzen eta saritzen ez dana, ongi egindako poz ezti beaunik batere gabe-koa”.

Baina, bestelako ikasbiderik ere badugu bere esaldietan, eta gogoan har dezagun hark zioena: “Berotasunek eta errabiak ez dute beñere gauza iraunkorrik egiten”. Honegatik, berak bezala, guk ere, egin dezagun euskararentzat plangintza sakon bat, luzarora begira, gure mintzaira zaharra Euskal Herriko seme guzien ahoetara itzularazteko. Pascual Iturriaga berarekin batean esan dezagun: “Esperantzak gizona bizi du, ken bekio esperantza eta da kriaturarik kupigarriena”.



Ideiak hor daude, gure hizkuntzaren historia ezagutu dezagun. Baina, gaur oster, metodo hori horrela ezingo genuke erabili. Hobeto esan, erabili beharrik ere ez dugu, ikasgaitzat izan ezik. Zeren, orduko hura, azken batean, gazteleraren zerbitsupean jartzea bai zen. Baina, gaur, Euskal Herriko semeentzat dauden eragozpenak oso bestalderakoak dira. Erdarak ez du ezertariko oztoporik eta euskara dugu elbarri, eta euskara ikasteak ditu eragozpenak.

Badakigu, euskaldun garenok beharrezkoa dugula beste hizkuntza handiago bat jakitea; baina, gure gizarteak eskatzen duenez, elkartasun onean biziko bagara, lehenbait lehen euskarak ere eskoletara sartzeko eskubide osoa behar du, legezko den bezala, bertako seme guzietan irakasteko eran. Orain euskarak behar ditu lehen erdarak zituen begira-menak. Honetarako baliagarriak ditugu P. Iturriagaren teoriak, alderantziz jarriaz. Eta, honela beteko litzake herna-

niar gogoangarriaren nahia eta gure herrian hain bete beharrezko hutsune nabarmen bezain lotsagarria. Euskara denez gure nortasunaren oinarri. Ez baita herririk hizkuntzarik gabe.

Bukatzeko, herri honek bere semearen oroitzapena gorde dezan, hemen diren agintariei eskaritxo bat egingo nioke: beren aldetik Ministerio de Educación delakoari eska dezatela, herritar honen ohorez, bertako Institutoari Pascual Iturriaga izena jartzea.

Hernani, 1978-I-29  
Euskera, XXIII

## OHARRAK:

- (1) Bol. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, XX (1964), 435/453 orrialdeak; XXI (1965), 185/196 orr.; XXIII (1967), 37/44 orr.
- (2) Brumas de nuestra historia (Donostia, 1952), 96/99 orr.
- (3) Ipuiak deritzan liburuaren lehen argitalpenak Fábulas y otras composiciones en verso bascongado zerman izenburutzat. Donostian argitaratu zen 1842an. Tolosan 1884an izan zuen birargitaratzean jarri zitzaion Ipuiac eta beste moldaera batzuec. Azken argitalpena, Auspoa Liburutegiak 1967an.
- (4) Iztueta, Euscaldun anciña ancincta are lendabico etorquien Dantza on iritci pozcarri gaitzic gabecoen Soñu gogoangarriac beren itz neurtu edo versoaquin (Donostia, 1826). Bertako 45. doinua da San Inazio-ren martxa.
- (5) J. Garmendia Arruabarrena, Obras inéditas de Iztueta (Bilbo, 1968), 190 orr.
- (6) J. Garmendia Arruabarrena, Obras inéditas de Iztueta (Bilbo, 1968), 183 orr.
- (7) J. Garmendia, "Sobre la letra de la marcha de San Ignacio". El Diario Vasco. Donostia, 1971-VII-30.
- (8) J. Garmendia, Aipatutako lanean, 171 eta 182 orr.
- (9) Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa (Ernani, 1841).
- (10) Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa (Ernani, 1842). Azken argitalpena Auspoa Liburutegiak 1963an egina.
- (11) J. Garmendia, Aipatutako liburuan, 199/201 orr.
- (12) Bederatzigarren argitalpenetik jasoa da. Luis Astigarraga, Diccionario manual bascongado y castellano, y elementos de gramática. Novena edición. Tolosa. Imp. E. López, 1881, p. VIII.
- (13) Jolasak. (Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1963), 21/22 orr.
- (14) J. Garmendia, Aipatutako liburuan, 179/180 orr.
- (15) J. Garmendia, Aipatutako liburuan, 178/179 orr.
- (16) Fr. J. I. Lasa, "Iturriaga, adelantado de las artes pedagógicas sobre el vascuence". Bol. R.S.V. de los Amigos del País, XXI (1965), 185 orr.

TORIBIO IRIONDO  
ELGOIBARTARRA (1848-1922),  
“OGI ZERUTIK” ETA BESTE  
ZENBAIT KANTAREN EGILEA.

Herri-kantak, dudarik gabe, noizbait egileren bat izan zuten, hoiien izenen arraztoa galdurik eta maiz ahoz-aho zenbait era aldaturik etorri bazaizkigu ere. Herri-kantatzat ezagutzen dugu gaur egun “Ogi zerutik” ere. Hala dakar behintzat Gora Jainkoa! izeneko elizkantadun liburutxoak (1). Azken orrialdeetako eraskinean, egilea behar duen tokian, “Errikoia” jartzen du.

Baina nere txosten honetan egilearen

berri eman nahi nuke, eta era berean egile beraren lan batzuen berri ere bai, bere nortasunaren adiarazgarri.

Hain hedatua aurkitzen den kantaren egilea, Toribio Franzisko Iriondo Sasiain apaiza dugu. Elgoibarren jaioa 1848ko apirilaren 16an, eta 1922ko irailaren 19an hila, bere sorterrian apaiz zela.

“Ogi zerutik” eliz-kanta politaren egilea den berri Aita Franziskotar batek ematen digu bere liburuan. Liburu hau, Lore sorta edo San Franziskoren 3.en Ordenako erregla, Tolosan argitaratu zen 1900ean (2), eta 241 orrialdean, kantaren aurrean hara zer jartzen duen, hitzez-hitz: “Komunio jeneraletan erri guziak kantatzeko berso eta musika polit auek D. Toribio Iriondo Apaizak atereak dira”. Ondorean “Ogi zerutik” kanta osoa ematen du. Kanta osoa diot, errepikatzeko erabiltzen den laukotik aparte hamabi bertso dituelako. Hoietatik, aspalditik lau erabiltzen ziren eta Gora Jainkoa!-k hiru besterik ez ditu.

Baina Aita Franziskotarrarena baino lehenagoko liburuxka bat ezagutzen dut, egilearen izenik gabe argitaratua, Misio Santubetaraco Jesus gure Jaunari eta Ama Birjiñari cantubac (3) tituluduna, eta 11/13 orrialdeetan dator nik ezagutzen dudan “Ogi zerutik” zaharrena, musika ere azken partean daroana. Behar bada, liburuxka hau, T. Iriondo berarena da, zeren bertan agertzen den “Billeraco alabac” izeneko kanta ere berea bai da, geroago, 1904an bere Maria Becaturic gabe contzebituari (4) izeneko lanean berarena bezala azaltzen bait da. Gainera, joan zen mendearen bukaeretako garai hartan, Gipuzkoako Alegin erretore zela, egilearen izenik gabe aurkitzen den liburuxka hori baino lehen, beste bi argitaratu zituen bere izenean Tolosako Gurrutxagaren moldiztegian: Misterioric aundienen oroi-pengarri chiquia, 15 orrialdekoa 1889an eta San Juan Bautistaren bederatzi-urrena, 29 orrialdekoa 1892an. Hauek, nik neuk ez ditut ikusi.

Hoiez gainera, Patrizio Orkaiztegi-

kin batean, 1881ean, Jesus eta Maria-ren billeracoentzat itz neurtuac (5), eta 1904an Aita Gaspar Astete-ren dotrina, gipuzkeraz.

1893an, egile izen gabe argitaratuan, eta 1900eko Aita Misionari Franziskotarrarenean, bi liburuetan, arestian esan dudan bezala, lehen errepika bertsoa eta beste hamabik osatzen dute kanta. Geroago, Pedro Migel Urruzunok euskaratutako Aita Baudran-en Zeruko Argiya edo! ondo pentsatu! liburua eraskinean (6) lehen lau bertsoak besterik ez datoz. Baina liburu honetan ere, "Billeraco alabac" izenekoa berriz argitaratzen da.

Jesusen Lagundiko A. Kandido Basaberen Eleiz-liburuchua-ren 1912.eko edizioak, Bilbon argitaratuak, latin eta euskarazko eliz-kanten eraskin eder bat du, beste norbaitek gehitua, eta 173. orrialdean lehenengo hiru bertsoak bakarrik ditu, bizkaieraz jarriak, egile izenik gabe.

Hain zabaldua den “Ogi zerutik” kantaren egilea izateaz aparte, Tolosan argitaratu ziren bi libururen egilea ere badela ikusten dugu, Orkaiztegiarekin elkar lanean egindakoaz aparte. Baina, zer gehiago? Hara hemen beste idazlan batzuen adibideak:

Aita Onaindiaren Milla Euskal-olerki eder (7) liburuarren 416. orrialdean begiratzeko badugu, “Andre guzien artean bedeinkatuari” eta “Birjiña Mariari” izeneko poesi-kantak aurkituko ditugu. Aita Onaindia berak, Euskal Literaturaren hirugarren tomoan (8), T. Iriondoaren lanen zenbait berrirekin batean “Billa joan eta gabe etorri” deritzaion hitz-lauzko lana ematen du. Jon Bilbaoren Eusko Bibliographia-ren laugarren liburuan (9) gure Iriondo honen lan batzuen berri ematen du: aipatutako bi liburuxkak, 1881etik 1912ra bitartean “Euskal Erria” aldizkarian argitaratu zituen poesien berri, gehienak erlijio gaiak, 1897an “Euskaltzale”n eta 1922an “Arantzazu” aldizkarietan ere bai. 1899, “Euskaltzale”n Irisasi izenordea erabili



zuen (10), eta Aita Onaindiak dioenez, Irisasi izenorde honekin "Ibaizabal"en ere kolaboratu omen zuen.

Baina ez A. Onaindiak eta ez J. Bilbaok ez dakarre noiz eta non sortua zen eta ez noiz hil zen Toribio Iriondo, eta Alfonso Astaburuaga apaizari esker lortu ditut sortze eta heriotze garaiak Elgoibarko San Bartolome parrokia nagusian. Bestalde, argi bedi, lan guziak

ez direla Eusko Bibliographia-n bilduak, zeren T. Iriondok sortutako eliz-kantetatik anitz liburu eta aldizkarietan zabaldu bai dira. P. M. Urruzunok A. Baudran-i egin zion itzulpenaren ondotik (11), 370 eta 373 orrialdeetan han datoz beste "Agur Erregiña"ren bost bertsoak eta "Billeraco alabac"ren zazpirak.

T. Iriondo eta P. M. Urruzuno, herkide eta adiskide ziren, eta 1920an, Pedro Migelen apaizgoaren urre-eztaietan, omenezko bertsoak idatzi zituen, gero

Ipuiak (12) izeneko liburuaren hasieran argitaratu zirenak.

Oraintsuago, “Andre guztien artean bedeinkatuena” izeneko poesia, Madrid-en argitaratu den *El Libro de la Virgen* bilduman agertu da (13). Toribio Iriondoren lanok ondo sakabanaturik agertzen dira. Eta, sortzaileaz gainera, biltzaile ere ba zen, Azkueren lanetan ikus genezakeanez.

Azkueren *Cancionero popular vasco*-rako bost kanta bildu zituen: “¡Oy, bart!” (Zearrotzako Maria Josefa Uribarbarrenetxearenakin osatuaz beteko zuena), “Aldapeko sagarraren...”, “Logura naiz ta logale”, “Gazte zoroaren...” eta “Peru gurea Londresen” delakoaren lehen partea (14). Eta Euskalerrriaren *Yakintza*-rako bi ipui (15), “Alostorrea” eta “Zegamako bilindrinak”.

Lan guziak bildurik liburu eder bat hornitzeko haina badu eta euskal idazleen artean toki berezia merezi duena da Toribio Iriondo Sasiain elgoibartarra.

Ondorean, txosten honen bukaeran,  
“Ogi zerutik” osorik ematen dut, lehen  
argitalpenean dagoenez.

Donostia, 1975-IV-25  
Euskera, XXI,



MISIO SANTUBETARACO  
JESUS GURE JAUNARI  
ETA  
AMA BIRJIÑARI  
CANTUBAC.



TOLOSAN:  
PEDRO GURRUCHAGA-REN  
Alargun eta Semeen Moldizteguian.  
1893 garren urtean.





## SACRAMENTU GUZTIZ SANTUARI BISITA .

Errezatzen dira sei edo iru *Aita gure, Ave-Mari ta Gloria*, esaten dala, bacoitzean:

*G. Bedeincatua ta alabatua izan dedilla Aldareco Sacramentu guztiz Santua.*

*E. Beti izan dedilla bedeincatua ta alabatua.*

Azquenean, Jesusen Biotz Sagraduari *Credoa.*

*Ogui Cerutic  
Etorria,  
Zu cera gure  
Poz guztia.*

Bildots santua  
Ara emen;  
Munduco gaitzac  
Quentzearren,

Sagrarioan  
Non dagoen,  
Lurra ceruaz  
Bat eguiten.

Misterioric  
Aundiena,  
Jaungoicoaren  
Oroimena;  
Gozotasunic  
Gozoena  
Guizonentzaco  
Dagoena.

Gauza guztien  
Eguillea,  
Ceru ta lurren  
Erreguea,  
Gure artean  
Bicitzea:  
¡Cer zoriona  
Dan gurea!

Etzaitut beguiz  
Icusitzen;  
Baña bai fedez  
Det sinisten,  
Sacramentuan  
Nola zauden,  
¡Jesus laztana!  
Gu maitatzen.

Nere utsaren  
Ondarretic,  
Jabe neretzat  
Aitorturic,

Emen naucazu  
Auspezturic,  
Adoratutzen  
Umillduric.

Eleiza santac  
Dizu jarri  
Lamparacho bat  
Betiz argui;  
Nai digularic  
Adieraci,  
Nola ceraden  
Orche bici.

Olioa da  
Arguitzeco,  
Eritasunac  
Sendatzeco,  
Janari ere  
Izateco:  
Ala da Jesus  
Guretzaco.

Argui nazazu  
Nere Jesus:  
Senda nazazu  
Nago erreguz:  
Indar nazazu  
Alimentuz:  
Ez arren utzi  
Ni umezurtz.

Birjiñen ardo  
Chit gorria,  
Sendoen ogui  
Chit zuria,  
Amoriozco  
Gar bicia;  
Graci guztien  
Iturria.

Zugan nie daucat  
Esperanza,  
Dudagabeco  
Seguranza,  
Zugabe dana,  
Dana da utsa,  
Aicez dijoan  
Lur-autsa.

Maitagarria  
Maite zaitut,  
;Norc ez maitatu  
Maite Jesus?  
Maitatu eza  
Nago damuz,  
Ofenditua  
Ain pecatuz.

;Ay milla biotz  
Banituzque!  
;Danac zuretzat  
Nai nituzque!  
;Ay Jesusequiñ  
Banintzaque,  
Maitez urtua  
Banengoque!





# SACRAMENTU CHIT SANTUBARI

ISTRIBILDA. CORO.

ADAGIO

G... gi ze... rulik E... to... ri.

ya Zu... ze... ra gu... re Poz guz li... ya

Religioso Duo.

ALDIYAC

Biidots san... lu... ba A... ra E... men

mundu... ko Gai... tzak Ken... tze... a... rren Sagra... ri

yo... an Non... da... go... en Lu... rra... ze... ru... az

Bat e... gi... ten Lu... rra... ze... ru... az Bat e... gi... ten

## BIBLIOGRAFIA OHARRAK

- (1) Gora Jainkoa!, Euskalerriko Liturji Batzordeak argitaratua. Izarra. Donostia, 1972. 50garren kanta.
- (2) Zarauzko Aita Misionari batek 3.en Ordenako Anai arreibai eskaintzen dien Lore sorta edo San Franziskoren 3. Ordenako Erregla bere azalgueta, alabantza, pribilejio ta induljensi berri askorekin apaindua. Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen moldiztegian. 1900garren urtean. 9,5 x 15 zm. neurrian 246 orrialdeko liburu. A. Fr. L. Villasante jaunari esker, liburu hau Aita Jose Antonio Ugarte Angiozarkoarena dela jakin dut, 1935ean argitaratu zen A la Seráfica Provincia de Cantabria en el septuagésimo quinto año de su Restauración delako liburuak dakarrenez. Elgetako monografian ematen dut Aita Frai Jose Antonio Ugarteren berriak. Ikus Elgueta con Anguiozar y Ubera (Donostia, 1975), 142-143 orrialdeetan.
- (3) Misio Santubetaraco Jesus gure Jaunari eta Ama Birjiñari cantubac. Tolosan: Pedro Gurruchaga-ren Alargun eta Semeen moldiztegian. 1893. urtean. 10 x 15 zm., 32 orr., eta beste 4 orr. musikaz.
- (4) Maria Beaturic gabe contzebituari. Tolosa, 1904.
- (5) G. de Sorarrain, Catálogo de obras eúscaras. Barcelona, 1891. 411 orr., 1206 ref.
- (6) 1921eko argitalpenean. Lehen edizioa 1885ean izan zuen.
- (7) A. Onaindia, Milla Euskal-olerki eder. Larrea-Amorebieta, 1954.
- (8) A. Onaindia, Euskal Literatura, III, 256/258 orr. B. Estornés Lasak ere aipamena egiten dio Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, vol. II, Literatura, 194 orr.
- (9) J. Bilbao, Eusko Bibliographia, IV, 422. Donostia, 1974.
- (10) J. Bilbaoren obra berean, 423 orr., "Billa joan eta gabe etorri" izeneko aipatzen du.
- (11) Baudran-en aipatutako itzulpenean, Zeruko Argiya edo jondo pentsatu!, 1921eko edizioan.
- (12) Urruzuno'tar P.M.'en ipuiak. Neketako Ama-Birjiñaren irarkolan. Iruñea-n, 1930. 5/6 orr.
- (13) El Libro de la Virgen. Antología Mariana Hispana e Iberoamericana de poesía y de pintura: Poesías castellanas, catalanas, gallegas, vascas y portuguesas. Madrid, 1963. Aita Onaindiak aipatzen du, Euskal Literatura, II, 103 orr.
- (14) R. M. Azkue, Cancionero popular vasco, 135, 195, 463, 504 eta 887garren kantak.
- (15) R. M. Azkue, Euskalerraren Yaktintza, II, 6 eta 130garren ipuiak, 30 eta 356garren orrialdeetan.

J. P. ULIBARRIREN  
GUTUNLIBURUARI AGURREZ

Arabako Diputazioak bere probintziako euskal idazle baten lana argitaratzeko ematen duen aukera, txalogarria da. Honela, orain arte guti batzuk ikus ahal zuten liburu berezia, guzien eskuetan jartzen da.

Ukondoko Ulibarriren Gutunliburua, Gipuzkoako Diputazioaren "Julio de Urquijo" liburutegian aurkitzen zen eta handik aterea da lehen argitalpen hau egiteko.

1915ean Fernando de la Quadra Sal-

cedo-k “Luis de Azkona” izenez egin zuen artikulu batek bultzatu zuen Julio Urkixo euskal idazle arabaar honen zenbait berri jakingarri ematera. Geroztik, bere “Gutunliburua”ren zatitxoak besterik argitaratu ez badira ere (N. Alzola — Anai Berriotxoak — argitaratuak) euskal literaturan behar zuen tokia irabazi du azken urte hauetan (orrialde hauetan ematen den bibliografia leku-ko). Baina aitor dezagun, batez ere, Aita Lino Akesoloren ikerketeri eta goresmeneri esker baliatu dela. Honegatik, agurrezko hitz horien ondotik, sarrera gisa, Euskaltzaindiaren urre eztaietan A. Akesolok Gasteizen arabarrei begira eman zuen hitzaldia jartzen dugu, Euskaltzaindiaren “Euskera”tik hartua.

Yose Paulo Ulibarri Galindez Arabako Okondon sortu zen duela berrehun urte. Garai hartan, Okondo, euskaldun hutsa zen. Berak aitortzen digu bertso batean:

Okondo-ko erria  
da euskaldun bere izatia...

Gainera, 1831. urtean era honetara idatzi zion J. B. Anituari, Abandora joaterakoan bere jaioterria nola utzi zuen azalduz: “Oraindino ni etorri nintzanean, imini barriya zan ardaotegi bat erri guztirako. Besterik ez eguan. Eta euzkerazko eskola bi, elexa biyetan, eta erderazkoa... erriyan erdian gura dabenantzako”. Honegatik, Etxaidek dio, Ukondoko herriak erakuspide eder bat eman ziola aldi hartako Euskal Herriari, elizaren babespean euskal ikastola ipiniaz.

Ogibidez abere sendatzailea zen, bere txartel inprimatuak dioenez. 1797an ezkondu zen Maria Josefa Landa, “Mari Papatxu” Abandoko alabarekin, eta ez zuten haurrik izan.

Abandon zenbait aldiz agintaritzako zinegotzi hautatua izan zen eta 1814tik 1836ra bitartean Bizkaiko batzarretan fiela. Kargu hauetan euskararen alde egin zuen. 1829. urtean, Gernikako batzarretan, ahalegin guziak egin zituen euskarari languntasun ofiziala eman ze-

kion eta Bizkaiko eskoletan aginduzkoa izan zedin bere irakaspena. Gogoan eduki dezagun — Yon Etxaidek ongi dioen bezala — batez ere, bera bakarrik izan zela, aldi hartako euskal giro urrian, ahalegin sutsuak egin zituena euskara ofizialki aitortzeko, euskal-ikastolak ipintzeko, euskal-akademia bati sortzea emateko eta hiztegi eta gramatikak argitaratzeko.

Behar bada eragin hoiien ondorioz, 1841ean batzarrak euskararen alde hartu zituen erabagietatik ikusten duguna: egunereko erabagien laburpena euskaraz egin eta urrengo eguneko batzarrean irakurtzea, eta Institutoan euskara irakastea.

Gutunliburuan, bere ideiaz, erregezaletasuna agertzen du, Cadiz-ko lege berrien aurkako, eta liberalen politikari “debruziñoa” deitzen dio, batez ere euskaldunen Foruei ikutu ziotelako. 1834an Don Carlos-ek Elizondon eman zuen “decretoa” bere Gutunliburuan euskaraturik ezarri zuen. Euskararen

eta Euskal Herriaren zoriona D. Carlos-en aldetik etorri zezakean ustekoa zen.

Erljio kontuan berriz, biderik zintzoena zeritzanetik jarraitu nahi zuen. Katoliko osoa zen. Bere gutun batean emazteari aitortu zion: “Nik eguño ez-tot, ez txantxetan bere, Yainkoen le-geen aginduen kontra ezer esan”. Eta elkarren arteko har-emanetz nahikoa naturaltasunez idazten du.

Yose Paulo Ulibarrikok, Egunari euskerazkoa argitaratu zuen 1815ean; ez zuen utzi euskaraz idatzitako libururik, baina bai Gutunliburu eder hau, euskal eskutitz sorta bikainez. Gutunez gainera beste gauza jakingarri batzuk ere ba-ditu. Harizmendiren bertso batzuk ere sartzen ditu bere gutunen artean, baina bereziki azken orrietako bertso-lanak, 1823tik hasita. Letra bi edo hiru pipiak jan da ditu eta ez da erraz azken-urtea zenbatgarrena den ateratzea.

Gutunliburu honek argi adiarazten

digu Ulibarrik bere garaiko gizon handi askorekin zituela har-emanak, eta honegatik, bertako izkribu asko, XIX. mendearen lehen parteko historia hobeto ezagutzeko agiri baliozkoak dira.

Euskal literaturaz ondo hornitua zuen bere liburutegia. Ezagunak zituen Axular, Lecluse, Larramendi, Kardaberraz, Astarloa, Añibarro, Mogel, Fr. Bartolome, Iztueta eta abar.

Bilbon 1814tik 1832ra bitartean argitaratu ziren Gabon kantanak, anitz Bizenta Mogelenak ziren, baina Ulibarriren eragina ez-ezik eskua ere nabari da, A. Akesolok hain ongi uste duenez.

Yose Paulo, Abandon bertan hil zen, 1847. urtean.

Euskal literaturak ez du material gehiegirik Gutunliburua bezalakoak ilunpean edukitzeko eta egileari bere sorrerako berrehungarren urteburuan egingo zaion omenik zuzenena Gutunliburua inprimaturik argitaratzea da. Ara-



bako Diputazioak bere lepora hartu du bete behar hau, egilearen oroimenez liburua lehen aldiz argitaratzeaz. Gainera, argitara ere, bere eskutik irten zuen bezala, esku-izkribua dagoen dagoenez; bere letra argi eta garbia irakurterreza denez gero, idatzi zuena ber-berak egin-dako bezala euskaldungoan ari direnei eta edozein irakurle euskalduni egilearen euskaltzaletasun zintzoa bera bezain zintzo adiarazteko.

1975ean Gutunliburuaren  
aurkezpenez argitaratua.

## BIBLIOGRAFIA

N. Alzola Guerediaga (Hno. Valentin Berriochoa, F. S. C.), "XIX-garren gizaldiko euskal izkribuak. Jose Paulo Ulibarri-koak 1823-garren urtean Erro Ministruari egin zion eskutitza, eta beste batzuk", *Euskera*, VI (1961), 231/237 orr. "Ulibarri euskaltzaleak Lunoko Aita Mariano kaputxinuari egin eutson eskukitza 1826-an", *Euskera*, VII (1962), 131/134 orr. "Jose Paulo Ulibarri-ren gutunak. 1823'an Egia Bizkaiko Sindikuari egin ziona", *Euskera*, VIII-IX (1963-64), 285/288 orr. "XIX Gizaldiko Euskal eskutitzak Abandoko Jose Paulo Ulibarri ta Durangoko Manuel Abarrategui-ren artean egiñikoak (1826)", *Euskera*, XIII (1968), 103/105 orr.

"Del epistolario inédito del herrador bascófilo de Abando. Correspondencia de Juan Ignacio de Izueta y José Pablo de Ulibarri Galindez". *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, año XVII (1961), pp. 313/321. "Correspondencia entre Jose Pablo de Ulibarri Galindez y Juan Ignacio de Mendizábal", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XIX (1968), pp. 163/165 y 345/349; XXI (1965), pp. 225/231; XXIII (1967), pp. 197/201. "Del epistolario de José Pablo de Ulibarri Galindez. Carta a Don Esteban de Artza (1833)". *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XXIV (1968), pp. 215/219. "Illunpetik argitara; Ulibarri arabarra (1775-1847)", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XXX (1974), p. 266. "Euskal Bibliographiarako oarrak. Ulibarriren Euskerasko ta Gaztl. Iztegia (Argitaratu bakoa)", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XXX (1974), pp. 266/269.

Bajo el seudónimo Juan A. de Bidaurreta, "Tambien Alava ha aportado escritores a la Literatura Euskara", *Vida Vasca*, XLIV (1967), pp. 37/39.

Lino de Aquesolo, "Jose Pablo Ulibarri Galindez (1775-1857)", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XVIII (1962), pp. 25/35. "Algo más sobre el escritor Ulibarri", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XVIII (1962), pp. 415/421.

"Euskal-esnale ta euskal-idazle Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea idazlanean", *Oleri* sorta, I - II (1962), "Zortzikote", 121/142 orr.

"Euskal-egutegirik zarrena", *Jesus'en Biotzaren Deya* (Otsaila edo Zezeila, 1962), 23/24 orr.

"Escritor vasco y gran campeón de la lucha por su lengua vernácula: El alavés José Pablo de Ulibarri y Galindez (1775-1847)", *Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"*, XIII (1969), pp. 81/95.

"Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri", *Euskera*, XVI (1971), 35/48 orr.

José Manterola, "Noticias bibliográficas y literarias". *Rev. Euskal-Erria*, VIII (Donostia, 1883), p. 546.

Luis de Azkona (Fernando de la Quadra Salcedo), "El herrador de Abando Juan de Ulibarri". *Boletín de la Solidaridad de Obreros Vascos*, del 15 de febrero de 1915.

Florencia Amador Carrandi, *Catálogo de Genealogías del Archivo de la Casa de Juntas*. Publicación de la Excma. Diputación de Vizcaya (Bilbao, 1958), Núm. 2.301, registro 172, genealogía 1925.

"El vascófilo José Pablo de Ulibarri y Galindez (1775-1847). *Nota complementaria*", *Boletín de la R.S.V.A.P.*, XVIII (1962), pp. 323/325.

Bernardo Estornés Lasa, *Literatura*. vol. I, de la *Enciclopedia General Ilus-*

trada del País Vasco — cuerpo B —  
(San Sebastián, 1969), pp. 589/597.

Yon Etxaide, "Jose Paulo Ulibarriko  
Ukondo'ko semea", *Zeruko Argia*,  
Irailaren 1-ekoa, 1963.

Vicente Francisco Luengas Otaola,  
Introducción a la Historia de la Muy  
Noble y Muy Leal Tierra de Ayala  
(Bilbao, 1974), cap. XXIV.

S. Onaindia, *Euskal Literatura*, II,  
(Bilbao, 1973), 333/338 orr.

Julio de Urquijo, "El herrador vasco-  
filo José Pablo Ulibarri", *Rev. Eus-  
kalerriaren alde*, año V, núm. 104  
(1915), pp. 225/231.

Luis Villasante, *Historia de la Literatu-  
ra Vasca*, (Bilbao, 1961), pp. 240 y

258.

Además, en el pueblo natal de Ulibarri, una revista titulada "Ecos del Valle" se ha ocupado en dos ocasiones del escritor. La primera, en el número del 5 de octubre de 1972, y la segunda, totalmente dedicada al ilustre hijo de Okondo, en junio de 1975.

También hay que añadir tres artículos de E. Knörr, que bajo el título "Ante el bicentenario de J. P. Ulibarri" aparecieron en la edición alavesa de "La Voz de España" los días 15, 16 y 18 de enero de 1975.

Las conferencias y discursos del acto de homenaje a J. P. Ulibarri en Oquendo, con motivo del bicentenario, ved en "Euskera", XXI (1976), pp.167/193.

P. HUALDE MAIO  
ERRONKARIKO "USKARAREN"  
LEKUKO

Jaun andreok:

Gure historiaren lehen erroak Nafarroan ditugula dakigunontzat, zer gauza atseginagorik Nafarroa erresuma zaharreko hiriburu hontan mintza ahal izatea baino? Baina, batez ere, Campión-en irakurgaietatik gure historia, aberri problematika eta euskara bera sakonago ezagutzera eta maitatzera heldu zen honentzat.

Nafarroako erresuman egin nituen

Erdi-aroko Arte ikasketak. Arte baliosa egitan. Nafarroak bere buruaren jabetasuna osoa zuen garai haietakoa. Geroztik, historian, berriz ez du lortu maila hura. Balioen neurria ekonomiaren alderdi hutsetik begiratzen dutenek kontuan izan behar dute erromaniko eta gotiko monumentu handi hoiek eraiki zituzten garaian zer nolako aberastasuna zuen gure Nafarroak, inguruko erresumekin konparaturik. Bere nortasun osoa galduz gero, eztu ezagutu lehengo mailarik, eta goragoko agintari berriei gogozko zitzaien helburuetara errenditurik, foru eta guzi ere, bertan behera utziak izan ditu herriaren nortasunean hain finkaturik zeuden kultur balioak.

Jokabide hau, lotsagarri ez ezik, mingarri zaigu euskaldun eta euskaltzaleoi gure egunotan Antso erregeak goraiatu zuen “Lingua Navarrorum” galzorian ikusi beharra. Zer egia Erronkarin esaten zutena: Ez dago legerik ezdokenarentako”.

Hala ezagutu nituen “uskára” berezia

mintzatzen ziren azken erronkarriar zaharrak banan bana hobiratzen. Iragan apirilaren 30-ean bete dira hiru urte erronkariko azken euskalduna hil zela eta nere sentipen minari eutsi ezinik eskaini nion gorazarrezko artikulu bat, igaz Gogoz deritzan nere liburuan bildurik argitaratu nuena (1).

Gaurko egunez, aski gazte hil zen Hualdez mintzatzean, Nafarroako eskualde eder horren oroitzapen ezitia berbizten zait bihotzean eta bertako zahar haiengandik jasotako kanta zaharrak ditut gogoan.

Kantok argitaratzean eman nuen bibliografian agertzen zenez (2), Erronkariko "uskáran" lehen aldiz izkribatu zuena Bidankozeko Prudenziio Hualde izan zen, duela ehun urte bere sorterrian hila, eta egun, Euskaltzaindiaren deira, beste hiru nafarrekin batean goretsi nahi duguna.

Nere lan hura inprimategian sartuz geroztik, esaldi labur batzuk argitaratu

zituen Florencio Idoatek "Cuadernos" berean, Burgin 1569. urtean izan zen sorginkeriegatik Iruñako Auzitegian epaituei ukapena zinegotziz esan era-ziak (3).

Hala ere, literatura mailan behinik-pehin, Hualde bera agertzen zaigu aintzindari.

L. L. Bonaparte printzeak, gure hizkuntzaren berezitasunen mapa egiteko ikerketak hasi zituenean, eskualde bakoitzeko euskaldunekin harremanak hartu zituen. Erronkarin bertan ere herririk gehienetan izan zituen harremanok, baina gehienak Bidankozeko Hualde eta Mendigatxakin izan zituen eta hauen eskutik ikertu zuen bertako euskalkia. Behar bada, Burgikin batean, hegoaldera euskararen muga zelako hautatu zuen horrela. Herri bakoitzean azterketa arin bat besterik ez zuen egin, eta Bidankozen anitz saiatu zen. Burgin, dirudienez, ez zuen aurkitu nahi zuen bezalako laguntzailerik.

1856. urtean hasi zen Hualde, L. L. Bonaparteren eskarizko lanean. Ezagutzen dugun lehen lana, bera bizi zelarik argitaratua, Astete-ren Katixima izan zen, 1869an Bonapartek Londresen argitara emana, Saraitzu eta Aezkoako itzulpenekin batean (4). Geroxeago, baina urte berean, Mariano Mendigatxak itzuli zuen Salmoen berrogeitahamargarrena agertu zen. Eta, guk dakigunez, oraingoz, hauek dira Erronkariko euskalkiaren lehen testuak.

D. Dionisio zeritzan Uztarrotzeko apezaren bidez jarri zen M. Mendigatxa Azkuekin harremanean. Eta Astete-ren Katixima, Hualdek itzulia, eskaini zion Azkuek Mendigatxari 1903ko gutun batean, Bidankozeko apezak eskolan erakatsi zezan. Eta Katixima birargitaratzeko asmoa hartu zuen, baina ez zen heldu hortara. Egia esan, Azkue hiztegia argitaratzearekin lanpeturik zebilen garaia zen. Behintzat, ondoko gutuntan ez du aipatzen katiximarik (5).

L. L. Bonaparte hil zelarik, Londre-



sen, bere agirien artean gelditu ziren Hualderen esku-izkribuak ere. Urte bartzuen ondorean, sakabanaturik galtzeko arriskuan zeuden agiriok eta Euskaltzaindiko zuzendari izango zen Azkue zenari esker Euskal Herria hoietaz jabetzeko arduratu zelako. Zeren, Azkuek, bere hiztegi nagusia inprimategiratu zuen garaian, zenbait gutun idatzi zituen Euskal Herriko Diputazionetara eta garai hartan Londresen Enbaxadore zen Fermin de Lasala, Duque de Mandas zenari gai hontaz arduratzeko. Baita Londreseraino joan ere, esku-izkribuok ikustera; eta, printzearen alargunak, Sotheran deiturako liburu saltzailearen bidez, gure Diputazioneri saldu zizkion 1904. urtean (6). Hualderenak Nafarroakora etorri ziren.

Julio Urkixok, bere asmo ederren artean, gure literatura zaharreko testuak argitaratzeari eman zion bere zuzendaritzapean argitaratzen zen aldizkari hartan eta 1934. urtean, Bernardo Estor-nés Lasa izabaar jatorraren eskutik jasoz hasi zen Hualderen esku-izkribuak

agertzen. 1934ko zenkabi batean San Mateo-ren Ebangelioen lehen hamar kapituluak argitaratu zituen eta urrengo urteko batean hamairugarrenera arte (7). Baina, kitto. Hor gelditu zen argitalpena bukatu gabe.

Itzulpen hau lehenbait-lehen argitaratua ikustea nahi genuke, gure literatura aberatsegia ez delako eta Erronkari-ko "uskára" hobeto ezagutzeko. Lan honi inork ez dio kentzen bere baitan duen garrantzia. Honegatik, A. Pérez Goyenak zor zaion tokia ematen dio *Contribución de Navarra y de sus hijos a la Historia de la Sagrada Escritura lanean* (8). Bestalde, berak Georges Lakombe-k *Les traductions basques de St-Mathieu* deritzan lanean oso ona dela esango digu (9); eta euskaltzain hau us-te dut bazela nor holako aitortpena kontuan hartzeko.

Bere bizitzaz oso guti dakigu eta guti eman nezake. Gainera, guti hau ere lehen beste batzuk jasoa da. Azkue bera izan zen berririk gehien eman zuena

Erronkariko euskalkia aztertze lanean (10). Gero, arestian aipatu dudan Pérez Goyenak berri gehiago emana du eta ondorengo gehienak gauza bera jaso dute (11). Barka, beraz, emanen ditudan berri laburrotatik gehiena lehenago bestek esana bada. Beranduago etorri bainintzen gaira. Hala ere, Erronkariko esaera zahar batek ongi zion bezala: "Etseko ardaunetik ezda ñor bere orditan".

Gure Hualde, bataio izen-deituraz, Pedro Prudencio Hualde Mayo zen, Bidankozen sortua 1823ko apirilaren 26an, Rakas zeritzan etxean, 10 senideko famili batean. Pedro Prudencio zen neba-arrebetarik zazpigarrena. Gurasoak, Pedro Fermin eta Maria Josefa. Aita Bidankoze bertakoa eta ama Uzta-rotzekoa.

Latin gramatikaz eta humanitatez lau ikastaro osatu zituen Jaka-ko elizbarrutian, Aragoiko Salvatierra-n; matematikak eta Teologia eta Moralez lehenbizi-koak Iruña bertako San Miguel Minte-

gian. Subdiakonoz ordenatu zen 1849-an, eta Diakono eta Presbitero 1850-ean. Bere apaizgoa hauetan eman zuen: Zolinan erretore, Uztarrozen koajutore, eta 1853-rako, hogeitahamar urte bete-tzeaz, bere herriko erretore. Eta bertan iraunen zuen bizitzaren parterik gehiena. Baina, ez zuen izan bizitza luzea. Itxura denez, ez da ere hain atsegina. Elizako partidetan begiratzen baldin badugu, 1875-eko azaroaren lehenetik, berriz ez dugu ikusiko bere esku-izkriburik, heriotza hurbildu arteraino. Herrian nahigabe asko izan omen zituen eta bertatik aldetu Tiebas, Eloko Gatzaga, Irurozki eta Mizaldu herrietan bete zuen bere apaizgoa. 1879ko maiatzean berriz itzuli zen bere herrira erretore, elizako liburuetan berriz ikusten da bere eskua, baina ez zen izanen luzaroko. Urte honen abenduko 9an hil zenez. Heriotza baino lau egun lehenago, oraindik bere eskuz izkiriatu zuen liburuetan, eta ez dakigu ziur zerk eramane zuen mundutik 56 urte doi doi bete zituenean.

Gainerakoan ez dugu bere bizitzaren xehetasunik. Bonaparte printzeak Etxenikeri idatzi zizkion gutunetan aipatzen du Hualde, baina lanez apartekorik ez du ezer esaten (12). Mariano Mendigatxak, aipatu ditugun gutun hoietan, inoiz ez du aipatzen P. Hualde.

Bidankozen gaur egun apez den Nikolas Iribarrenek, eliz-liburuetan Prudentzio Hualderen esku-izkribuak erakustez gainera, hilerrira eramán ninduen. Han dago oraindik Hualde zenaren hobia, aski borrraturik, beste hilarri biribil hoietako batzun artean eta argazki bat atera nion.

Gizona joan zitzaigun, baina hor dugu bere lana literaturaren aberasgarri eta euskalki galdu berriaren lekuko. Nafarroako Diputazionean gordetzen da San Mateoren Ebangelioa eta merezi luke osorik argitaratzea. Oroi, munduan gizonak gehien irakurria duen Bibliaren zati bat dela eta hizkuntza beraren baliuez gainera bestelako interesa ere bada. Berezkoitzeko Leizarraga Calvin-

darrak Testamentu berria itzuli zuenetik (1571) honerat historia luze bat dugu Bibliaren inguruan. Bonaparte printzeak, itzulpenok haintzat harturik, lan ederra bultzarazi zuen bere languntzailerei gai hontaz lanak eskatuaz. Osorik, Duvoisin-en itzulpena bakarrik argitaratu zuen (1859), gainerakoan zatiak baizik ez zituen argitaratu. Baina, halaz ere, lan ederra bete zuen, garai hortako giroa kontuan izanik.

Garai hartako giroa aipatzeaz, batez ere, George Borrow-en Biblia Espainian (*The Bible in Spain*) deritzan liburuan kontatzen duena daukat gogoan (13), 1836 eta 1840. urteetan hemendik ibilia eta Bibliaren zabalkundea egitearren presondegian egona. Berak pasarte batean dioenez: “Yo soy el que los malos de Madrid llaman Don Jorgito el Inglés. Acabo de salir de la cárcel, donde me encerraron por propagar el Evangelio del Señor en este reino de España”. Liburu hontan, euskaldunoi buruz ere badu gauza politik 37. kapituluan. Ezagutzea merezi du.

Baina, ez nadin joan nere gaitik harat. Aipatu dudan hau adibide bat besterik ez da, Bibliaren edo Bibliatikako itzulpenak guretzat duen garrantzia azaltzeko. Hualderen parte hor dago zokoratuturik. Noiz ikusiko du argia? Osorik argitaratzen ez den artean, historiarekin eta euskararekin zordun gaude. Eta Erronkariko bi esaera zahar oroitzuz bukatuko dut nere mintzaldia: “Liburu zerratiuak ezdu ñori ere eratsukitan”. Honegatik, uste jakitun honi jarraituz, argitaratzeko bide bat egin dezagun. Horrela, “Urak bide egingen du”.

Iruñea, 1979-V-25  
Euskera, XXIV

Cristiainaren Doctrinaren  
Introducciona

Fiel Christian oro  
cla anisqui obligatue,  
devocione equitra  
biotz guciaz, 1  
Christoren gore arguiaz  
Cruche Sainthiarequi 2

Artan bada nai ecuncion 3 il  
ou redimitioatic  
gore becatuoren 4 cautibidatetic,  
eta enemigo gaisstotic.

Eta corren oatic  
acostumbratu biar zra  
Ceinatra eta Sainthiuetra,  
irur Cruche equitantziualarie

Erronari l'alle contaco Zomait iritan  
Erraitandeu onisa  
1. guciaz. 2. Sainthiarequi. 3. ecuncien. 4. beca-  
tiaren. 5. irer.



## BIBLIOGRAFIA OHARRAK

- (1) J.S.M., Gogoz (450-454 orr.). Donostia, 1978.
- (2) J.S.M., Fragmentos de canciones del "uskára" roncalés, "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra", VIII, núm. 22 (5-19 orr. eta Bibliografía 19-20 orrialdeetan). Iruña, 1976.
- (3) F. Idoate, Un proceso de brujería en Burgui, "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra", VII, núm. 20 (225-276 orr. eta aipatzen diren testu laburrak 243 eta 249 orrialdeetan) Iruña, 1975.
- (4) Le Petit Catechisme espagnol de P. Astéte traduit en trois dialectes basques: 1, Aezcoan por D. Pedro José Minondo, Institutteur à Gurralda, avec la collaboration de don Martín Elizondo, d'Aríbe; 2, Salazarais, par don Pedro José Samper, curé de Jaurrieta; 3, Roncalais par Don Prudencio Hualde, curé de Vidangoz. Vérifié et modifié sur les lieux mêmes par le prince Louis-Lucien Bonaparte, avec le concours des gens de la campagne, et après avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible. Londres 1869 (in 4 - 74 p.) J. Vinson, Essai d'une Bibliographie de la langue basque, núm. 395, Paris, 1891.
- (5) Cartas de D. Resurrección María de Azkue a Mariano Mendigacha, F. de Zerío y Segura-k bilduak, EUSKERA, VI, 1961, (181-208 orrialdeak).
- (6) Del epistolario de Azkue, A. Irigoyenek bildua. EUSKERA, II, 1957 (261-393 orrialdeak; baina, aipatzen diren gutunak 281-tik 290-ra bitartean aurkituko ditugu).
- (7) RIEV. t. XXV, 1934 (547-548); eta t. XXVI, 1935 (185-195 orrialdeetan).
- (8) A. Pérez Goyena, Contribución de Navarra y de sus hijos a la Historia de la Sagrada Escritura. Notas históricas y bio-bibliográficas. ("Pamplonensia," Serie A, vol. I) Iruña, 1944. Liburu honen 111. orrialdean.
- (9) G. Lacombe, Les traductions basques de St-Mathieu, "Eusko-Jakintza", Baiona, 1947 (289-294). Bere lan honen 293. orrialdean hara zer dioen zuzenki: "Les autres versions. — Bonaparte, qui avait en quelque sorte découvert le roncalais, fit traduire en ce "sous dialecte" le livre qui nous occupe, par l'abbé Hualde, curé de Vidangoz. Cette traduction, fort bonne, était restée inédite, mais les premiers chapitres en ont été publiés dans la Revue internationale des Etudes basques".
- (10) R. M. de Azkue, Particularidades del dialecto roncalés, EUSKERA, XII, 1931, (207-406 orr.). Lan honen 257. orrialdean ematen ditu Prudentzio Hualderen berriak.
- (11) N. de Cortazar, Cien autores vascos, Donostia, 1966 (42-45 orr.); B. Estornés Lasa, Literatura, vol. I, Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco, Cuerpo B, Donostia, 1969 (364 eta 651-652 orr.); S. Onaindia, Euskal Literatura, t. II, Bilbo, 1973 (348-349 orr.).
- (12) J. de Urquijo, Cartas escritas por el principe L. L. Bonaparte a sus colaboradores, RIEV, II, 1908 (215-221 eta 655-659 orr.); IV, 1910 (233-297 orr.). Etxenikeri egindako gutunetan inoiz aipatzen ditu Hualde, Erronkariko euskalkia eta lanak.
- (13) G. Borrow, La Biblia en España. Alianza Editorial. Madrid, 1970.

BRUNO ETXENIKE  
(1819-1893)

Jaun andreok; señoras, señores;  
agur! guzoi:

En esta breve disertación, para conmemorar el centenario de las Fiestas Euskaras, quiero traer al recuerdo a uno de los promotores de las mismas al frente de la Asociación Euskara de Navarra: Bruno de Echenique. Y perfilar, escuetamente, algo de su vida, de su obra y de sus relaciones con el príncipe Luis-Luciano Bonaparte.

Bruno Eugenio Maria de Echenique y

Garmendia, nació en Urdax el 9 de Julio de 1819 y vivió gran parte de su vida en Elizondo, en la mansión palaciega de Datuegaraya (Datuena). Fue hombre de buena posición social y gran cazador.

De todos los colaboradores del príncipe, fue el que mejor se hizo cargo de sus investigaciones y del método por él adoptado.

Falleció en Pamplona, el 14 de Marzo de 1893.

Por encargo del Príncipe Bonaparte tradujo al vascuence navarro, cinco partes de la Biblia: El Evangelio según San Mateo (Londres, 1857) y La Profecía de Jonás (Londres, 1862), más las hasta ahora inéditas: El Cantar de los Cantares de Salomón, El Libro de Ruth, El Evangelio de San Mateo y El Apocalipsis de San Juan, todos ellos en dialecto baztanés, cuyos manuscritos se conservan en el Archivo de la Diputación Foral de Navarra.

El 11 de Agosto de 1856, y por mediación de Antoine d'Abbadie fundador y mantenedor de las Fiestas Euskaras, Bruno de Echenique tomó contacto con el príncipe Bonaparte en la mansión de Echaux de Saint-Etienne de Baigorri, y allí mismo se comprometió con la traducción de El Evangelio de San Mateo.

En 1866 acompañó al príncipe durante 17 días consecutivos, en un recorrido por tierras navarras para hacer las debidas precisiones en sus estudios lingüísticos interdialectales.

Julio Altadill dijo de él: "don Bruno Echenique, vascófilo eminentísimo, hombre dotado de excepcionales cualidades de sabiduría atestiguadas en sus innumerables producciones y al frente de la Asociación Euskara, entidad patriótica de buena memoria, de la cual Echenique era alma y vida".

Louis-Lucien Bonaparte printzearen lankide gorenetakoen artean aipamen

berezia merezi du Bruno Etxenike zenak. Ez zioen alperrik esango, printzeak bere gutun batean: Zu zaitut eskatzen ditudan itzulpenok nola behar duten bereala ohartu den bakarra.

Bruno Etxenike Garmendia Urdazubin sortu zen, 1819ko Uztailaren 9an (beraz, hil honetan bete dira ehun eta hirurogei urte). Bataio izenez, Bruno Eugenio Maria jarri zioten. Bere aita eta aitatxi ere Urdazubikoak ziren; ama ordea, Berakoa. Beraz, Bruno Etxenike, Axularren sorterrikoa zen, baina bere bizitzako parte handi bat Elizondon igaro zuen, Mugairetik Elizondora bidan aurkitzen den Datuegaraia (Datueña) jauregian. Bonaparte printzearekin hemendik izan zituen harremanak, 1857tik 1862ra bitartekoak behinik-pehin, itzulpen lanak burutu zituen garaian. Gutunik anitz idatzi zion hemendik printzeari. Bere seme Bruno Etxenike Meokik, printzeari egindako berrogei gutun gordetzen zituen eta J. Urkixori utzi zizkion RIEV-en argitaratzeko. Gero Nafarroako Foru Diputazio-

neak erosi zituen gutun horiek. Gaur egun, L. L. Bonaparte printzearen eta bere laguntzaile euskaldunen arteko harremanak ikertu nahi dituenak beharrezkoa du gutun hoiek aztertzea.

Etxe aberatseko gizona zen eta, honetatik, diru laguntzaren eskerik bagekoa izan zen printzeari eskaini zion laguntza. Printzeak, Bruno ihizazale zenez, eskopeta bat erregalatu zion bere laguntza eskertu nahirik, eta azken geratean galdu zitzairen Etxenikereren biloberi. Ihizaria, arrantzalea eta ibiltari handia omen zen eta esaten dutenez, Urdazubitik Gasteizera zenbait aldiz mendiz mendi joana omen zen ihizan eginaz. Ibilaldiotan, esan ohi da, Baztan, Ultzama, Sakana, Burunda eta Nafarroa erresuman euskalkien arteko desberdintasunez ohartzeko zela eta elkarren arteko konparaketak ikertzea gozkoa omen zuen.

Larresorron frantsez eta matematika ikasketan egona zela badakigu, Piarres Lafitte jaunak eman digun berriari esker.

Honez gainera, bere bizitzaz oso guti dakigu. Bi aldiz ezkondu omen zen. Lehen emaztea Ruiz de Alegria deiturazko arabar bat omen zuen eta beragandik seme-alabak izan zituen, Mikaela eta Joakin. Bigarren ezkontzako emaztea Prudentzia Meoki, eta honekin hiru seme, Bruno, Salvador eta Saturnino. Eta, hoiien ondorenez senitarte handia utzi zuen.

Iruñan hil zen, 1893. urteko martxoaren hamalauan.

... ..

Nolakoak ziren printzeak agintzen zituen Biblia itzulpenak?

Duvoisin kapitanak Hiribarren apezari esan zionez, Bonaparte printzeak katoliko egiten zuen bere burua, baina Biblia euskaratzean ezertariko oharrik gabekoa nahi zuela, hizkuntzalarientzat nahi zuenez. Intxauspek eta Uriarte berak egin zituen ahaleginak alperrika-

koak izan ziren. Hontan: “Protestanteek berak baino estuagoa zen gure Printzea”, esango digu Aita Akesolok. Bonapartek ez zuen nahi ez behar Biblia beraren itzulpeneko euskara baizik. Baina, bere ekintzari esker, gure literaturaren aberasgarri ditugu bere laguntzaileen lanok.

Bestalde, euskalkiak mugatzeko lehen lan serioetan probetxugarri izan ziren eta Azkue berak ere Morfología vasca deritzan lanerako erabili zituen. Baztango euskalkiaren berezitasunez ere baliatuz. Baina, euskalkien ikertze sakon baterako oraindik bada hor materialik aski eta ondoko gizaldiak bertara jo beharko dute gure hizkuntzaren Atlas osatzeko orduan.

Brunok, Bonaparteren aginduz, Bibliaren bost zati itzuli zituen euskarara. Hauetatik bi baizik ez ziren argitaratu:

San Mateo-ren Ebangelioa. (El Evangelio de San Mateo. Londres, 1857), goi-nafarreraz idatzia eta Jonás-en Pro-



fezia (La Profecía de Jonás. Londres, 1862), Baztango euskaran, joan zen mendearen erdialdera Elizondoko hirian erabiltzen zen erara.

Argitaratu gabe dauden esku-izkribuen artean, Nafarroako Foru Diputazioko gordailuan daude: Salomon-en Kantiketako Kantika, Ruth-en liburua, San Mateo-ren Ebangelioa-ren bigarren itzulpen bat eta San Juanen Apokalipsis, laurok Baztango euskaraz idatziak.

Iragan maiatzaren 25.ean Iruñian Prudentzio Hualderi buruz eman nuen hitzaldian esan bezala: oroi, gizonak munduan gehien irakurri duen liburua Biblia dela; oroi, argitara gabe gelditzen zaizkigun itzulpenogatik historiarekin eta euskararekin zordun gaudela. Gure literatura ez baita aberatsegia holako lanak gordailu zoko baten edukitzeko.

Ikus dezakegunez, gure euskarak baidu oraindik bitxi ederrik izkutaturik. Noiz ikusiko dute argia?

... ..

Baina, nondik eta nola hartu zituen Etxenike zenak Louis-Lucien Bonaparte printzearekingo harremanak?

Bonaparte printzeak Klaudio Otaegi hondarribiar maisua ahaideko zuen, elkarren emazteak ahizpak zirenez. Bere bidez ezagutu zuen nonbait Antoine d'Abbadie eta honek bultzatu zuen euskararen iker lanetara.

Oroi, d'Abbadie jauna izan zela Euskal Jaien sortzaile eta eusle. Urruñan 1853. urtean sortu eta mugazemendik, duela ehun urte lehenbiziko aldiz Elizondoko hiri hontan. Besteak beste, Nafarroako Asociación Euskara elkar-go osatzen zutenekin batean Bruno Etxenike ere partaide izan zen 1879. urte gogoangarri hartan. Eta, banatu ziren sarien artean, eskola maisurik hoberenaren saria K. Otaegirentzat izan zen.

D'Abbadiek 1856ko apirilaren 25ean egin zion gutun baten bidez gomitatatu zuen printzea, Euskal Herrira etor zedin. Eta, printzea ikertze asmo berri hu-

ra aurrera eraman nahirik, urte bereko uztailaren 19an heldu zen Baionara eta egun berean agurtu zuten laguntzaile izango zituen Duvoisin eta Intxauspek. Berehalaxe Nafarroako bi alderdiekin harremanean jarri nahi zuen eta abuztuaren 7-rako Baigorriko Etxauz jauregirat dei egin zion d'Abbadie jaunak, bere anaia zen Charles bizi bai zen orduan jauregi hontan; eta gutunean zioenez, Elizondon bizi zen Etxenike hau ezagutzeko aukera izan zezan. Eta 1856ko abuztuaren 11an heldu zen Bruno Etxenike Urdazubitik Baigorrira. Hogeitahamasei urte zituen Brunok eta elkarren artean izan zuten lehen harreman hartan hartu zuen beregan San Mateoren Ebangelioa euskaratzea. Bai laster burutu eta argitaratu ere.

Gogozko izan zituen printzeak Etxenikereren itzulpen lanok, dirudienez beste inor baino lehen ohartu bai zen lana burutzeko zehaztasunez. Printzeak berak hala aitortu zion 1859ko irailaren 12an izkiriatu zion gutunean: "Usted es el único que inmediatamente se ha he-

cho cargo de lo que yo quiero en las versiones que encomiendo”.

1857ko urrilean egin zuen printzeak bere bigarren bidaia. Hil honen 15erako deitu zituen bere laguntzaileak Baionarat eta Londresko bere inprimategian argitarazi zituen liburuak aurkeztu. Orduan izan zuen Bruno Etxenikek bere lehenbiziko lana eskuratzeko aukera. lehenbiziko lana inprimaturik eskuratzeko aukera.

Baionako bilera hartan laguntzaileei lanen batasunez hitz egin zien. Bereziki aburu bateratua eta ortografia bakarra eskatuz eta ortografia arauak markatu zituen.

Helburutzat euskararen euskalki desberdinen konparaketazko ikerketa zuela agertuz, argi eta garbi adierazi zien.

Gainera, urte hontako bidaiari etorri zen printzea lehen aldiz Baztanera.

Eskuratu ahal izan zituen liburu eta itzulpenen bidez, ondoko urteetan, eus-

kara sakonki ikasi eta ikertzeari eman zion. Baita anitz lan burutu ere.

Ongi menderatu zuen gure mintzaira eta zituen zalantzei buruz pertsonalki nahi zuen Euskal Herrian zehar, han-hemenka, ber berak erabaki. Hortarako etorria, 1866. urtean, urtarriletik martxora bitartean berriz izan genuen hemen. Baionako "Mont St. Jean" etxean kokaturik, deitu zituen bere laguntzai-leak. Hauen artean genuen Bruno Etxenike ere. Orduan eraturik eginen zuten gure Nafarroa gaindi ibilaldia. Elkarrekin igaro zituzten hamazazpi egun, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari..., aldeak ikusiz eta ikertuz, Bonaparte printzea, Otaegi, Etxenike eta hirurak.

Printzearen azken bidaia 1869. urteko udaberriz izan zen. Politika giroagatik, muga pasatzeko eragozpenak izan zituen eta Donibane-Lohitzunen gelditu zen. Harat deitu zituen nafar laguntzai-leak eta beste zenbaiten artean joan zen Bruno Etxenike ere.

Urrengo urtean erori zen Frantziako Napoleon III.a eta printzeak ez zuen izan bere lanetan jarraitzeko behar zuen laguntzarik. Eta hemen bukatzen dira gure Etxenikeren berriak. Bere lanen mezua guztiz argitara gabe.

Hitzaldi labur hontan, Bruno Etxenikeren ohorea gorai patuz eta ospatzen dugun eguna gogoan hartuz, duela ehun urte Iparragirrek hemen kantatu zuen Oroitza ekar dezadan bukatzeko, une honetan hain egoki datorkigunez, hara hemen lehen eta azken bertsoak:

Elizondoko uri  
eder politean  
euskalduna ugari  
bildu da pakean  
esanez batu gara  
bai zori onean  
gorrotorik gaur ezta  
gure batzarrean.

Nafarren bide onak  
gaur laurak batean

da artu bear dana  
errien onean  
euskaldun on guztiak  
betiko pakean  
eztegu nai gudarik  
anaien artean.

Elizondo, 1979-VII-20

Euskera, XXIV

## BIBLIOGRAFIA

L. Akesolo, Katolikoan euskerazko Bibli-itzulpenak, "Jaunaren deia", 35 zenbakia, 1971.

Duvoisin-en Biblia Saindua-ren bigarren argitalpenari hitzaurrea. Bilbo, 1972.

J. Altadiill, Geografía General del País Vasco-Navarro (vol. Navarra, tomo 2) p. 81, urte gabe.

N. Alzola (H.V.B.) Bonaparteren Eunurte-muga dala-ta (1857-1957) "El Bidasoa" 1957. urteko uztaila-urrila zenbakietatik ale berezia (separata). Echenique. Boletín R.S.V.A.P., XIX (1963), 282-284 orrialdeak.

R. M. Azkue, Morfología vasca, "Euskera", IV eta V (1923-1924), 303, 338 eta 340 orr.

J. Bilbao, Eusko Bibliographia, tomo III, 274-275. Donostia, 1973.

B. Estornés Lasa, Literatura, tomo I, 363 eta 683 orr. (Ed. Auñamendi). Donostia, 1969.  
Diccionario Enciclopédico Vasco, vol. V, 450-452 orr. (Ed. Auñamendi). Donostia, 1974.

A. Irigaray, (A. Apat-Echebarne), Una geografía diacrónica del euskara en Navarra, 31-40 orr. Iruña, 1974.  
M. Izetaren Dirua galgarri eleberriaren

"Leen peredikia", 10-11 orr. Auspoa Liburutegia, 13 zenb. Tolosa, 1962.

G. Lacombe, Les traductions basques de St-Mathieu, "Eusko-Jakintza". Baiona, 1947.

P. Lafitte, Biblia Euskal-Herrian, "Euzko-gogoa", 1958. 497 eta 499 orr.

S. Onandia, Euskal Literatura, tomo II, 166-168 orr. Bilbo, 1973.

A. Pérez Goyena, S. J., Contribución de Navarra y de sus hijos a la Historia de la Sagrada Escritura. Notas históricas y bio-bibliográficas. ("Pampilonensia", serie A, vol. I) 110 orr. Iruña, 1944.  
El valle de Baztán. Colección bio-bibliográfica. 36-37 orr. Iruña, 1957.

J. de Urquijo, Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a sus colaboradores, RIEV, II (1908), 215-221 eta 655-659 orr.; IV (1910), 233-297 orr.

J. Villalonga, Introducción a un estudio sobre Luis-Luciano Bonaparte y sus trabajos. "Eusko-Jakintza", vol. VII (1953-1957), 39-68 orr.

L. Villasante, Historia de la Literatura vasca, 173-177 orr. (2. argitalpena). Arantzazu, 1979.

J. Vinson, Essai d'une Bibliographie de la langue basque. I, 285, 325 eta II, 765 orr. París, 1891.



## AURKIBIDEA

Atarikoa .....	
<b>I — Euskal literaturaren ekintzaz</b> ..	
Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte .....	15
Lehen liburu inprimatua. Bernat Dechepare .....	47
“Gavon-Sariac”, gure Ilustrazioaren sarrera .....	57
Romantizismoaren lekukotasuna Euskal literaturan. Iztueta erromantikoa .....	69
I. Sarasola. Euskal literaturaren Historia .....	85
<b>II — Zenbait gizonen langintzaz</b> ..	105
Urkixo-ko Julioen 100. urteburuan .....	107
Antzinako ipuiak, Azkuek bilduak .....	117
Isaac Lopez-Mendizabal, euskaltzain ohorezkoa .....	133
Salbatore Mitxelena, poeta epikoa .....	149
Agustin Pascual Iturriaga, euskararen eraikitzailea .....	165
Toribio Iriondo, elgoibartarra, “ogizerutik” eta beste zenbait kantaren egile .....	189
J. P. Ulibarriren gutunliburuari agurrez .....	205
P. Hualde Maio, Erronkariko “uskararen” lekuko .....	215
Bruno Etxenike .....	231
Aurkibidea .....	247